

+



Euskarari sehaska eder bat eraiki ziotenekoa

Pascual Roman kimikariari elkarriketa



EMAKUME MASTER CUP TXAPELKETA IRABAZTEKO GERTU

Uxue Osés eta Madalen Etxegarai oñatiarrek domekan jokatu dute, Zumarragan, promozio mailako pilotako finala / 39

Osés eta Etxegarai Oñatiko Zubikoako pilotalekuan, eguaztenean.

XABIER URZELAI



Angiozar Bailerako Batzarrak auzoen arteko komunikazioa hobetzea du premien artean / 28

Miñaora eroango du produkzioaren zati bat Cegasak eta Oñatin manganosoa ekoiztuko du / 35

Mixel Ducau, Anje Duhalde eta beste asko zapatuan Aretxabaletan Aitor Sarasua omentzeko / 40

Zuhaitz motzez osatutako Aramaioako Azkoaga auzoko baso zaharra txukundu egingo dute / 28

SINADURAK

 IÑAKI UGARTEBURU / 6	 PEDRO GARITANO / 29
 MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 11	 MIEL GURIDI / 35
 MARIA IZAGA / 17	 ANDERE ETXEBERRIA / 48

SEAT ATECA



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT



Bego Gainza, zaharren egoitzetako langileen greba kartela atzean duela. E.A.



Ana Noguerias, Erguingo jantokian. E.A.



Elvira Lopez, Bergarako komisaria atzean duela. E.A.

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Pasa den egubakoitzean, marka guztiak hautsi zituen greba feministak, eta argi geratu zen oraindik ere urrats dezente egiteko daudela parekidetasunera bidean. Martxoaren 8a, hala ere, egun bat gehiago besterik ez zen izan urte osoko borrokan diharduten hainbat sektore feminizatutako langileentzat; lan baldintza eta hitzarmen duinak lortzeko borrokan dirauten horientzat, alegia.

Zaharren egoitzetako langileek 35 greba egun izan dituzte iraila ezkerro, eta hitzarmen berria sinatzeko negoziazioa "zeharo blokeatuta" dago, Mizpirualde egoitzako langile Bego Gainzaren esanetan. Soldata igoraz gain, "lan baldintza duinak" eskatzen dituzte. "Negoziaketa serio batekin hastea gura dugu, 2017ko soldatetatik abiatuta. Langile askok jardunaldi partzialak dituzte, eta badago jendea 300 euroko soldatarekin. Langile batzuk egunean hiru aldiz joan behar izaten dira lanera, egun osoan hiru ordu bakarrik egiteko. Egun guztia libre egotea exijitzen die horrek, eta ezin dute beste leku batean lan egin, ordutegiak oso txarrak direlako. Ez dago eskubiderik. Hitzarmen honetan eskatzen duguna da ratioak igotzea eta jardunaldi osoak izan daitezela. Antzintasuna ere oso gutxi ordaintzen digute eta hori igotzea ere eskatzen dugu", dio Gainzak.

Orain arteko negoziazioak "barregarriak" izan direla dio. "Proposamen serio batekin datozenean, itzuliko gara mahaira. Lehenengo pausoa Diputazioak eman behar du, jartzen duena baino dezente gehiago jarrita. Eta gero, patronalak negoziatzeko intentzioa erakutsi behar

Martxoaren 8a, urte osoko borrokaren baitan, egun soil bat denean...

Emakumeak gehiengoa diren hainbat sektore gatazka egoeran daude egun, arrazoi desberdinak direla eta; zaharren egoitzetako, eskola publikoetako jangeletako eta supermerkatuetako langileak eta epaitegi eta komisarietako garbitzaileak, adibidez

du, hori ere ez duelako egin orain arte –Adegi, Lares, Fundacion Matia eta Garen enpresek osatzen dute patronala–".

Gipuzkoan 5.000 langile inguru daude sektore honetan, %90 baino gehiago emakumeak. "Borroka feminista bat da. Pentsatzen dute zaintza bigarren mailako zerbait dela, eta ez da hala. Zentzu horretan, pentsaera matxista dute askok. Hala ere, borrokan jarraituko dugu hitzarmen duina lortu arte, auto karabanak, elkarretaratzeak eta manifestazioak eginez".

"LAN BALDINTZA DUINAK LORTU ARTE BORROKAN JARRAITUKO DUGU"

BEGO GAINZA

"EZ DUGU ULERTZEN ZERGATIK EGON BEHAR DEN ALDE HORI SOLDATETAN"

ELVIRA LOPEZ

Eredu berriaren aurrean, kezka
Gatazkan dagoen beste sektore bat eskola publikoetako jantokietako langileena da. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak eredu berri bat jarri gura du martxan, jantokiak gurasoen elkarrekin kudeatu ditzaten. "Oso ideia ona iruditzen zaigu jantokiak guraso elkarrekin kudeatzea eta tokiko produktuen aldeko apustua egitea. Baina horrek ez ditu gure lanpostuak bermatzen. Enpresa bateko langileak gara, eta eredu berri hau indarrean jarritz gero, gure lanpostuak kolokan egon daitezke", azaldu du Ana Nogueirasek, Arrasate Herri Eskolako Erguin zentroko jantokiko langileak. "Guk gura duguna da orain arte langile izan garenon eta gaur egun ere bagarenon lan baldintzak jasota eta bermatuta geratu daitezkeen. Horrez gain, hemengo hitzarmen batekin bermatzea, eta ez nazioarteko hitzarmen batekin. Orain arte, ez da inon jasota geratu zer gertatuko den gure lanpostuekin, eta horrek kezka eta beldurra sorrarazten digu".

Eredu berri hau otsailean zen indarrean sartzekoa, baina, lan-

gileen mobilizazioen ondorioz, urtebete atzeratu du Eusko Jaurlaritzak, eta, adostasun batera iristeko helburuarekin, batzorde bat eratu du sindikatu ezberdinetako ordezkariarekin.

Erguinen 11 langile daude guztira, eta bi dira gizonezkoak. "Gure sektorea oso feminizatuta dago, %90 inguru emakumezkoak gara. Nahiago nuke ezetz esan, baina horrek eragina dauka gure lan baldintzetan. Hala ere, nik badakit gure lana oso garrantzitsua dela, eta duela 10 urte nirekin egon zen gazte ba-

"EREDU BERRIAREKIN KOLOKAN EGON DAITEZKE GURE LANPOSTUAK"

ANA NOGUEIRAS

"LANGILE GEHIAGO KONTRATATU ORDEZ, KALERATU; EZ DUGU EZER ULERTZEN"

IRATXE MARTINS

tek kalean agurtzen nauenean konturatzen naiz horretaz".

Soldata arrakala orekatu guran

179 egun daramatzate greban komisaria eta epaitegiako garbitzaileak, irailaren 19tik. "Kaleko garbitzaileekin alderatuz gero, komisarietan %13ko soldata arrakala dugu eta epaitegietan, berriz, %7koa. Lan bera egiteagatik soldata altuagoak dituzte haiek, eta ez dugu ulertzen zergatik egon behar duen alde hori soldatetan", azaldu du Elvira Lopezek, ELA sindikatu-ko delegatuak.

Hori dela eta, eskaera nagusia soldata arrakala hori amaitzea dela adierazi du Lopezek. "Gure eskaera nagusia soldata arrakala hori orekatzea eta guztiok soldata bera izatea da. Krisi garaian ezarri ziren soldata hauek, eta oraindik arrakalak hor jarraitzen du. Negoziazioa oso gaizki dago momentu hauetan, oso geldia. Komisarien kasuan, negoziaketak 2008tik daude geldia, eta epaitegien kasuan, 2017tik. Konturatu ginen kale garbitzaileen soldataren eta komisarietako eta epaitegiako garbitzaileen soldataren arteko diferentzia handia zela, eta enpresarekin hitz egiten hasi ginen –Garbaldi da enpresa, baina Eusko Jaurlaritzak ere kudeatzen du, hein batean–. Baina oso jarrera hotza izan dute hasieratik. Ez dakigu Eusko Jaurlaritzaren presioak eragindakoa den jarrera hori, edo enpresaren beraren ekimenezkoa. Ez daukate negoziatzeko intentziorik erakusten. Hori dela eta, oraingoz, behintzat, oso urrun ikusten dugu akordioa. Zaila daukagu hitzarmena lortzea". Edozelan ere, borrokan jarraituko dutela garbi dauka-



Iratxe Martins, Dia supermerkatu batean. I.M.

te. "Lehenago edo geroago, negoziatu egin beharko dute, guk mobilizazioekin eta grebarekin jarraituko dugulako. Ezin dira langileak horrela tratatu, ez zaigu batere bidezkoa iruditzen".

Supermerkatuetako langileak

Emakumeak gehiengoaren diren eta lan-gatazka bizitzari ari den beste sektore bat supermerkatuetako langileena da. Dia supermerkatuko langileak, adibidez, greba mugagabearen gaude. Izan ere, enpresak ERE bat jarri du indarrean, eta Espainia osoan 2.100 langile kaleratuko dituztela iragarri du. ELAko delegatu Iratxe Martinsek azaldu duenez, negoziazio-mahaia Madrildik Euskal Herrira ekartzeko eskaera egin diote patronalari, "kaleratze horiek hemendik negoziatzeko" helburuarekin. "Madrilen negoziatzen bada, ezin dugu ezer egin, eta ez dakigu zein kaleratuko duten, nola, noiz eta zergatik. Ez digute inolako azalpenik ematen, eta egindako eskaeraren erantzunik ere ez dugu jaso. Horregatik gaude greban, kaleratze horiek hemendik negoziatu ahal izateko".

Gaineratu du sektore prekarioa dela haiena. "Dian beti egin dugu lan baldintza prekarioetan, eta pertsonal handitzea eskatu izan dugu. Langile gehiago behar dira, oraingoak lanez gainezka dabiltzalako. Eta gehiago kontratatu beharrean, kaleratu egin dituzte. Ez dugu ezer ulertzen.

Martxoaren 20an akziodunak Madrilen elkartzekoak dira, eta Martinsek dio hara joango direla. "Konturatu daitezen benetan borrokan gaudela eta ez dugula etsiko. Jo eta ke, irabazi arte!", azpimarratu du.

Hemen ere, langileen gehiengoaren emakumeak dira. "Askok, gainera, beste lan bat ere badute, biziraun ahal izateko. Izan ere, hilean 1.000 euro irabazita ezin dituzu eguneroko gastu guztiak ordaindu".

Diaz gain, Lidl eta BM supermerkatuetako langileak ere kalera ateratu dira asteon, "negoziazioa jasaten ari den blokeoa" salatzeko. "Sindikatuok aurkeztutako plataformetako aldarrikapenei betoak besterik ez dizkie jarri. Ez dute negoziatzeko borondaterik; denbora irabazirik guran ari dira", bukatu dute.

Greba "masiboa" eta "zenbatezina" izan da

Astebete pasa da Martxoaren 8ko greba feministatik, eta, oro har, oso pozik azaldu dira bailarako talde feminista ezberdinetako kideak, bereziki jende gaztearen presentzia nabarmenduz; kontsumo greba izan da apur bat hankamotz geratu dena

E.A. DEBAGOIENA

"Masiboa" eta "zenbatezina" hitzak nagusitu dira Martxoaren 8ko greba feministaren gaineko balorazioa egiterako orduan. Izan ere, Debagoieneko komertzio, lantegi, ikastetxe eta enpresetan eragin nabarmena izan zuen grebak egun osoan zehar. Beste komertzio batzuek, aldiz, ordu batzuetako lanuztea egitea erabaki zuten, elkarretaratzeekin eta manifestazioekin bat egin ahal izateko.

Azken hauek, hain zuzen, sekula baino jendetsuagoak izan ziren bereziki herri handienetan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin. Antolatzaileak ez dute zifra zehatzik eman, baina irudiek argi erakusten dute debagoiendar askok egin zutela bat mobilizazioekin. Bestalde, jende gaztearen presentzia ere azpimarratu gura izan dute antolatzaileek.

Herri nagusiez gain, herri txikietan elkartu zen jende kopurua ere azpimarratzekoa izan da, eta elkarretaratze eta manifestazioez bestelako ekintzek ere arrakasta handia izan zuten herri ezberdinetan.

Kontsumo greba

Grebak bost ardatz izan zituen: pentsiodunena, ikasleena, enpleguaren, zaintza arlokoa eta

kontsumoarena. Eta azken hau izan zen, beste guztiak ez bezala, hankamotz geratu zena. "Kontsumo greba ez da heldu leku guztietara, guk nahi bezala, baina, bestela, oso parte-hartzailea izan da, jende asko irten da kalera eta gure aldarrikapenak argi geratu dira. Erakutsi dugu badaukagula indar bat aurrera egiteko eta gurea aldarrikatzeko", azaldu dute M8 plataformako kideek.

Martxantera eta Udala

Bestalde, Bergarako Martxantera talde feministak bere hasierara adierazi, eta salatu du Udalak ez ziela utzi azken ko-

munikatua udaletxeko balkoitik kontatzen, eta, horren ondorioz, bai eguerdian eta baita iluntzean ere, San Martin plazako etxe partikular bateko balkoitik kontatu behar izan zutela komunitaria. Udalarari horren gainean galdetuta, hau erantzun du: "Bergarako Udala beti dago elkarlanean ekintzak antolatzeko prest; esaterako, berdintasuna lantzeko kontseilua sortu dugu. Gainontzeko Bergarako elkarrekin ere hainbat eta hainbat ekintza antolatu izan dira eta antolatzen jarraituko dira, elkarlanean, ezinbestekoa baita herrian denontzako ekintza arrakastatsua egiteko".



Martxoaren 8an, ilunkaran, egin zuten manifestazio jendetsua. IMANOL SORIANO

ALKIDEBA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIRUA
ERAIKUNTZARAKO ETA
INDUSTRIARAKO

administracion@alkideba.net

NILFISK-en
banatzaile
ofiziala



Saskibaloi taldearen babeslea



Máizaga - Soraluze errepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabilioia
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

"EAJren barne liskarrek Gipuzkoa kaltetzen dute"

Agintaldiko azken osoko bilkura egingo dute hil honen amaieran Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Xabier Olano EH Bilduren Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaileak agintaldia errepasatu du Goiena telebistako 'Harira' saioan

Amaia Zabala ARRASATE

Xabier Olano 27 urterekin hasi zen politikan, bere herriko, Altzoko, alkate, eta geroztik burubelarri ibili da. Hala, 60 urte beteko dituen honetan, EH Bilduren Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramailea da. Urte asko dira politikan eta hark argi azaldu du "erakuslehoan" hainbeste urte egiteak "nekatu" egiten duela.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan batzarkide izan da hainbat urtetan eta Aldundiko Ogasun zuzendaria ere izan zen EH Bilduren agintaldian. Bietatik egokitu zaio, bai Gobernuan eta bai oposizioan egotea, eta adierazi du "lana ezberdina" dela, baina helburua dela "beti gipuzkoarrei ahalik eta baldintza onenak sortzea".

Bi aldaketa nagusi

Gipuzkoako Batzar Nagusien daramatzen urteetan ikusi dituen aldaketen artean bi nabarmendu nahi izan ditu, emakumeen presentzia eta euskararen erabilera: "Ni Batzar Nagusietan sartu nintzenean 51 batzarkideetatik sei edo zazpi soilik ziren emakumeak; eta emakume gehiago dira orain; hori aurrerapauso handia da. Bestalde, hasieran, euskaraz egiten nuen eta sekulakoak entzun behar izan nituen. Izan ere, orduan, euskaraz egiten genuen batzarkideak dozena bat ginen, eta orain, ez dakiten hiru edo laurak izan ezik, beste guztiok euskaraz egiten dugu". Gaineratu du bi lorpenak oso garrantzitsuak direla, baina oraindik "asko" dagoela egiteko.

Agintaldiaren errepasoa

Agintaldi honetan EH Bilduk egin duen lana "oso positiboa eta eraikitzailea" izan dela adierazi du: "Lau urte hauetan 1.800 ekimen planteatu ditugu eta Gobernua ez da ehun proposamenetara ere iritsi. EAJk eta



Xabier Olano, Goiena telebistako *Harira* saioan. ENEKO AZKARATE

PSE-EEk gehiengoa dute, ordea, 51tik 27 batzarkide, eta, beraz, edozein proposamen ona eta zentzuzkoa izan arren, arrabola batekin kanporatua izan da zuzenean". Gaineratu du Podemos-Ahal Duguk 800 ekimen proposatu dituela eta horien %90 edo 95ean bat etorri direla; batez ere, arlo sozialean.

Gizarte politikak eta fiskalitatea

Olanok gaineratu du Gipuzkoan "ezberdintasun sozialak" izugarriak direla eta hori orekatzeko gizarte politikak beharrezkoak

direla: "Aurreko agintaldian baliabide gutxiarekin baina izugarri saiatu ginen gizarte zerbitzuak hobetzen; agintaldi honetan, ordea, baliabide gehiago eduki arren, murriztu egin dituzte; menpekotasunen bat duten lau mila eta piko familia-

**"EH BILDUK
BALDINTZA ZAILETAN
ERE GOBERNATZEN
DAKIELA ERAKUTSI
ZUEN ALDUNDIAN"**

ren dirulaguntzak murriztea, esaterako".

Fiskalitateari dagokionez ere, Olanok dio aurreko agintaldian "urrats garrantzitsuak" egin zituztela, "gehien dutenek gehien ordain dezaten", eta gaineratu du Europako alderdi ezkeriar guztiek zoriondutako ekimena izan zela: "PSE-EEk ere alde bozkatu zuen eta orain, agintaldi honetan, neurri hori ezabatzea bozkatu dute; jeltzaileei men egin diete. Ogasun teknikarien txostenaren arabera, Gipuzkoako 38 pertsona aberatsenei egiten die mesede araudi berriak, bakoitzak 400.000 euro aurreztuko baititu. Hori da Alderdi Sozialistak bultzatzen duen eta EAJk bilatzen duen fiskalitate justua? Erabaki sinbolikoak dira, baina oso ondo erakusten dute norentzako gobernatzen duten eta nori egin nahi dioten mesede".

Bestalde, Finantzen Euskal Kontseiluak 2018an ekarpen lege berri bat egiteko konpromisoa hartu zuela eta ez duela bete salatu du Olanok: "EAJren barneko familia liskarrek izugarrizko kaltea egiten diote Gipuzkoari".

Hiri hondakinak

Olanoren esanetan, hiri hondakin "arazoa konpontzeke" dago: "Gauza zailagoetan jakin dugu kontsentsuak topatzen Gipuzkoan. Leitzarango autobien kasuan, esaterako. Eta hondakinena ere ez da konponezina, eseri eta hitz egin behar da. Gainera, hondakinak kudeaketaren %80an denok ados gaude, denok nahi dugu ahalik eta gehien birziklatzea, eta tratamendu mekaniko-biologikoko zentro bat beharrezkoa da. Desadostasunak azken tratamenduan daude, hondakinak erretzean. Ezinezkoa da %20 horretan adostasunak bilatzea?".

Gaineratu du orain arte eraikitako plantaren "gehiengoa, labea izan ezik", berrerabili egin daitekeela beste norabide bateko kudeaketarako: "Oraindik garaiz gaude; bestela, gure seme-alaben eta gure udalen etorkizuna hipotekatuko dugu 30-35 urterako, ingurumen kostu eta kostu ekonomiko izugarriak dituen zama honekin".

Amaitzeko, Olanok dio hautetsundeei begira "bide onean" ikusten duela EH Bildu.

Osasuna kudeatzen laguntzeko hitzaldiak

Debagoieneko ESIk antolatzen ditu eta, batez ere, 59 urtetik gorakoei daude zuzenduta

Amaia Zabala ARRASATE

Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) izaera didaktikoko zenbait informazio-hitzaldi antolatu ditu, Osakidetza eskaintzen dituen tresnak ezagutzera emateko eta sustatzeko. Oraingoan, osasuna kudeatzen laguntzeko saioak antolatu ditu. Antolatzaileek honela azaldu dute: "Saio hauen bidez, mugikorretarako aplikazioen eta plataforma digitaletarako sarreraren erabilgarritasuna modu orokorrean errepasatzea lortu nahi da, eta baita osasun karpeta eta web bidezko hitzordua edo Osasun Eskola plataforma zehaztasun handiagoarekin lantzea ere. Azken finean, saio hauen xede nagusia da dauden tresnak erabiliz erabiltzaileek euren osasuna hobeto kudeatzea, autonomoagoak eta buruaskiagoak izatea".

Hitzaldi horiek, batez ere, "59 urtetik gorakoei" daude zuzenduta, baina argi utzi dute Paziente Aktiboko tailerretan parte hartzen dutenendako ere badirela.

Martxoan bi saio

Momentuz, gai hau lantzeko bi saio egingo dira: lehena Aretxabaletako Jubilatuen Etxean, martxoaren 13an, 11:00etan. Eta bigarrena Arrasaten, Kulturaten, martxoaren 28an, 11:00etan. Izenematea Arrasateko, Bergarako, Oñatiko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako bezeroen arreta eremuetan edo Debagoieneko ospitaleko Pazientearen eta Erabiltzailearen Arreta Zerbitzuan egin daiteke.

Hitzaldiekin segituko dute

Debagoieneko ESIk jakinarazi du orain arteko hitzaldietan herritarren erantzuna "oso ona" izan dela, eta, ondorioz, hainbat gairen gaineko hitzaldiak egiten jarraitzeko asmoa dutela.



Eroskiren 50. urteurrena ospatzeko Bilboko Azkuna Zentroan eginiko ekitaldian. EROSKI

Eroski kooperatibaren urrezko urteurrena

Martitzenean egin zuten lehen ospakizun ekitaldia, Bilboko Azkuna Zentroan, eta ekonomia eta gizarte sareko erakundeen ordezkariak zabala bildu zen bertan; besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Isabel Zelaa Hezkuntza ministroa

Amaia Zabala ARRASATE

Eroskik 50 urte bete ditu aurten, eta, hori ospatzeko, ekitaldi ugari antolatu dituzte urte osorako. Lehena martitzenean egin zuten, Bilboko Azkuna Zentroko auditoriumean, eta, Eroskiko ordezkariak gain, Iñigo Urkullu lehendakaria eta Isabel Zelaa Espainiako Gobernu Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ministro bozeramailea ere bertan izan ziren.

Bere mende Erdiko ospakizunean, erakunde, ekonomia eta gizarte sareko "400 lagun baino gehiagoko ordezkariak oparoa" bildu zen eta Agustín Markaide Eroskiko lehendakariak eskerrak eman zizkien bertaratu ziren guztiei: "Eskerrak bertan direnei eta ez direnei, emandako laguntzagatik, gaur ez ezik, baita 50 urte hauetan ere".

Kooperatibaren jatorria

Markaidek ekitaldian gogoratu zuen Eroski kontsumo-kooperatiba txiki batzuek ba-

tzearen emaitza dela: "Egune-roko oinarritzko behar batzuei emandako erantzun soziala eta kolektiboa izan zen Eroski. Izan ere, behar horiek hobeto asetzeko giza gaitasunean eta lankidetzan sinesten zuten sustatzaileak. Eroski berritzailea izan zen ordurako, zazpi kooperatiba haiek elkartzen zituen bereizten zituen baina gehiago nabarmenduz, eta berritzailea izan zen langileak bazkide gisa txertatzen".

Eroskiko lehendakariak gaineratu zuen 50 urte hauetan zehar Eroskik "bazkide kontsumitzaileei lotuta" jarraitu duela: "Gizarte eboluzionatzen ari zen heinean, haien beharrei erantzunak eskaintzeko, eta, ibilbide horretan, leial etsi izan die haren sustraiei eta lankidetzako jatorriari".

Eroskiren oinarriak

Martitzeneko ekitaldian, Eroskiko Kontseilu Errektoreko presidente Leire Mugerzak ere

hartu zuen hitza, eta honako hau adierazi: "Eroski asmo handiko bazkide-enpresa proiektua da, kooperazio-kudeaketa eredu berezia historiaren eboluziora egokitzen jakinda, baina beti gure izatearen arrazoiak aurkitzen ditugun erroetara itzuliz". Horrekin batera, Mugerzak Eroskiren oinarriak ekarri zituen gogora: "Ekitatea, harremanak humanizatzea eta eskubideetan zuzenagoa eta aukeretan berdinzaleagoa izango den gizarte baterako etengabe lan egiteko helburua".

Azkenik, ekitaldian bertan, Mugerzak adierazi zuen Eroski "ospakizun hau" merezi duten pertsonen proiektua dela.

EROSKIK HITZARMEN BAT EGIN DU BANKUEKIN, ZORRA BIRFINANTZATZEKO HELBURUAREKIN

Sei milioi bezero-bazkide

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da Eroski, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.652 saltokiko sare komertziala du. Hainbat saltoki motaren artean, supermerkatuak, hipermerkatuak eta *cash&carry*-ak ditu; horiez gain, baita gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere.

Sei milioi bezero-bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkidetik gora.

Bankuekin hitzarmena

Urteurren ekitaldiaz gain, Eroskik hitzarmen bat ere egin du zorraren %75 biltzen duten banku entitateekin hura birfinantzatzeko asmoz; guztira, 1.540 milioi euro inguru. Konpromiso horrekin, 2024ko uztailaren 31ra arte zabaldu du bere etorkizun finantzarioa.

Agustín Markaide Eroskiko presidentek balio handia eman zion zorra birfinantzatzeari: "Hitzarmen honek erakusten du finantza entitateek konfiantza dutela Eroskiren proiektuarekin; negozio prozesu osoan erakutsi dute konfiantza hori".

Horretaz gain, Eroskiko presidentek gogorarazi zuen Eroskik aurreko akordioak "konpromiso guztiak" bete dituela: "Konpromiso hauek indarrean daude uztailaren 31ra arte, eta, hala, lau urte hauetan 731 milioi euro gutxituko du Eroskik zorra, 2010etik hona 1.800 milioi".

Markaidek nabarmendu zuen hitzarmen horri esker Eroskik bere etorkizun finantzarioa eta, horri esker, bere negozio plana "garatzen" jarraituko duela eta gaineratu zuen "zurekin" eredu ere emaitza onak ari dela ematen Iparraldean: "Eremu horretan egin ditugu eraldaketa gehienak, eta hor indartu da gure lidergoa. Hala, eredu horren arabera, elikadura kontsumo osasungarriagoa eta arduratsua goa erraztea da asmoa, ildo horretan konpromiso sendoak hartuz".

Amaitzeko, Eroskik ziurtatu du gainerako finantza entitate hartzekodunetara zabalduko duela hitzarmena eta prozesu osoa datozen hilabeteetan amaituko dela.

Fagor Ederlan punta-puntan bikaintasun sarietan

Fagor Ederlan finalista izan zen nazioarteko *Daimler Supplier Award 2018* sarietan, Bazkide estrategikoa-Partnership kategorian. Ekitaldia otsailaren 20an egin zen Carl Benz Arenan, Stuttgarten, Daimlerrek Alemaniaren duen egoitza nagusia baita, eta nazioarteko 450 enpresa baino gehiago bildu ziren bertan; tartean, Fagor Ederlan, eskualdeko kooperatiba.

Zeremonian, Daimlerrek Fagor Ederlan nabarmendu zuen Txasiseko eta Powertraineko aplikazioetako espezialista gisa eta esan zuen Fagor Ederlanek "sekulako ahaleginak" egin dituela eta ezagutza eta baliabide global asko dituela eta horrek ziurtatu duela Clase A, B, CLA, CLB modeloetara eta bertsio elektrikoetara zuzendutako MFA2 proiektua arrakastaz abiaraztea.

Proiektu hori Euskal Herriko, Mexikoko eta Txinako lantegietan abiarazi dute eta funtsezkoa izan da Fagor Ederlan nazioartean garatzeko azken urratsean.

Fagor Arrasateren berrikuntzak ikusgai Parisko JEC azokan

Fagor Arrasate deformazio eta konformazio bidezko makina erremintak diseinatzeko, ekoizten eta hornitzen espezializatuta dago eta JEC azokan konpositeen industriarako azken berrikuntza garapenak aurkeztuko ditu.

Oraingo honetan, protagonismoa automozio sektorerako egindako prototipo batzuek hartuko dute, eta fabrikazio prozesu lehiakorak erakusteko adibide ezin hobeak izango dira; automatizazio maila handia dute eta, era berean, fabrikazio kostua murriztea ahalbidetzen dute. Azoka Parisen izango da, martxoaren 12tik 14ra.

Enpresaren standak prototipo horiek erakusteko gune bat izango du, eta, adibidez, nabarmentzeko kamioi astunentzako balezta hibrido bat da. Elementu horrek ibilgailuaren suspentsio sisteman eragiten du, eta altzairuan ekoiztu ohi da, baina Fagor Arrasatek aurkeztuko duen soluzioak konpositea eta altzairu xafla konbinatzen ditu.



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

Kirola eta ekitatea

Behin baino gehiagotan defenditu izan dut kirola modu egokian praktikatuz gero onura asko dakarkigula; zoriontasuna, osasuna, taldean lan egiteko ohitura, elkartasuna, esfortzuaren balioa, eta abar.

Oraingo honetan, kirola ekitatea lortzeko tresna egokia izan daitekeela adieraztera natorkizue.

Baina zer da ekitatea? *Kasuan-kasuan bakoitzari berea, behar duena edo merezi duena, ematea da.* Eta ez da gutxi. Pentsatzen dut gehienok hori lortzearen aldekoak izango garela.

Ondo baino hobeto dakigu askok eta askok behar edo merezi duguna baino askoz gehiago dugula; gure ingurura begiratu besterik ez dago. Baina zenbatek ez dute behar edo merezi dutena? Zoritxarrez, munduko biztanleriaren zati handi batek. Diotenez, munduko biztanleriaren ia erdiak –2.800 miloi pertsona– 2,5 dolar baino gutxiago ditu egunero bizi ahal izateko. A ze tristura!

Gure inguruan egoera askoz ere hobe da; ekonomiaren

BAZTERKERIA EGOERETAN DAUDENEI GIZARTERATZEN LAGUNDU DIEZAIKEGU

martxari esker, erakundeen konpromisoagatik eta elkarteen lanagatik, besteak beste, egoera txarrean dauden gehienek 2,5 dolar baino gehiago dituzte egunero bizi ahal izateko, baina, hala eta guztiz, ez dute *behar dutena edo merezi dutena.*

Gurean, ditugun kirol baliabideak –ekipamenduak, elkarteak, zerbitzuak, eta abar– kontuan izanik, esfortzu txikia eginez, bazterkeria egoeretan daudenei gizarteratzen lagundu diezaikegu, oztopoak ezabatuz eta erraztasunak eskainiz.

Bergaran, adibidez, Eskola Kirolean tarifa soziala eskainita –kuotaren %25 inguru ordainduta– 28 haur gehiagok eman dute izena, integrazioa errazteko dituen onurekin. Herriko kirol taldeei eskatu diegu kobratzen dituzten kuotetan berdina egin dezatela, behartsuenei tarifa murriztuak eskainiz. Eta, nola ez, kirol zerbitzu publikoetan berdina egiten ari gara.

Proaktiboak izan behar dugu, gonbidatu egin behar ditugu eta kirol mundura sarrera erraztu, eta aholkularitza-gidaritza zerbitzua eskaini; kirol aisialdia aukera paregabea baita sozializatzeko eta hobeto sentitzeko. Modu horretan, *"behar duten edo merezi duten" horretatik* gertuago izango dira.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Gizonei*

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

HTTPS://LABUR.EUS/HFYA
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Martxoaren 8ko greba feministaren arrakasta ikusgarria eta sentigarria izan da, beste behin. Ez bakarrik zenbakitan. Egun osoko lanuzte, kontsumo, zaintza eta produkzio greba eta mobilizazioetan parte hartu genuenok bizi izan genuen hor zerbait: emakumeon* arteko elkartasun bat, patriarkatuaren eta kapitalismoaren aurka borrokan jarraitzeko indar bat, alaitasun bat, gogo bat. Nik, behintzat, bizirik dut oraindik egun horretako

mobilizazio ondorena: emandako guztiagatik neketsua, baina aldi berean indarrez betea; ona. [...]

Badira indar horri oztopoak jartzen dizkietenak beti, eta grebaren bezperatan eta bitartean leku ugarian entzun genituen gizonaekoei buruzko iruzkin aspertuak –niri ere traba egin didatenez–, nik ere egin ditudanak: ez gaituztela ulertzen, kexu direla, egun bakarragatik bada ere ez dutela atzera urratsik egin nahi. Eta hala da.

Baina, gaurkoan, baliatu nahiko nuke eskerrak emateko eredu txarra ematen duten gizon horietatik guztietatik urrun, isilean,

greba hau aurrera ateratzen lagundu diguten asteriskodun gizon* guztiei: ahotsik altxatu gabe galdetu digutenei greba egunean haiek zer egitea nahi genuen, prestatu digutenei gosaria, bazkaria eta afaria horiek antolarazteko esfortzu bikoitzik eskatu gabe, mobilizazioetan azken lerroan jarri direnei deus erran eta oihukatu gabe... [...] Protagonismorik behar ez zenuten arren, mila esker, sukaldeko lana isilean eta umil egiteagatik, eta horregatik meriturik ez eskatzeagatik. Euskal Herri feminista bat denon artean eraikiko badugu horrelako gizonaekin* izango baita; edo, bestela, ez baita izango.

goiena“

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Cola Cao ona egin daiteke etxean azukre erdiarekin"

ZIGOR ITURRIETA SUKALDARIA, 'TXORIENE' SAIOKO AURKEZLEA

Eneko Azkarate BERGARA

Zigor Iturrieta sukaldariarekin ikastaroa antolatu du Miguel Altuna Institutuko Bizikasi zerbitzuak martxoaren 28rako, 17:00etarako, Bergarako San Joxepe elkartearen. 6 eta 16 urte artekoendako.

Korrikalaria, sukaldaria... nola heldu zinen telebistara?

Sukaldari batekin mendian korrika ari nintzela jakin nuen *casting*-a zegoela ETBn, *Txoriene* aurkezteko.

Casting-a egin nuen, eta aukeratu egin ninduten. Lau urte daroztat. 45 urte ditut eta lasai hiltzeko moduan nago: lau seme-alaba ditut, liburua argitaratu dut eta zuhaitza landatu.

Euskaldunok osasuntsu gosaltzen eta meriendatzen dugu?

Esango nuke inork ez duela horren osasuntsu gosalduek edo meriendatzen. Nahiz eta azkenaldian geroago eta informazio eta kezka handiagoa dagoen ondo



Zigor Iturrieta, *Txorieneko lau urtarok* liburua eskuan duela. EREIN ARGITALETXEA

elikatzeko. Cola Cao eta gailetatik, eta kafetik aterata, jendea hasi da ogi xigortua, zerealak eta bestelakoak gosaltzen. Baina, orokorrean, uste dut jendeak ez diola behar den besteko

garrantzirik ematen, bereziki, gosariari.

Denbora kontua ere bada...

Bai. Nire kasuan, gosaria da otordurik gustukoena. Gosez esnatzen naiz eta berdin dit ordubete lehenago iratzartzea

ganoraz arrosatzeko bada. Ogia xigortu, kafea eta zukua egin, lasai eseri...
Zer egin etxean ondo gosaltzeko?
Irabiaki bat esne normal batekin edo edari begetal batekin, zereal eta datil batzuk gehituta, esaterako. Zoragarri geratzen da eta umeek ere gustura hartzen dute. Bi minutuan eginda dago eta goiz osorako pilak kargatuta doaz eskolara.

Ze gosari da osasuntsuagoa: gozoa ala gazia?

Biak. Neurria da kontua. Eta aldatzea ere ona da. Batean, York urdaiazpikoa; hurrengoan, ezia Burgosko gaztarekin; edo esne-zopak... Azukre asko jaten dugu egunean zehar eta hori zaintzea ona da. Esaterako, Cola Cao bat egin genezake etxean, bestea baino hobe eta azukre erdiarekin. Principe gailetak ere egin genitzake etxean.

Zelako ikastaroa izango da Bergarakoa?

Eroango ditut gosari eta merienda batzuk; probatuko ditugu denon artean, eta, ostean, horiek zela egin erakutsiko diet. Nutella edo Cola Cao bat etxean zela egin... Praktikoak izango da. Eta errezetak emango dizkiet bertaratuei. Gaztetxoak merienda janda aterako dira.

HAU BE BADOGU!

La Polla Records-en itzulera indartsua



Punk talde mitikoaren itzularen nondik norakoak aste honetan eskaini dituzte taldeko kideek:

@La_PollaRecords: "Jada ez dago atzera bueltarik!
#LaPollaRecords40Aniversario.

@elkarzaintza45: "La Polla Records bueltan da, disko eta bira berriak besapean".

@ideiazabaldur: "@La_PollaRecords punk talde mitikoak 12 kontzertu emango ditu bere itzulera biran. Euskal Herrian BECen izango du geldiduna urtarilaren 19an".

Sare sozialetan ere hasi dira 'klikak' egiten

Korrika abiatzeko asteak bakarrik gelditzen dira, eta dagoeneko #klikak traola *trending tropic* izan da euskal erabiltzaileen artean:

@aek_eus: "Lagundu #klikak zabaltzen, laster errepidera aterako gara eta!".

@MertxeMugika: "#klikak euskarari! 21. Korrikaren mezua partekatu dugu Begoña Pedrosa eta Idoia Peñakoba, @MUnibertsitatea-ren ordezkariekin. Jakintza arloan ere #klikak egiteko prest!"

Facebook, Instagram eta Whatsapp, erorita

Asteazken arratsaldean, erori egin ziren Facebook enpresa berako zerbitzariak eta bere menpe dauden Whatsapp eta Instagram. Izan ere, Twitter izan zen eutsi zion sare sozial bakarra:

@abildua: "Facebook, Whatsapp eta Instagram erori egin dira hainbat herrialdetan #facebookdown".

@simplemente: "Whatsapp, Instagram eta Facebook erori dira. Noiz jausiko dira gobernuko lapurrak?" (itzulita).

ITURRI ONETIK

Garagardo festarik ez Oñatin

Aurten ez da garagardo festarik egingo Oñatin. Horrenbestez, iazko uztailakoa izan da azkena. Nekea, formula agortua ote dagoen eta jaialdiaren eraginkortasun txikia izan dituzte kontuan antolatzaileek erabakia hartzeko orduan. Hamabi urtez jarraian antolatu du garagardo festa Aloña Mendi elkarteak, sosak batzeko. Foruen plaza ondoko jolasgunean ipini izan dute karpa eta garagardo mota askotarikoak saltxitxa, ukondo eta bestelakoekin dastatzeko aukera izan da; betiere, jai giroan.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-03-12

Presoen argazkiak kendu zituen Ertzaintzak

Espainiako Auzitegi Nazioneleko Fiskaltzaren aginduz, Arrasateko Portaloiko hesian urteetan egon ziren euskal presoen argazkiak kendu zituen Ertzaintzak. Fiskaltzaren iritziz, "terrorismoa goraipatzeko edo justifikatzeko" delitua zen irudiak han edukitzea. Patxi Lopez lehendakariak Arrasaten, Isaias Carrascoren omenezko ekitaldian, egoera salatu eta egun gutxira kendu zituzten ertzainek argazkiak.



Bixamona

ARRATE LANDA BIDABURU

ARRASATE

Martxoaren 8ko bixamona, nekea, poza, irudi pila buruan bueltaka. Kontzentrazioa jendez gainezka, bazkaria *a tope*, arratsaldeko manifa ikusgarria. Bertan neska gazte mordoa "gora borroka feminista!" fuerte oihukatzen. Poza, poz handia, "badator erreleboa", baina, aldi berean, hutsune puntu bat, deserosotasuna.

"Zer dela eta?", galdetu diot nire buruari, dena primeran joan bada, baina orduan nire memoriak Santa Marinan gertatutakoa gogoratu dit. Gertaeraren protagonista, neska gaztea; orain ez dut pozik sumatu, tristura eta frustrazioa nagusitu dira nigan. Eta nire kontzientzia puñeteroa beste galdera batzuk botatzen hasi zaizkit.

Nire martxoaren 8ko aldarrikapenetan neska hori kontuan izan al dut?

Nire borroka feministak eta nire irakasle lanak balio al dute horrelako kasurik berriro ez dadin gertatu?

Eta nire erantzuna "ez dakit" izan da.

Aurtengo aldarrikapenak errepasatzen hasi naiz. Biak lelo potoloak, baina zer egiten dut egunerokotasunean hori lortzeko?

Zer bizitza nahi dut nik erdigunean jarri?

Oraingoan, erantzuna argi izan dut; gaztelaniaz esaten den bezala "*vidas que merezcan ser vividas*", bizitza bizigarriak:

-Non emakumeok gure gorputz, desio eta erabakien jabe izango garen.

-Non heziketa sexuala eskola guztietako curriculumetan era integralean txertatuta egongo den, estereotipo sexista, arrazista eta LGTBI+fobikorik gabe.

-Non gure gazteen heziketa sexuala ez den pornografia izango.

-Non emakumeok deseatutako haurrak izango ditugun, eta amatasuna ez den inposizio biologiko hutsa izango.

-Non abortua Kode Penaetik kanpo geldituko den eta haurrak izateko eta bere gorputzari buruz erabakitzeko aukera duen edozein pertsonaren eskubidea izan dadin. Non 16 eta 17 urteko emakumeen autonomia errespetatuko den eta bere gauzatzea osasun zerbitzu publikoetan bermatuko den.

Bukatzeko, azken galdera: zenbat urte eta zenbat belaunaldi igaro beharko dira gure etxe eta ikastetxeetan sexuari buruz era naturalean hitz egiten hasi arte? Erantzuna: badago zer egin.

Bekereleak

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

2011ko martxoaren 11n Fukushima zentral nuklearrean istripua gertatu ondoren, japoniarren ohiturak aldatu egin ziren; erosten dituzten elikagaien bekereleei

erreparatzen diete: elikagai kilo batek duen partikula erradioaktibo kopuruari. Ordura arte, prezioari erreparatzea zen ohikoena. Istripuaren ondoren, autoritateek 500 bekerele dituzten elikagaiak ontzat hartu zituzten, ez zeukaten beste aukerarik goserik pasatu nahi ez bazuten. Azken berrien arabera, 100 bekereletara jaitsi dute muga, baina begi bistakoa da: segurua zero bekerele da.

Galdetuko bagenu Fukushima inguruan zer nahiago duten, energia nuklearra edo berritzagarria, zer erantzungo zuten?

Energia nuklearra erabiltzen duten argindar-enpresei erosten diezu etxeko energia?

Sasoia da kooperatiba energetiko batera aldatzeko; ziurtatzen dizute %100 berritzagarriekin dabiltzala.

Eta zuk, sentitzen al dituzu horma horiek?

MIREN IRAETA

BERGARA

Arratsaldeko seiak dira eta Bilboko Unamuno plazako eskaileretan jarrita nago. Eguzkia sartzen ari den honetan, sagar bat jaten dudan bitartean, emakume saharar bat ikusten dut. Sahararra dela badakit; izan ere, burutik hasi eta oinak bitarteko kolore bizidun zapia darama soinean, sahararrek *melhfa* deiturikoa. Nire burua nahi eta nahi ez pentsatzen hasten da: "Bakarrik egongo ote da hemen?"; "Zenbat denbora darama Euskal Herrian?";

"Bertako lagunik edukiko ote du?". Interesa pizten dit, baina ez naiz nire lekutik mugitzen...

Bista altxatu eta plazako izkina batean beste emakume bati erreparatzen diot; hau euskalduna dela esango nuke... eta, ni bezala, bakarrik dago. Interesgarria dirudien liburu batean murgilduta sumatzen dut...abenturazko edo amodiozko istorio batek harrapatua. Honek ere interesa pizten dit, baina ez naiz gerturatzen...hiriko dinamika ei da hori, bakoitza berean.

Hiriguneko anonimatua utzi eta herrira itzultzean, betiko tabernan betiko lagunekin elkartzen naiz. Hemen taldearen segurtasuna sentitzen dut, ezagunak zaizkit espazio eta pertsonak, ez nago bakarrik, ez gaude bakarrik. Honek plazera besteko menpekotasuna sorrarazten dit; izan ere, sistema sozial honi *esker* bilakatzen naiz. Baina zer egin betikoa ez denean betirako? Gai al gara milaka aldiz gurutzatu dugun ezagunaren artean edota ehunka aldiz agurtu dugun *lagunaren* artean sortutako horma apurtzeko? Ba al dugu nahikoa segurtasun eta naturaltasun horretarako?

Ezagun nahiz ezezagunen artean bakarrik sentitzea apurtu eta integraziorako espazioak sortu behar ditugula uste dut nik.

Plaza zeharkatu duzun emakume saharar horri, izkinan zauden emakume euskaldun horri, edota urteetan tabernan ondoko mahaian egon zaren horri,

animatzen al zara mendira etortzen nirekin?

Gaztelera ez jakiteko eskubidea

JON OTERO URIBARREN

ARRASATE

Espainiako Estatuko legediak behartzen ditu euskaldun eta katalanak gaztelera jakitera. Baina guraso eta euskaldun naizen aldetik, nire umeak gaztelera jakin ez zezan nahi nuke. Hots, Francoren garaian jazo ziren ikastolak espainiar legearen aurka, eta gaurtik hasita jazo daitezke eskolak eta ikastolak konstituzio legearen aurka: nahi ez duen euskaldunak eta nahi ez duen baskoak eskubide ukaezina du gaztelera ez emateko eskolan.

Zer dakite madrildar gazteek? Bertako hizkuntza eta nazioartekoa; hots, ingelesa. Zer jakin behar du euskaldunak? Bertako hizkuntza, eta ingelesa agian. Eskubide ukaezina du nerabe batek aukeratzeko eskola eredu bat non ez zaion emango gaztelera irakasgaia, euskal hiritarra den aldetik. Nerabe eta gazte asko deseatzen daude irakasgai hura ez emateko, eta gehiago sakontzeko euskaran eta ingelesean. Legeari begiratu gabe, desobedientziaz hasi beharreko borroka da gaztelera irakasgaia ez eskaintzen hastea. Nahi duenak hautu hori izateko askatasuna izan dezan. Hemendik 200 urtera euskara eta ingelesa hitz egingo direla Euskal Herrian? Eta galduko dela gaztelera?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



50 urteak ospatzen ditugu zurekin

Konfiantza eta konplizitatezko istorioz osatutako 50 urte zurekin baino ez dira posible.
Eskerrik asko!

Álex Ramos
(EROSKEn bezeroa)

Ana Marín
(EROSKEn kudeatzailea)





Amaia Etxabe –Txatxilipurdi– eta Itxaro Artola –AED–, bakoitza dagokion urteurreneko zenbakia erakutsiz . XABI GOROSTIDI

35 eta 25 urteko bideak, euskararen zerbitzura

AEDk eta Txatxilipurdik elkarrekin ospatuko dituzte urteurren bereziak datorren zapatuan, hilak 23, Seber Altuben. Euskararentzat espazioak irabazteko asmoz eratu zen AED 1983an, eta zuhaitz horren adarretatik hainbat elkarte sortu dira

Xabi Gorostidi ARRASATE

1983ko azaroaren 29a. Diktadura batetik irten berri, euskararen presentzia urria zen Arrasaten –%10eko erabilpen maila zegoen–, eta, horri konponbidea emateko gogoak bultzatuta, egun hartan sortu zen Arrasate Euskaldun Dezagun elkarte. "Zerbitzatzeko gogoak jarri zuen martxan AED; euskararentzat espazioak irabazteko gogoak, alegia. Arrasateko euskaltzaleek eta Arrasaten lan egiten zuen beste herri batzuetako euskaltzaleek sortu zuten. Ordurako, ikastolak martxan zeuden eta kooperatibetan euskararen presentzia areagotzeko saiakera batzuk egin ziren, baina herri oso erdalduna zen, eta euskararen erabilpen maila nekez heltzen zen %10era", azaldu du AED kide Itxaro Artolak.

Euskararekin lotutako jardunaldi batzuen ostean, euskaltzale talde batek eman zuen AED eratzeko pausoa. "Erdalduntzeko bidean ikusi zuten Arrasate,

eta ondokoa pentsatu zuten: 'Zerbait egin behar dugu'. Beti esan dut bete-betean asmatu zutela; batez ere, argi ikusi zutelako euskaltzaleak batzeko beharra. Saretzeko, eta elkarrekin euskararentzat espazioak irabazteko".

Enbor beretik, hainbat adar

Ilusioa piztu zuen elkarteak, eta jende gero eta gehiago erakartzen hasi zen. Euskara hedatzeko zereginean askotariko lan-esparruak zeuden, eta horiei erantzuna emateko azpitaldeak sortzen hasi ziren: Arrasate Press, haurrentzako aisialdirako taldeak, emakume taldea, bertso eskola... Arrasate Press izan zen kimu haietatik elkarte izaera

**AED ELKARTEA
1983KO AZAROAN
ERATU ZEN, ETA
TXATXILIPURDI, ALDIZ,
1994KO MARTXOAN**

hartzen lehena, 1988an, eta horren eskutik heldu ziren Arrasate Telebista, 1990ean, eta Arrasateko Komunikabideak (ARKO), 1991n. 1994an heldu zen Txatxilipurdiren txanda. Ordurako, zazpi urte zeramatzan AEDk haurrentzako aisialdia lantzen eta sei udalekuak antolatzen.

1994ko martxoan plazaratutako Arrasate Press aldizkarian, honela azaltzen du elkartearen sorrera Txatxilipurdi elkarte: *AEDren kimu berria* izenburua duen artikuluak: *AEDtik kanpo izaera propioa izango du aurrerantzean Txatxilipurdi taldeak. Asteazkenean eratu zen formalki –martxoaren 23an– elkarte berria, eta bere gain hartuko du gaztetxoekin eta haurrekin AEDk antolatutako duen ekitaldi multzoa: ludoteka, udalekuak, babylekuak, gazte txokoak... ARKO bere garaian AEDtik sortu zen bezala, banaketa honek eraginkortasuna du helburu. Baina, AEDren filosofia berarekin egingo du lan Txatxilipurdik: gaztetxoekin ai-*



GOIENA

"Txatxilipurdi, Euskal Herrian, eredugarri da"

URRI URIZAR
TXATXILIPURDIN ARITUA

Txatxilipurdi sortu berritan dinamizatzailerit aritu zen, eta gaur egun zuzendaritza batzordeko kide da.

Zein ekintza gogoratzen duzu hastapenetatik?

Larunbatero izeneko ekimen bat genuen, B ereduan zebiltzan haurren euskara errefortzurako; betiere, modu ludikoan.

Zer lortu du Txatxilipurdi 25 urte hauetan?

Aisialdi eredu propio bat; euskarazkoa eta kalitatezkoa. Horrez gain, monitore belaunaldi mordo bat ahaldundu ditu. Euskal Herrian eredugarri da, eta, askotan, ahaztu egiten zaigu. Ohituta gaude Txatxilipurdi-k gauzak ondo egitera, eta ez dugu behar beste baloratzen.

Nola ikusten duzu euskararen egoera?

Globalizazioaren eragina hor dago, baina Txatxilipurdi oso prestatuta ikusten dut.

sialdirako ekintzak antolatzea, eta euskaraz antolatzea.

Gaur egungo argazkiak

Horren harira, kandlei putz egiteko prest daude bi elkarte horiek, baina, hain zuzen ere, zein da gaur egun duten egoera? AEDren kasuan, 620 bazkide ditu egun –Txatxilipurdirekin eta Ekin Emakumeak Elkartearekin partekatzen ditu– eta duela bi urtetik hona ez da derri gorrezkoa kuota ordaintzea elkartearen bazkide izateko. Momentu honetan, lau langile ditu



GOIENA

"Sorrera ekaitz perfektu batek eragin zuen"

GOIO ARANA 'ARRASATE PRESS'-EN ARITUA

Tokiko komunikazioko agerkari aitzindari horretako langile izan zen.

Zerk eragin zuen Arrasate Press sortzea?

Ekaitz perfektu bat gertatu zen: batetik, gogoak eta premia zeuden; bestetik, autoedizio sistemak asko sinplifikatu zuen aldizkari bat editatzeko prozesua; eta azkenik, euskaraz formatutako kazetariak agertzen hasi ziren.

Nola ikusi duzu gaur egunera arte izan duen bilakaera?

Gauza asko lortu dira. Hasi eta gutxira, ale askoko tiradak lortu ziren, euskarazko aldizkari bat 19.000 sukaldetara sartuz. Tokiko enpresen publizitatea egin zen euskaraz lehen aldiz, eta oso garrantzitsua izan zen sortu zuen boomerang efektua ostean etorri ziren tokiko komunikabideetan.

–jardun erdiko lanaldiekin–, eta hiru akzio eremu nagusi: euskararen aktibazioa, euskarazko sormena sustatzea eta gazte taldea.

Txatxilipurdiren kasuan, 50 lagun inguruko lantaldea du gaur egun. "Proiektu berririk ez zaigu falta", adierazi du Amaia Etxabe elkartearen zuzendariak. Esperientzia handiko elkarte izan arren, euren burua berrasmartzeko prozesu etengabe dabilta, eta horren adibide dira azken urtean sortu dituzten Auzo-sortu eta Mihi-bero proiektuak.



GOIENA

"Emakumeak etxetik irtetea zen helburua"

MARIJE SALTERAIN EGIN
EMAKUMEAK-EN ARITUA

AEDko tabernan egiten zuen lan, eta harreman oso estua zuen elkararekin. **Zergatik sortu zen Ekin Emakumeak?** Emakumeak etxetik irtetea zen asmoa, eta horretarako sortu zen Ekin-en aurrekari zen Emakume Taldea. Sukaldaritza edo joskintza tailerrak egiten genituen, Argiñano gonbidatzen genuen, bidaia egiten genituen Parisera, Londresera... oroitzapen oso onak ditut, bidaia zoragarriak izan ziren eta. **Beti euskararen baitan...** Hala da. Euskaraz ez zekiten herriko emakume batzuk etortzen ziren, eta harritu egiten ziren dena euskaraz zelako. "Eta gu, zer? Hau Udal lokal bat da?". Eta gu: "Lasai, pixkanaka ikasiko duzue". Ez genuen aterik ixten, baina argi genuen euskara ezinbestekoa zela.



GOIENA

"Lan arloan behar handia igarri genuen"

JOXE ETXEBERRIA
EUSKALAN-EN ARITUA

Lan munduan euskararen presentzia handitzeko helburua zuen Euskalaneak. **Zergatik sortzen da Euskalan?** AEDren aurretik izen bereko dinamika egon zen kooperatibetan, helburu antzerakoa zuena. 1996an hasi ginen, lan arloan euskara behar handia igartzen genuen eta. Ikasteko aukera zegoen, baita euskaraz aisialdia egiteko ere, baina lan munduan eten bat gertatzen zen. Langileei euskara ikasteko erraztasunak ematen genizkien: Mondragon Taldean, batez ere; baita JMAN eta Elman. **Nola ikusten duzu euskaren egoera?** Euskarak instituzio mailan asko egin du aurrera, baina horrek euskaldunak erlaxatzea ekarri du, nire ustez. Ezin gara lokartu; gehiago erabili behar dugu.



GOIENA

"Badaude euskara maite duten gazteak"

GARAZI AZKARATE
TTAKI-EN ARITUA

Gazte talderik gabe egon zen AED hainbat urtez, eta 2010ean Ttak! taldea sortu zuten bere kuadrillakoek. **Nola eratu zenuten Ttak!-en lehen taldea?** Txatxili-k dinamizatutako gazte txokoetan aritzen ginen orduan, eta eurek egin ziguten proposamena. **Zer-nolako ekintzak egiten zenituzten?** Kanpora begira baino gehiago, barrura begirakoak egin genituen: euskarari buruzko gogoetak, kale neurketak, afari meriendak, mural margotzeak... Ostean, gure lekukoa hartu zutenek kanpora begirako gauza gehiago egiten hasi ziren. **Euskara Arrasateko gazteengan nola dago?** Ttak!-ek jarraitu badu, euskara maite duten gazteak daudelako izan da. Baina zaila da ardurarik ez duten horiengana heltzea.

Euskararen oraingo erronkak AEDren hasierako helburua euskararen presentzia indartzea zen. Ordutik hona, lorpen asko egon dira, baina, Artolaren eta Etxaberen ustez, zereginak gertatzen dira oraindik. Artola: "Transmisioan, aisialdian eta hezkuntzan urratsak egin dira, baina lan munduan asko dago egiteko". Etxabe: "Kontrako hai-zeak hor daude, eta gurea beza-lako herri eta hizkuntza txiki batek beti izango du arriskua. Baina ilusiorako arrazoiak ere badaude; Euskaraldia, kasu".

Martxoaren 23ko egitaraua

- Seber Altube izango da ekintza guztien erdigune.
- **11:30** Mural margotzea, irratsaioa, ipuin kontaketa maratona...
 - **12:00** *Artean 3* erakusketara bisita gidatua, Sara Miguelezekin.
 - **13:30** Arrasateko konpartsa, eta Arrostitaitz eta Lore Gazteak taldeen dantzaldiak.
 - **14:00** Ekiñe Casadoren zuzeneko musika.
 - **14:30** Paella-jana, Sei Pistols & Trabuko Bat taldeak girotuta.
 - **16:00** Jolasak.
 - **17:00** *Buah txabal!* antzezlan, Jon Zubiagarekin.
 - **18:00** Konpost kontzertuan.

Oharra: Bazkarirako txartelak Ekinen, AEDn eta Jai-zalen.



GOIENA

Karapaixoa, bihar, protagonista

Bihar, zapatua, martxoko baserritarren azoka egingo dute Seber Altuben, eta karapaixoa egiten ikasteko aukera izango da. Raquel Perez de Arenazak gidatuko du ikastaroa, eta espero du, "urtero legez, jendea poz-pozik joatea etxera, euren eskuekin egindako karapaixoarekin". Ikastaroaz gain, baserritar eta artisauen dozena bat postu egongo dira.

OHARRAK

Pentsiodunen elkarretaratzea

Herriko Plazan batuko dira, astelehenean, 12:00etan.

'Hamaika amaren seme (alaba)'

Doke Antzerki Taldearen azken lana ikusi ez dutenek Youtuben izango dute horretarako aukera, Donostiako Antzoki Zaharrean egindako antzezpeneren grabaketa eskegi baitute sarean.

MSTren erronkak Bolsonarorekin

Martxoaren 21ean, Mundukidek antolatuta, Brasilgo egoera aztertuko dute Etxaluze egoitzan, 18:30ean. Bertan, Janaina Stronzakek, Josu Urrutiak eta Jokin Alberdik hitz egingo dute.



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Fauna

"Ai, baietz, ez daukazu beste gairik?"; "Zuek bakarrik egingo duzuela afaria?"; "Ba, ala, guk beste bat antolatuko dugu gizonontzako bakarrik"; "Nekagarria zara feminismoaren gaiarekin, e!"; "Guk gehiago hitz egiten badugu, ez dut uste genero kontuagatik denik, e..."; "Hori hitz egin ezazu asanblada feministakoekin, zerbaiterako daude!"; "Ziur horrela izan zela? Ez duzu uste agian pixka bat puzten ari zarela? Tipo ona da, ez dut horrelako ezer egiteko gai ikusten". Eta abar handi bat. *Matxismo* hitza entzun, eta gure buruak eskuinera bira inkontziente bat egiten du, urrunera begira jartzen gara. Parean dugun fauna –zoritzarrez, ez endemikoa, espero dezagun desagertzeko zorian dagoena– aurkeztu nahiko nizueke, bada, sozialismo eta independentzia miretsi baina *feminismoa* hitza pintada eta pegatinetatik ezabatzeko ausardia duen hori. Etxetik –eta militantziazatik– hasi behar dugu borroka, nahiz eta beti den errazagoa besteei prakak jaisten saiatzea norberak ez daramatzala konturatzea baino. (Martxoaren 8a ez da feminismoaz jardutea zilegi den egun bakarra)

Martxoaren 8a ozpindu du azken eraso matxistak

Domeka goizaldean, emakume batek eraso matxista bat jasan zuen Gipuzkoa etorbideetik zihoanean, eta, Ertzaintzaren arabera, azken 14 hilabeteetan herrian izandako 32. kasua da. Martitzenean elkarretaratzea egin zuten gertakaria salatzeke

Xabi Gorostidi ARRASATE

Erasoa domekan gertatu zen, 06:00 aldera, Gipuzkoa etorbidean, bide publikoan. Emakume batek abisua eman zion Ertzaintzari, bikotekideak hainbat kolpe eman zizkiola jakinarazteko. Emakumea Debagoieneko Ospitalean artatu zuten, aurpegiari kolpeak zituelako, eta gizonetako bat atxilotu zuen Ertzaintzak. Jarraian, Bergarara eraman zuten, epailearen esku uzteko. Ohi baino beranduago, eta euripean izan arren, hainbat herritarrek bat egin zuten martitzenean, Herriko Plazan, eraso matxista gaitzesteko. Arrasateko Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztietako ordezkariak izan ziren bertan, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Organoko zuzendari Miren Elgarresta ere. Hain zuzen, Udalak eta Aldundiak adierazpen instituzionalak plazaratu zituzten eraso gaitzesteko.



Martxoaren 8ko manifestazioa Maialako biribilgunera heltzen. IMANOL SORIANO

Bigarrenenez jarraian, erasoak izan da Martxoaren 8aren bueltan; iaz, Martxoaren 8ko gauean, eta aurten, 9an. "Ez dakigu akzio-erreakzio moduko bat den, edo kasualitatea, baina ez dugu etsiko emakume guztiak aske

bizi arte". Ertzaintzaren arabera, Arrasaten azken 14 hilabeteetan gertatutako 32. kasua izan da, betiere, ezaugarri hauekin: biktima emakumea, erasotzailea gizonetako eta harreman sentimentala tarteko.

M8 plataformaren balorazioa

M8 plataformako kideek balorazio bilera egin zuten martitzenean, Martxoaren 8ko greba feministak emandakoari buruz hausnartzeko. "Grebak jarraipen masiboa izan du, zenbait ezina da Arrasateko kaleetan arnasten zen indarra; horregatik ez dago zifrarik Martxoaren 8an gertatutakoa jasoko duenik. Aurten, arrakasta kuantitatiboaz gain, jauzi kualitatiboan eman dugu gure aldarrikapenak eta oinarri politiko feministak, antikapitalista eta antiarrazistak sendotu ditugulako. Zorionak modu batean edo bestean hori posible egin dugun guztioi. Greba feministak ez delako egun bat izan, greba antolatzeke asanbladak, tailerrak eta ekintzak antolatzen, boteretzeko gune bat sortu dugulako. Herriko emakume desberdinok eraiki dugu greba feministak, elkarrekin ahaldundu eta politizatu gara, eta hori da gure garaipen nagusia".

Udalak kendutako kartel batzuen inguruan honako hau esan dute: "Grebak feministaren aurreko egunean Arrasateko Udalak pankarta ugari kendu izana salatu nahi dugu, Arrasateko Udalak grebaren aurka izandako jarrera oldarkorra salatu nahi dugu. Oztipoak gaindituz aurrera goaz, geldiezinak garelako. Zorionak Arrasateko feministari, aliantzak ehunduz elkarlanean aritu garenoi eta greba feministaren oinarriak aurrera eramanean ditugunoi. Alternatiba feministak gure herrian eraikitzen jarraituko dugu.

Eraso matxistak Arrasaten

Ertzaintzaren datuak dira, azken 14 hilabeteetakoak. Ez da eraso matxista espresioa azaltzen, kode penalean ez delako hala jasotzen.

Genero indarkeria

- **Barne hartzen ditu:** gizonetako batek emakume bati egindako erasoak, harreman sentimental bat tarteko.
- **Zifrak:** kasuak 32; salaketak 30; atxilotetak 6.

Indarkeria domestikoa:

- **Erasoak:** anai-arreben artean, gurasoen seme alabei edo alderantziz, sexu berekoen artean, eta emakumeek gizonen.
- **Zifrak:** kasuak 12; salaketak 6; atxilotetak 0.

Arrasateko Bulkada Egunean Governors taldeak joko du

Jira eta bira mendi martxaren ostean, ekimen berri bat dute esku artean Bulkada Berrien Garaia Da Dinamikako lagunek. Arrasateko Bulkaden Eguna antolatu dute martxoaren 23rako, askotariko osagaiak izango dituen egitarauarekin. Eguna hasteko, murala margotuko dute Irati taberna alboko plazarxoan, 10:00etan. 14:30ean, herri bazkaria egingo dute gaztetxean –txartelak Iratin eta Jai-zalen daude salgai–; 16:30ean, Gazte Topagunearen aurkezpena egingo dute, eta, ostean, Ekiñe Casadok zuzeneko egingo du. 18:00etan, olinpiadak egingo dituzte, eta, eguna borobiltzeko, Governors taldeak gaztetxean joko du.

Arrasateko bigarren Ikasle Eguna hilaren 23an izango da

Ikasle Abertzaleak taldeak finkatu du data bigarren Ikasle Eguna egiteko. Martxoaren 23an –zapatua– egingo dute, eta egun osoko egitaraua prestatu dute horretarako: hitzaldia, mural margotzea, bazkaria, karro-potea... eta, eguna ondo borobiltzeko, kontzertuak egingo dituzte gaztetxean Against You, Perlata eta Libertad Condiciona taldeek. "Gure aldarrikapenez kalea betetzeko eta borrokan harro jarraituko dugula ozen esateko, ikasleen eskubideen alde, Euskal Eskola Nazionalaren alde, Euskal Herriko ikasleen eta langile klasearen interesen alde, eta gure herriaren askapen osoaren alde".

Ludoteka ibiltariaren bigarren geldialdia San Andresen

Goiena komunitatea

Ludoteka ibiltariak / ARRASATE

Euririk egin ez zuenez pasa den asteburuan, Arimazubi plazan elkartzeko ziren ekimenean parte hartzea animatu ziren haurrak eta hezitzaileak. Jolas ezberdin ugari egiteko aukera izan zuten bertan. Sormena lantzeko aukera ere izan zuten klarionaz plaza apainduaz eta elkarri aurpegiak margotzen aritu zirela. Giro atsegina egon zen, eta, datorren larunbat goizean euririk egiten ez badu bertan, Arimazubi plazan elkartuko dira berriz, ekintza gehiago egiteko asmoz. Euria egingo balu, Bedoñabe herri eskolako patioa izango litzateke elkargunea.

Harrera arrasatear berriei, eta etorkinei buruzko datuak

Asteazkenean, tradizioari jarraituz, ongi-etorria egin zieten arrasatear berriei osoko bilkura gelan. Aurten, 287 lagun etorri dira herrira bizitzera, eta, ongi-etorri ekitaldian, horietako 30 lagun gerturatu ziren; jatorri askotarikoak, gainera.

2019ko urtarrilaren 1ean, 22.101 biztanle zeuden erroldatuta, iaz baino 74 lagun gutxiago. Arrasateko etorkin kopuruari eta hauen jatorriari buruzko datuak ere eman ditu Udalak. Une honetan, 1.599 etorkin daude herrian, eta biztanleria osoaren %7 dira –Gipuzkoan %10 eta EAEn %9–. 2015etik 2019ra %15 hazi da etorkinen kopurua, due-la lau urte 1.388, eta orain, 1.599.

Agerraldia bihar, Iratin, Arteak Ireki ekimena babesteko

Eusko Jaurlaritzak tabernetako kontzertuak mugatzeko duen egitasmoak hautsak harrotu ditu. Musikarien eta tabernarien aurkako erreakzioak ugariak izan dira azken hilabeteetan, eta hilaren 23an protesta horiek herriz herri egingo dituzte. Larunbat honetan, martxoak 16, prentsaurrekoa egingo dute –Arrasateko Irati tabernan, 12:00etan– Arteak Ireki plataformak eta Gipuzkoako musikariek, aktoreek eta ostalariek Eusko Jaurlaritzak onartu nahi duen dekretu berriaren aurka. "Jaurlaritzaren dekretuaren helburua da EAEko taberne hila batean gehienek emanaldi bakarria egin ahal izatea", azaldu dute antolatzaileek.

Laugarren radarra, Arrasate pasealekuan

Herritarrek BAZen jarritako kexa kopuruari men eginez, kokaleku horretan abiadura neurgailua jartzea erabaki du Udalak. 30 kilometro ordutik gora doazenak zigortuko ditu, eta datorren astean edo hurrengoan erabilgarri egotea aurreikusten dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Garibai, Araba etorbidea, Uri-barri, eta orain, Arrasate pasealekua. Bertan jarri du Udalak, asteen, ibilgailuen abiadura neurtzeko radar berria, herrian dagoen laugarrena.

Arrazoiak

Herritarrek BAZen jarritako kexa kopuruak eragin du, hein handi batean, kokaleku horren alde egitea. Baina ez horrek bakarrik. Arrasate pasealeku inguruan bizi diren hainbat bizilagunek aurrez aurre helarazi diete eskaria udal ordezkariari, eta, horrez gain, urte hasieran bi harrapaketa gertatu dira kale horretan. Bidegorriaren alboan jarri dute, Arizmendi Ikastolak bertan duen egoitzaren ateetako baten parean.

30 kilometro orduko muga izango du eta hori gainditzen duten gidariekin 100 eta 600 euro arteko isuna jaso ahal izango dute.

Aste osoan zehar aritu dira neurgailua jartzeko lanak egiten eta egunean jarri zuten neurgailua hartuko duen kutxa. Neurgailuaren presentzia ohartarazten duten panel informatiboak jarriko dituzte laster, eta, udal ordezkarien arabera, aste-bete edo bi aste barru egongo da erabilgarri.

Helburua eta funtzionamendua

Aurreko hiru radarrekin egin bezala, ibilgailuen abiadura murrizteko eta inguruko segurtasuna handitzeko helburuarekin jarri dute Arrasate pasealekuko radarra.

Funtzionamendua ere berdina izango da. Zinemometro bakarra egongo da funtzionamenduan, baina gidariekin ez dute jakingo neurgailua martxan dagoen. Era horretan, abiadurak errespetatzea lortzen da, zinemometro bakarrekin. 2019ko udal aurrekontuan 72.600 euroko partida dago, zinemometroaren alokairurako.



Bidegorri alboan kokatu dute Arrasate pasealekuko radarra. JOKIN BEREZIARTUA

Arroza dastatuz Nikaraguari laguntzeko aukera, hilaren 23an

'Alez ale, mundu solidario baten alde' izeneko arroz dastaketa antolatu dute Arizmendik eta AMS elkarteak

X.G. ARRASATE

Mundu Solidarioa Helburu elkarteak dirua batzeko ekitaldia antolatu du, Arizmendi Ikastolarekin eta Arrasateko Udalararekin elkarlanean. Hala, martxoaren 23an, arroz dastaketa solidarioa egingo dute Ferixalekuan. Jaialdiko osagai nagusietako bat arroza izango da, eta, horretarako, Alacantetik etorriko den sukaldari baten laguntza izango dute. Alejandro Aviles du izena, eta AMS elkar-tearekin lanean aritutakoa da Nikaraguako Diriamba hirian.

Bazkaria 14:00etan hasiko da, eta Avilesek hainbat arroz mota prestatuko ditu. Helburu nagusia Nikaraguako proiektuetarako ditu batzea denez, 17 eurotan erosi ahaliko dira bazkarirako txartelak. Baina arroz dastaketa ez da jaialdiko osagai bakarria izango. Informazio eta erakusketak txokoak ere jarriko dituzte, eta bazkarira doazen artean zozketa bat egingo dute. Elkar-teari lagundu nahi diotenek bi bide dituzte horretarako: **AMS-MunduSolidarioa@gmail.com** eta 682 34 52 56 telefonoa.

Ospatu aitaren eguna

Arkume-haragiala aukera zapoetsua da eta landa-eremua bizirik eta aktibo mantentzen laguntzen du. Aukeratu errejeta bat eta utzi familia txundituta!

Zorionak

Esneko arkume erreja

- 4 lagunendako
- 2 ordu baino gehiago
- Eraza

Egin kode honen kaptura, deskargatu errejeta, eta askoz errazago erosi ahal izango dituzu osagaiak.

Arkume-errezeta gehiago hemen:
consumer.es/alimentacion/recetas

EROSKI NATUR
Arkume-tornedoa, 300g

5,95 €/ud
19,83€/kg

13,95 €/kg

EROSKI
ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE, Tel.: 943 71 10 30

*Erakusmahaiako produktua; eraketa lagunduko zentroetan bakarrik eskuragarri.

Harategian 03/14tik 03/20ra baliozkoa izango den eskaintza



Ezkerretik hasita, Nahia Irazola, Noah Berrocal eta izaskun Garcia. ARRASATE DRAGOI GIMNASIA TALDEA

Euskadiko Txapelketa Iturripen dago jokoan

Domeka eguerdian, Euskal Herriko aerobikeko talde guztiak batuko dira Arrasaten, Espainiako Txapelketarako sailkatzeko txartel bila. Dragoikoek antolatuko dute hitzordua, baina, horrekin batera, euren gimnastak podiumean ikusi gura dituzte

Xabier Urzelai ARRASATE

Euskal Herriko Aerobik Txapelketa jokatu dute domekan (12:30) Iturripen. Arrasateko Dragoi taldea izango da Gipuzkoako ordezkari bakarra, eta eurekin batera Gasteizko Biri-bildu klubekoak eta Bizkaiko Itsaslurrekoak egongo dira: "Nahiz eta hiru klub bakarrik egon, Arabatik, esaterako, talde mordoa etorriko dira, baina egia da aerobika modalitate ezezaguna dela gurean, eta Gipuzkoan Dragoikoak gara modalitate hori eskaintzen dugun bakarrak", dio Edurne Elkorok.

Hala, Arrasateko taldeko ordezkariak dagokienez, bigarren mailan bakarka lehiatuko da Liyanis Alonso, eta hirunako modalitatean izango dira Maider Agirreurreta, Sara Yan Azkarate eta Nora Marco. Hirugarren mailan, berriz, bakarka jardungo du Uxue Azkue eta bikoteka lehiatuko dira Nahia Irazola eta Izaskun Garcia. Laugarren mailan, azkenik, Noah Berrocal

izango da Arrasateko taldeko ordezkari bakarra.

Erritmikoarekin bateragarri

Urteak dira Arrasate Dragoi Gimnasia Taldekoak aerobikarekin ere lanean hasi zirela: "Elena Lanuza entrenatzailearen eskutik iritsi zen modalitate hori gurera. Elena gasteiztarra da, eta hark esku hartzen zuen aerobikeko txapelketetan. Bada, hari esker hasi ginen gu ere Arrasaten hori eskaintzen. Izan ere, ikusi genuen gimnasta batzuek bateragarria zela gimnasia erritmikoa eta aerobika egitea, beste batzuek lagungarri, eta, gainera, gimnasta beterranoek euren kirol bizitza luzatzeko aukera ematen

"KATALUNIAN ETA VALENTZIAN AEROBIKAK INDAR HANDIA DU; HEMEN EZ DA HORREN EZAGUNA"

zuela. Izan ere, gimnasia erritmikoa oso kirol jardueraz zorroztza da, eta ordu asko eskaini behar zaizkio. Hain zuzen, aerobika ez da horren zorroztza".

Espainiako txapelketa helburu

Euskal Herrian horrenbeste ez, baina aerobikak indar handia du Katalunian eta Valentzian, esaterako. Hala, maiatzean Sorian egingo dituzte Espainiako Txapelketak, eta aurtan ere hor egon gura dute arrasatearrek: "Egia da gure gimnastei sekulako ilusioa egiten diela hor egoteak. Pentsa, orain arte Espainiako Txapelketan ondoan izan dituzte munduko txapeldun izan diren Sara Moreno eta Vicente Lli, eta hori sari galanta zen euren dako. Azken urteotan, baina, ez gara txapelketarako sailkatzearekin konformatu, gure ordezkariak Espainiako Txapelketan ere podiumean egon dira eta". Lehenago, baina, Euskadikoan egin behar dira lanak ondo, etxeko zaleen aurrean.

Pas Pielagos-ek duen aldea txikitze aukera du MUK bihar

Valladolideko taldea hirugarren postuan dago sailkapenean eta MUK hiru puntu gutxiago ditu

X.U. ARRASATE

Bosgarren postuan dagoen MUK hirugarren dagoen Pas Pielagos- en bisita izango du zapatu arratsaldean Iturripen (18:30). Azken hiru partiduetan jarraian irabazi eta gero, Kantabriakoak bolada onean daude -azken jardunaldian 91-77 irabazi zioten Santurtziri-; horrenbestez, zuri-moreek kontrario gogorra izango dute aurrean.

Aurreneko bost taldeen arteko borrokan jarraitzeko MUK garaipena behar du, Valle de Egues taldeak zuri-moreen puntu kopuru berbera du eta.



Dani Lorenzo. I.SORIANO

Pazko Asteko campusa

Bestalde, Ointxe!-k gertu du Pazko Asteko campusa, eta, Eneko Mataren gidaritzapean, 2003 eta 2010. urteen artean jaiotakoek saskibaloia campusean esku hartzeko aukera izango dute.

Apirilaren 23tik -asteartea- apirilaren 27ra -zapatua- bitartean ibiliko dira gazteak saskibaloian (09:30-14:30). Izena emateko, idatzi eneko.mata@hotmail.com helbidera, edo idatzi *whatsapp*-a 629 80 47 82 telefono zenbakira.

Pilota elkartearen angulen zozketa, Caritasi laguntzeko

Arrasateko Pilota Elkartek Gabonei begira antolatzen duen angula zozketako sari banaketa egin zuten joan den astean: "Zozketa egin eta hilabete batera zenbaki sarritua azaldu ez denez, Caritasi jantoki sozialak arrain freskotan jasoko du Eguren arrandegiarekin adostuta zuten sari hauen balioa", adierazi dute klubeko ordezkariak.



Sari banaketaren unea. ARRASATE PILOTA

Ford Mugarri Arrasatek eten du odolustea

Zortzi partidutatik zazpi galdu eta gero, Ford Mugarri Arrasate erabateko gainbeheran zegoen. Azken bi asteotan, baina, arrasatearrek bidea zuzentzea lortu dute, eta, bi garaipen batuta, odolustea eten dute. Sailkapenean atzerago dagoen Gure Auzuneren kontra ahaleginduko dira hirugarren garaipena eskuratzen.

Mondratek Zirauntza hartuko du zapatuan Musakolan

Areto futboleko Euskadiko Txapelketan Mondrate bosgarren postuan dago, eta bihar, zapatua, arratsaldean Zirauntza taldearen bisita izango dute Musakolan (17:30). Territorial mailako taldeak, berriz, domeka eguerdian (12:45, Iturripen) jokatu dute, Antiguoren kontra, eta gazteek derbia izango dute Aloña Mendiren kontra (10:15, Musakola).



Arrasateko Udal Bibliotekako interesgunean dauden komikietako batzuk. AITOR AGIRIANO

'Emakume komikigileak' interesgune berria, abian

Martxoaren 8a pasa berri da, eta, horren harira, beste interesgune bat prestatu du Arrasateko Udal Bibliotekak: 'Emakume komikigileak'. Gazte zein helduentzako komikiz osatutako bildumaz gozatzeko aukera izango da martxoaren amaiera arte

Aitor Agiriano ARRASATE

Interesgune ezberdinak antolatu dituzte urtean zehar, liburutegian dagoen fondoa ezagutzera emateko asmoz. Gai bat hautatzen dute eta horren inguruan bertan dauden lanekin osatzen dituzte bildumak.

Oraingoan, Emakumeen Eguna beste modu batera ospatzeko asmotan, beste bat prestatu dute Arrasateko Udal Bibliotekak: "Gidoilari zein marrazkilari lanetan diharduten makina bat emakume dago eta euren lanak ezagutzera emateko asmoz osatu dugu gida berria. Kasu honetan, irudigile guztiak emakumezkoak izatearen irizpidea eramanez dugu aurrera. Komiki asko daude, eta irakurleek artean ere izaten dute hauek mugimendua", dio Asun Agiriano bibliotekariak.

100 komiki gozagai

Gazte zein helduentzako komikiak jasotzen ditu prestatu duten gidak, ehun komiki guztira.

Horietako batzuk euskaraz dira eta beste batzuk, gazteleraz.

Gazteentzako komikien artean, Maite Gurrutxagaren *Habiak* lana, Marisa Hesse-ren *Frida Kahlo* komikia eta Hope Larsun estatubatuarren *Una arruga en el tiempo* aurkituko ditu irakurleak.

Helduek, bestetik, berezia eta saritua izan den Antonia Santolaya-ren *Derrumbando estereotipos*, Ana Penyas-en *Estamos todas bien* eta Marzena Sowa poloniarren *Marzi* komikiez gozatzeko aukera dute, besteak beste.

Aleak kontsultatzeko aukera

Komikien gaineko informazioa, zein zenbaki aukeratu dituzten


EMAKUME MARRAZKIGILE ETA GIDOILARIEN 100 KOMIKI, GAZTE ZEIN HELDUENTZAKO

eta sortu duten gunearen berri izateko hiru aukera ditu herri-tarrak: alde batetik, Kulturatera bertara gerturatu eta txokoa bisitatu; bestetik, kaleratu duten gida kontsultatu; eta, azkenik, online ikusteko aukera ere bai. Bide bat zein bestea erabilita, bilduma osatzen duten lanak zeintzuk diren, nongoak diren eta, maileguan hartuz gero, komikiaren barruan irakurleak aurkituko duenaren nondik norakoaren berri izango du.

Gazteekin saio berezia

Datorren astean, martxoaren 22an, 11:30ean egingo dute saio berezia, Kulturaten. Mai Egurza komikilari irundarra gonbidatu dute gazteekin saioa egiteko, hain zuzen.

"Arrasate Institutuko batxilergoko ikasleekin egingo dugu saioa, nagusiki, nahiz eta, gaia-ekin interesik duen herritarrik bada, gonbidatua dagoen saiora", dio Agirianok.



MAI ARREGI

"Ilustrazioz koloreztatzen ditut istorioak"

MAI ARREGI
MARRAZKILARIA

Iruten jaiotako marrazkilari gaztea da Mai Arregi. 2011n kaleratu zuen lehen lana eta 2015ean lehen komikia.

Noiz hasi zinen ilustrazio munduan?

Betidanik marraztu izan dut, baina 2009an hasi nintzen beste marrazkilari batekin koloreztatzen, eta, 2011n, Elkar eta Bromea argitaletxeekin liburuentzako marrazkiak egiten hasi nintzen.

Zein teknika erabiltzen duzu marrazki horiek egiterakoan?

Hasieran, ordenagailuz egiten nuen lan, baina paperean marrazten hasi nintzen. Tintarekin, arkatzekin eta akuarelekin egiten dut lan orain.

2015ean kaleratu zenuen lehen komikia. Nolako izan da lan prozesua?

Zidrou, komikiaren gidoilari dena, ezagutu nuen. Nire marrazkiak gustatu zitzaizkion, eta, urtebete geroago, Norma argitaletxearekin kontratua sinatu genuen. Gidoia irakurri, pertsonaiak diseinatu eta marrazten hasi nintzen buru-belarri.

Arrasaten egingo duzun saioa nolako izango da?

Saioa etortzen direnekin solasaldi bat egingo dugu; nire lan prozesua azalduko dut eta marrazki azkar bat ere egingo dut bertan.

Bisita gidatua eta zine foruma, 'Artean 3' erakusketa baitan

Artean 3 erakusketa sortzaileen eskutik bisitatu eta zinema-forumaz gozatzeko aukera izango da datorren astean eta hurrengoan: martxoaren 21ean eta 28an. Bisita gidatu biak 17:30ean izango dira, Kulturateko klaustroan. Bestetik, sortzaileen talentuak, ideiak eta hausnarketak zinemaren esparrura luzatu eta Lou; dantzan jota ke, oinak lehertu nahian (19:30) eta Todas las mujeres que coñezo (18:30) ikusteko aukera 21ean eta 28an, hurrenez hurren.

Horrez gain, martxoaren 21ean, Oki Moki taldeak ere kontzertua eskainiko du.

Skasti taldearen emanaldia, Kooltur ostegunetan

Azken txanpan sartu dira Kooltur ostegunak. Zazpi urteren ondoren, "ilusio handiz" itzuliko da Skasti taldea Arrasateko gaztetxeko taula gainera. Ska musika doinuekin hasi zuen taldeak bere ibilbidea musika munduan, baina beste genero batzuk jorratzen ditu orain. Zuzeneko indartsua, serioa baina lotsagabea, freskoa, dantzagarria eta festazalea eskainiko du taldeak. Bost euroren truke, datorren martxoaren 21ean, eguna, 22:00etan izango da Zarauzko taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera.

Umeentzako ipuin kontaketa saioa, Amaia Arriaranekin

Haurrak ipuinen munduan murgildu eta kontakizunaren protagonista izango diren pertsonaiekin batera, irudimena landuz, abentura ezberdinez gozatzeko aukera izango dute. Amaia Arriaran izango da ipuin horiek kontatu eta hezur mamituko dituen.

Datorren martxoaren 21ean, eguna, egingo du kontalariak saioa Kulturaten. 4 urtetik gorako haurrei zuzendua egongo da saioa. Bestetik, martxoaren 26an, martitzena, beste saio bat ere egingo du, Santa Marinako auzo bibliotekan



Jon Ugarte, Ingurumen eta Mendi batzordeko burua, Sorginzubiko hariztian. JULEN IRIONDO

Egokitu egingo dute Sorginzubiko hariztia

Zuhaitz motzez osatutako baso zaharra da Azkoaga auzokoa, Salaberri familiak Udolari dohaintzan emandakoa. Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin, txukundu egingo dute, bertako flora eta faunaren inbentarioa egin, eta bisitetarako prestatu ere bai

Julen Iriondo ARAMAIO

Aurtengo aurrekontuetan 9.000 euro bideratu ditu Udal Gobernuak lanotara, eta horietatik 6.000 Eusko Jaurlaritzatik iritsiko dira. Udaleko Ingurumen eta Mendi batzordeko buru Jon Ugarteren arabera, aberastasun handiko basoa da Sorginzubikoa: "Aberatsa da, batetik, hariztia izateagatik, harizti askorik ez dugu-eta gure inguruan; bestetik, zuhaitz zaharrak direlako. Diraren bere garaian moztutako zuhaitzak, aprobeztamendurako; adarrak mozten ziren eta aprobeztatuko zituzten su-egurretarako, ikatzetarako... eta inguruan, ziur asko, ganadua ibiliko zen behean. Ez dira zuhaitz zahar-zaharrak, baina bai zahartutakoak: zuloak-eta dituztenak, formak ere oso bereziak, adarrak zabalak, barrutik hutsak eta hiltzen ari direnak".

Ugarte dio ezaugarriotako basoak ez direla oso ugariak Euskal Herrian, Kantauriar isurialdean, batez ere, nahiz eta

gero eta gehiago egon: "Duela 80 urtera arte ustiapen handia izan zen, baina gero kendu ziren zuhaitzok, pinua hasi zen, eta denborarekin ari gatzatzeko basogintzari uzten, eta gerora izango ditugu zuhaitz zaharrak, baina oraindik ez dugu askorik".

6.000 metro koadroko hariztia da, eta egingo dituzten lanak ondorengoak dira: "Ingurua hobetu egingo dugu, garbitu; hemen jendearen erabilerarako bide bat badago, eta bide hori mantendu. Bestetik, gune batzuk datozen bezala uztea izango litzateke, bertako landaretzarekin; eta soilgune batzuk ere egingo ditugu, landare berriak ere etor daitezten, ez daitezten, bakarrik, zuhaitz zaharrak izan, datozen

EUSKAL HERRIKO KANTAUARIAR ISURIALDEAN EZ DAUDE EZAUGARRI HAUETAKO BASO ASKO

zuhaitz gazteei ere lagunduz, ze besteak hil egingo dira denborarekin, eta berriak etor daitezten. Beraz, batzuk baso lanak izango dira; zuhaitz batzuk kimatu, adarrak-eta moztu, ikusteko nola berritzen diren eta nola mantentzen diren... Eta beste lan batzuk izango dira: inbentarioa egin, jakiteko zenbat zuhaitz dauden, eta ze egoeratan, eta ze fauna dagoen ere jakiteko, intsektu saproxilikoak, hegaztiak eta ugaztunak; eta panel batzuk jarri azaltzeko inguru honen aberastasuna eta jendeari erakutsi, bisitak eginez eskolako jendearekin eta herritarrekin".

Sorginzubiko hariztia, gainera, herriko familia batek, salaberriarrek, Udolari egindako dohaintza da: "Ikusten zuten leku aberatsa zela, eta euren asmoa zen Udalak hartzea, baina, betiere, bere aberastasun naturala babesteko. Baldintza hori jarri zuten, eta hori da gure asmoa; eta eskertzen dugu familiaren dohaintza".



Julen Olaizola, eta aita txapelarekin. ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Emaizta irauliz lortu du Zizurko lau eta erdiko txapela Olaizolak

10-4 eta 17-10 izan zen galtzen Arbaizaren aurka, baina 17-18 irabazi zuen, polemika eta guzti

J.I. ARAMAIO

Kadete mailako finaleko pisua Arbaizak hartu zuen hasieran bere gain: "Atzelaria denez, atzeratu egiten zizkidan pilota guztiak. Nik eustea lortu dut, eta ahal izan dudanean aurrean jokaldiak egiten saiatu naiz", zioen Olaizolak. Hala ere, 10-4 aurreratu zen Arbaiza. Orduan, erasokorrako jokatzeko hasi zen aramaioarra, airez gehiago sartzen, eta hamarna berdintzea lortu zuen.

Atsedenaldi baten ostean, Arbaizak abantaila handia hartu zuen berriz ere, 17-10: "Amore emateko zorian egon naiz", onartu zuen Olaizolak. Hala ere, partiduan sartuta jarraitu zuen, arriskatzea erabaki eta emaitzari buelta eman zion, azkenean.

Polemikatik ere izan zuen partidua amaierak; izan ere, bi tanto errepikatu behar izan zituzten. 17-14an bat: Arbaizak bi

pareta bat egin ostean, pilota asko zabaleratu zen. Aurreko epaileak Arbaizari eman zion tantoa eta atzekoak, berriz, boatea kanpoan egin zuela adierazi zuen. Azkenean, Olaizolari eman zioten tantoa, eta partiduan jarraitu ahal izan zuen, bestela han amaitzen baitzen.

17-17an izan zen bestea. Pilotak txapan jo zuela adierazi zuen epaile batek, eta pilotakada balekoa izan zela bestek; errepikatu egin zuten tantoa. Eta errepikapenean, piloteo luze baten ostean, arriskatu egin zuen Arbaizak, eta txapapera joan zitzaion pilota.

Lagun arteko txapelketa

Asteburuan hasi zen Aramaio Lagun Arteko Pilota txapelketa. Apirilaren 13a bitartean jokatuko da, egubakoitz eta zapatuetan. Gaur eta bihar da bigarren jardunaldia.

'Adimen emozionala familian' izenburudun ikastaroa egingo dute

San Martin eskolako, bertako guraso elkarteak eta Udalak antolatu dute ikastaroa, eta Sara Mera Sanabria psikologoa izango da emango duena.

Emozio motei buruz jardungo dute, eta halako galderei erantzuna ere topatuko diete: *Zer dira emozioak? Zergatik da hain garrantzitsua adimen emozionala familian? Nola laguntzen*

digute emozioek jokabidea ulertzen? Zer da adimen emozionala? Zer egin dezakegu adimen emozionala garatzeko? Nola eragiten du gure adimen emozionalak komunikatzeko moduan?

Ikastaroak bi saio izango ditu: hilaren 26an, 17:30ak eta 19:30ak artean, teorikoa; apirilaren 2an, ordutegi berarekin, praktikoa. Bi saioak izango dira eskolako liburutegian. Ikastarorako izena hilaren 22a baino lehen eman behar da: elkartasuna@aramaioeskola.eus.



Neska-mutikoak euren lanagatik aitortza jasotzen iazko edizioko sari banaketan. GOIENA

Martxan da Txirritolaren aurtengo ipuin lehiaketa

Apirilaren 12ra arte aurkez daitezke lanak. Luzera desberdinetakoak izango dira, adinaren arabera, eta sarietarako ere hori da irizpidea: bonuak izango dira gazteenentzat; dirua, produktuz osatutako otarra eta asteburu pasa, nagusienentzat

Julen Iriondo ARAMAIO

"Oro har, euskara eta, zehazki, euskarazko idazketa sustatzea" dira Txirritolaren helburuak ipuin lehiaketa antolatuta, euskara elkarteko Aizpea Ajuria-gerrak gogorarazten duenez.

Herriko neska-mutiko zein helduei egiten diete dei, hori dela-eta, bertan parte hartzeko. Umeei dagokienez, erabakigarria

izaten da eskolaren lankidetzaren lanen aurkeztea bermatze aldera; izan ere, lanketa berezia egiten dute ikasleekin: lehenengo zikloko neska-mutikoek taldean prestatzen dituzte ipuinak, gelan; eta hirugarren mailatik aurrerakoak animatu egiten dituzte aurkeztera, bakarka, ipuinak idazteko behar diren gaitasunak lantzearekin batera.

Sariei dagokienez, lehenengo ziklokoentzat sari bakarra egongo da taldeko, 50 euroko bonua; bigarren eta hirugarren zikloetan, berriz, 40 eta 20 euroko bonuak maila bakoitzeko lan onenentzat; 12 eta 18 urte artekoentzat, 75 eta 50 euroko sariak; eta 18tik gorakoentzat, bi lagunentzako asteburu eta herriko produktuz osatutako otarra.

Ea aurtun animatzen diren helduak

Zenbait aldaketa egin zituzten iaz, adin handienekoen artean parte-hartzea sustatzeko: 12 urtetik gorakoena zen kategorian bitan banatu zuten, batetik, 12-18 urte artekoena eta 18tik gorakoena sortuz; sari erakargarriak jarri zituzten, bestetik. Ez zen, ordea, helburua lortu, 12 urtetik gorako bi lagun baino ez ziren aurkeztu eta. Ea aurtun animatzen diren gehiago.



Maitane Gomez de Segura, iaz, saria jasotzen. GOIENA



Xabi Igoa kantuan eta Manex Agirre adi, Legution. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Paula Amilbururen txanda oraingoan, Arabako Txapelketan

Dulantziko finalerdian erabakiko da finaleko seikotea; 'aramaioarren finalerdia' Xabi Igoak irabazi zuen

J.I. ARAMAIO

Dulantziko kultura etxean jokatuko da bihar, zapatua, Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren eta azken finalerdia, eta han geratuko da erabakita ze sei bertsolarik kantatuko duten hilaren 30eko Gasteizko finalean.

Iñaki Viñaspre, Oihane Perea, Aroa Arrizubieta, Rikardo Gonzalez de Durana, Beñat Garaio eta Paula Amilburu ariko dira Dulantzin. Final-laurdenetako eta aurreko asteburuko finalerdiko puntuazioak erreferentzia hartuta, pentsa liteke finalerako txartel bat –agian, bi– egon dai-

tekeela kolokan, eta hiruzpalau hautagai leudeke haren jabe egiteko: Peru Abarrategi –lehen finalerditik– eta Amilburu, Gonzalez de Durana eta Arrizubieta –aurrekoekin geratu zen final-laurdenetako puntuazioetan–.

Bost aramaioarrekin Legution jokaturako finalerdia Xabi Igoak irabazi zuen, Manex Agirreren aurretik. Abarrategi izan zen hirugarren –lehen hirurak, zazpi punturen barruan: 339, 334 eta 332–, eta bigarren finalerdiko puntuekin ikusiko da saio bakoitzeko zenbat bertsolari iritsiko diren finalera.



NIRE USTEZ

MARIA IZAGA

Tenporak

Aurtengo tenporek ziotenaren arabera, hamar negu beroren ondoren hamar negu hotz etorri behar dira. Hala zioten tenporek, bai, baina suposatzen dut tenporak benetan baliagarriak zirenean munduak udaberri gutxiago biziak zituela. Beharbada, horregatik oparitu digu aurtengo urteak udaberri azkar hau, ezta? (Hau ironia da). Egia da udaberria garai polita dela (ez baldin bazara asmatikoa edo alergikoa). Mundua *reset* handi baten ostean berriro pizten dela dirudielako; koloreak berriro agertzen dira, egunak luzeagoak dira, hormonak esnatzen dira... udaberriak hainbat forma hartzen ditu. Badaude udaberria bihotzean behar dutenak, kolore pixka bat jarri ahal izateko norberaren barrenari. Badago udaberri bat baino gehiago behar dituen bere buruan, ingurua aldatzen dela ikusi ahal izateko eta aldaketaren parte izan nahi izateko. Badaude udaberrian dauden eta beraien udaberria behar duten mugimenduak, hazteko, zabaltzeko, sustatzeko, hedatzeko. Udaberri mota asko daude eta beste asko behar dira, bai, baina orain daukagun hau? Ez, udaberri hau ez genuen behar. Tenporek ezin zuten asmatu.

Gurasoendako saioak umeei lagun egiteko

Udal liburutegiak haur kantuen eta jolasen gaineko saioak antolatu ditu, apiril eta maiatzetarako, 3 urte bitarteko umeak dituzten gurasoendako; osasun etxearekin batera abian jarritako ekimen handiago baten barruan daude saio horiek

Mirari Altube ARETXABALETA

Ekimen berria jarri du abian Aretxabaleko liburutegiak gurasoei begira, lehen urteetan ere umeen bidelagun izan daitezten. Hala, 3 urte arteko seme-alabak dituztenendako saio bi antolatu dituzte kantuen eta jolasen gainean trebatzeko.

Adin tarte bakoitzari egokituak

"Hizkuntza bera jolas bat da umeendako, eta kantuak eta jolasak haiengana gerturatzeko aitzakia dira gurasoendako", adierazi du Nerea Altunak, liburutegiko laguntzaileak. Horrez gain, gaineratu du umeen garapen emozional eta kognitiboan era positiboan eragiteko aukera ematen dutela ipuinek, kantuek zein jolasek.

Dio kultura guztiek dituztela sehaska kantak, hatz jolasak eta altoan aritzeko kantuak, besteak beste: "Eta, beharbada, gaur egun lehen baino gutxiago erabiltzen dira". Uste du euskal kulturak, eta euskarak berak, duen ondarea altxor handia dela horretarako: "Euskarak ondare ederra du eta gurasoak horretan trebatzea ona da, geroago beraien umeei transmisio hori egiteko. Ekimenaren helburua ez da abesti mordo bat ikastea, baizik eta adin tarte bakoitzari dagokien



Ama alabarekin ipuin bati begira Txiki Txokoan. MIRARI ALTUBE

batzuk gure egitea eta horiekin gozatzea".

Lehenengo saioa apirilaren 3an da eta bigarreana, maiatzaren 15ean; Kontu Kabi taldeko Vanessa Gonzalezek eta Maider Altzelaik gidatuko dituzte. Bi talde izango dira: bata, 18 hilabete arteko umeak dituztenena (17:00-17:40); eta bestea, 18 eta 36 urte artekoak dituzten gurasoen (17:45-18:30). Izena emateko liburutegira jo behar da martxoaren 27a baino lehen: liburutegia@aretxabaleta.eus edo 943 08 10 01; plazak mugatuak dira.

"Ezusteko asko dituzte gertatuta Kontu Kabikoek, eta hausnarketarako topagune bat ere izan gura dute saioek".

Osasun etxearekin elkarlanean

Galtzagorri haur eta gazte literatura elkarteak *Bularretik mintzora* egitasmo barruan badu halako ekimen bat. Aretxabaleko liburutegiak adin tarte horretan hutsunea zuela jakinik, osasun etxera liburu batzuk eramaten hasi ziren kideak: "Harrera ona egiten zietela jakin genuen, eta bertako koordina-

"Umeen motxila ibiltariaren ekimena osasuntsu dago"

NEREA ALTUNA LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA

Umeen irakurzaletasuna sustatzeko hainbat lan egiten dute liburutegian.

Urteak daramatzazue Bularretik mintzora egitasmoarekin; zelan doa?

Abian jarri zenean, trebakuntza jaso zuten irakasleek; gero, norberaren esku geratzen da horren lanketa. Motxila ibiltariaren ekimena osasuntsu dago; astero dator gela bakoitzeko ume bat liburu baten bila, etxera eta eskolara eramateko.

Ekimen berri hori euskaraz ez dakienarendako lagungarria izan daiteke?

Oso aproposa, euskaldun berriek eta ez dakitenek kantu batzuk ikasi ahal izango dituzte eta gero, umeei landu.

Umeendako Txiki Txokoak harrera ona du?

Garaiak egoten dira, neguan gehiago eta udan gutxiago,



M.A.

baina gustura gaude. Umeekin une goxo bat pasatzera etortzen dira gurasoak.

Beste saio batzuk eskaintzeko ahalegina ere egiten du liburutegiak...

Bai; hasi ginen gurasoendako saioak eskaintzen *Bularretik mintzora*-ren bueltan, baina azken urteotan ezin izan dugu. Ipuin kontalariak ere ekartzen ditugu hilabetean behin, 3 urtetik gorakoendako; hurrengo hilaren 23an da eta Aitor Vinagret etorriko da.

tzailearekin berba eginda aurrera egitea erabaki genuen", dio Altunak. Ekimen horretan Eskoriatzako Udala ere badago.

Erabat abian jarritakoan, 3 urte arteko gurasoek umeari ohiko osasun azterketa egiterakoan *Bularretik mintzora* egitasmoa CD liburuak jasoko dituzte erizainen eskuetatik: "Errezeta liburua emango diete, eta gero, jarraipena egin ere bai. Horiekin lortu gura da familietan ohitura onak sortzea; izan ere, kantuen eta jolasen bitartez estimuluak jasotzen dituzte

umeei euren garapen emozional zein intelektualerako", dio, eta gaineratu du: "Gure helburua da irakurzaletasuna bultzatzea, baina hori ez da hasten 5 edo 6 urterekin, aurretik lan handia dago, eta hor, gurasoek izugarriko garrantzia dute".

IZENA EMATEKO EPEA MARTXOAREN 27AN BUKATUKO DA ETA PLAZAK MUGATUAK IZANGO DIRA

Ideologien gaineko hausnarketa berbetarako gai Jon Sarasuak

Herrigintzaren, euskalgintzaren eta ideologien gainean jardun zuen irakasleak hainbat herritarren aurrean

M.A. ARETXABALETA

Pentsamenduak eta ideologiak: betaurreko bifokalekin etorkizunera begira hitzaldia eskaini du asteen Jon Sarasuak, eta galdera asko bota zituen eta hainbat kontradikzio agerian utzi; el-

kartutakoek ezin gusturago jarraitu zituzten haren esanak.

Pentsamendu kritikoaren "trampa" eta kapitalismoan oinarritutako ereduak utzi zituen agerian. Ametsak berritzen asmatu beharra ere aipatu zuen, "amets doi-

tuagoak". Euskaldunen kontradikzioak aipatu zituen: "Munduko klase ertain pribilegiatuenetakoa gara eta eroso gaude". Norabidea izan behar dela "gutxiagorekin bizitzen ikastea" zioen.

Debagoiena ere izan zuen berbetarako gai. "Gurea dugu munduan autoeratuenetakoa. Industria gehiena dago langileen asanbladen esku, baita banka zati bat ere..." Izugarriko potentziala izanik aprobetxatzen jakin ez dela aipatu zuen. Eta euskalgintzan erreferente izan



Uriarren zinegotzia eta Sarasua. M.A.

daitekeela bailara adierazi zien elkartutakoei: "Euskara elkarteak aktibatu behar dira, euskararen ametsa berriro piztu".

Apirilean, Mikel Reparaz

Kultura Sailak antolatu zuen saioa eta hitzaldi sorta baten hasiera izan zen. Jose Migel Uribarren Kultura zinegotziak iragarri zuen hurrengo apirilaren 30ean izango dela; Mikel Reparaz kazetaria etorriko da Ameriketako Estatu Batuen eta Trump-en gainean berba egitera.

Arrasto sakona utzi duen Martxoaren 8a

Joan den egubakoitzean bizitakoarekin "pozik" agertu dira M8 Aretxabaletako Plataformako kideak eta eskerrak eman gura izan dizkiete lagun egindakoei eta ekitaldietan parte hartu zuten herritar guztiei

Mirari Altube ARETXABALETA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren biharamuna luzea izan da. Izan ere, joan den egubakotza benetan berezia izan zen emakume askorendako, baita Aretxabaletan ere. "Jendetsuak, anitzak, hunkigarriak... Horiek eta gehiago izan ziren orduan bizitako ekitaldiak zein ekitaldi ofizialetatik kanpo sortutako uneak", adierazi dute M8 Plataformako kideek balorazio ofiziala egin aurretik –horretarako bilera atzo iluntzean egin zuten–, eta gaineratu dute: "Horregatik eskerrak eman gura dizkiegu modu batera edo bestera lagun egin zigutenei, eta baita ekitaldiotan parte hartu zuten herritar horiei guztiei, berba barik gaude eta".

Urteetan ikusi ez den jendetza

Martxoaren 8ko eguerdiko elkarretaratzeak jendetza batu zuen Herriko Plazan, baina hasiera besterik ez zen izan. Kantuan eta dantzan eginda indarrak jaso orduan, eta herriko kaleetan gora eta beheara jardun zuen talde batek feminismoa aldarri hartuta. Eguerdi partean zaharren egoitzako langileekin bat egin zuten, eta asko hunkitu ere egin ziren bizitako konplizitate unearekin. Egunak bukaera ezin borobilagoa izan zuen iluntzeko manifestazioarekin. Urteetan ezagutzen ez den jendetza kopurua elkartu zen herriko kaleetan *Heteropatriarkatu kapitalistari planto!* leloarekin.

Omenaldi hunkigarriak

Domekan, ostera, emakumeen aldarriak kirolarekin egin zuen bat III. Aresko martxan. Aresko saskibaloi eskolak antolatutako ibilaldiak jende asko elkartu zuen; eta oraingoan ere, une hunkigarriak bizi izan ziren Idoia Elexpuruk Aretxabaletan eta Lydia Garciak Eskoriatzan jasotako omenaldietan.



Emakumeen Egunarekin bat egin zuten zaharren egoitzako langileekin. MIRARI ALTUBE



Idoia Elexpuru, domekan plazako oholtzan, dantzarien aurriskuari begira. M.A.

"Plazera da UDArekin lan egitea"

IDOIA ELEXPURU ARESKO MARTXAN OMENDUA

Domekan omendu zutenak esker berbak ditu guztiendako. **Herritarrek zer esan dizute?** Zorion mezu mordoa nabil jasotzen eta lotsatuta ere banago...

Kirola ez da zure ohiko arloa. Ez, baina oso gustuko dut. Etxekoak oso kirolariak dira, eta ni beti haien inguruan; geldi egoten ez dakidanez, lagundu egiten dut eta hor ibiltzen naiz, Otala Zelain, San Silvestre proban edo beste edozein



M.A.

ekitalditan. Eta eskerrak eman gura dizkiot UDARI, plazera delako haien inguruan jardutea; zuzendaritzaren inguruan beti jende asko dabil borondatez lanean eta ni bat gehiago naiz. **Emakumeak oraindik atzetik doaz kirolean?** Bai, baina hor gaude eta gero eta gehiago dira bizikletan zein korrika dabilzanak. Eta atzetik badatoz markak hautsiko dituzten gazteak pertikajauzian dela edo futbolearen dela.



Ospitalea laneko une bat antzeztan Arkupeko oholtzan. M.A.

Antzerki eskolen bitartez sormena landu dute ikasleek

Antzezlanak eskaintzen dihardute egunotan, Arkupen, Arizmendi Ikastolako eta Kurtzebarri Eskolako ikasleek

Aitor Zuazabeitia ARETXABALETA

Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetakako neska-mutikoek hogeitau orduko antzerki eskolak jaso dituzte Apropox Sormen Iturri proiektuaren eskutik. Eta hor ikasitakoa erakutsi dute, astean, Arizmendi Ikastolako Almen gunekoek; *Ospitalea*, *Baserría* eta *Itsasaldia* lanak eskaini dizkiete senideei.

Hurrengo astean, Kurtzebarri Eskolakoen txanda izango da. Martxoaren 20an, *Zinema* antzeztuko dute eta 21ean, *Aire-portua*; 17:00etan dira biak.

Ikasleek osatutako lanak

Antzezlan horiek orain dela gutxi martxan jarri den hogeitau orduko antzerki eskola baten emaitza dira. Apropox Sormen Iturri proiektua dago horren atzean, Iurgi Etxebarriaren eskutik. Hark azaldu duenez, urrian hasi ziren antzerki eskolekin,

eta antzeztuko duten lanekin batera beste hainbat kontu landu dituzte ikasleek; taldeen eraketa, ahoskera, lotsak baztertzea...

Etxebarriak lanen hariak idazten ditu, eta baita pertsonaiak asmatu ere, baina ikasleek "ekarpen handia" egiten dute lan bakoitzean. "Erdi eginda dagoen istorio bat jasotzen dute, eta beraiek osatu gero, amaierako lana lortu arte; beraz, oso euren den zerbait sortzen dute bukaeran", dio, eta gaineratu du bat-bateko egoerak ere lantzen dituztela, eta, hori aprobetxatuta, batzuetan inprobisatu ere egiten dutela ikasleek.

Lan gehienek hogeitau pertsonaia dauzkate: "Hori bai, ez dago pertsonaia nagusirik, guztien parte-hartzea bultzatzen da. Eta entseguetan zerbait gehitu nahi badio bere pertsonaiari norbait, ez dago inongo arazorik".

'Haurren sexualitatea modu osasuntsuan' hitzaldia Kukumikun

Goiena komunitatea

Kukumiku elkarte / ARETXABALETA

Larraitx Arandok haurren sexualitatearen eta sexu-heziketaren inguruko hitzaldia eskainiko du hilaren 21ean Kukumikun (17:30).

Haurrek helduen bitartez jasotzen dute, hein handi batean, munduaren berri. Arlo guztietan gertatzen da, baita sexualitatearen alorrean ere. Guk sexualitatearen

inguruan transmititzen dizkiegun ideiek, pentsamenduek eta sentimenduek baldintza dezakete euren bizipena. Baina zer toki dauka sexualitateak haurren garapen-prozesuan? Helduaren esku-hartzerik gabe edo esku-hartze hori ahalik eta gutxienera murriztuko bagenu, nola biziko luke haurrak sexualitatea?

Hitzaldiaren helburua izango da gurasoak haurren sexualitate hurbiltzea eta sexu-heziketarako gako izan daitezkeen galderak mahai gainean jartzea.

Pozik baina txanda eske Basotxoko zuzendaritza

Batzar orokorra egingo du erretiratuen elkarteak gaur, egubakoitza, egoitzan bertan (17:00). Orain arteko kontuen berri emango dute, eta aurtengo kudeaketa plana jakinarazi; horren harira, zuzendaritza batzordea berri guztiak

Mirari Altube ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak 954 bazkideek –391 gizon eta 563 emakume– batzar orokorrerako gonbidapena dute gaurko, martxoak 15 –lehen deialdia 16:30ean eta bigarrena 17:00etan–. Iazko memoria eta kontuak onartuko dituzte lehenengo, eta ondoren, 2019ko kudeaketa plana aurkeztu. Zuzendaritza uzteko unea iritsi zaie hainbat kideri, bi urte bete ostean, baina adierazi dute boluntariorik ez dela aurkeztu horretarako. Hala, beste urtebetez jarraitzeko gertu agertu dira guztiak, txanda hartuko dietenak agertu bitartean.



Basotxoko hainbat bazkide egoitzako tabernan. MIRARI ALTUBE

Ikastaro asko

Zuzendaritzako kide Isabel Olivenza pozik dago azken bi urteotako jardunarekin: "Ekintza mordo egin ditugu, era askotakoak, eta gehienek erantzun ona izan dute". Horien artean daude KZgunearekin elkarlanean antolatzen dituzten ikastaroak

–telefonoari buruzkoak, esaterako–, argindarraren fakturaren gainean argibideak emateko zerbitzua –Oier Etxebarriak gidatuta– eta Atxabalta Mugiren eskutik jasotzen dituzten yoga eta gimnasia jarduerak. "Gim-

nasian oraindik badugu lekua, baina yoga taldea beteta dago. Gainera, ez dago kiroldegiko bazkide izan beharrik", dio.

Basotxoko kantu taldeak eta dantza taldeak ere gogotsu jarraitzen dute lanean, baita irteerak egiten hara eta hona. "Tute eta mus txapelketak egiten ditugu. Ea aurtengo emakumeak ere animatzen diren horretara, arratsalde guztietan egoten dira eta elkartearen karta-jokoan".

Iaz domeka arratsaldeetan egindako dantzaldiak izandako arrakasta jakinik, aurtengo ere izango direla aurreratu du Olivenzak: "Udalarekin adostu dugu eta ekainetik irailera bitartean hainbat dantzaldi izango ditugu". Datozen hilabeteetan bi irteera garrantzitsu egingo direla jakinarazi du: Huelvara joango dira Pazko Astearen eta Errumaniara ekainean.

Proiektu berria ere badute datorren ikasturtera begirakoen artean: euskaraz ikastea. "Euskaltegiak proposatu digu. Hainbat berba eta esamolde ikasteko aukera izango dugu, ilobekin berba egiteko, adibidez. Urrian hasiko gara, baina uztailan eman beharko da izena".



GU HAZIAK GARA

Murala margotzen hasteko gertu

Kurtzebarri eskolaren aurrealdea margotzeko asmoa dute Gu Haziak Gara elkarteak kideek datorren astean, eta dagoeneko irudikatu dute horman zirriborroa. Martxoaren 20tik 22ra bitartean jardungo dute bertan lanean, goizetan eskolako umeei eta arratsaldeetan (17:00-19:00), berriz, margotzeko gogoz gerturatzen diren herritar guztiekin.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak gaur kiroldegian

Gaur, egubakoitza, *Musua* ikuskizuna eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek Ibarra kiroldegian (18:30). Sarrerak aurretik erosteko aukera dago, Arkupen, 5 eurotan; gaur arratsaldean, leihatilan ere izango dituzte, 6 eurotan. Eguzkiak lez, musuek ere mundua biraka jartzen dutela erakutsiko dute pailazoek.

'Erraiak' filma ikusteko bi aukera daude martxoan

Irrintzia ardatz duen *Erraiak* filma Arkupera itzuliko da; bi egunen artean emango dute, hilaren 22an eta 29an, 19:00etan (3 euro). Orain arteko emanaldiak arrakasta handia izan dute eta sarrerak agortu egin ziren azken saioetan; horregatik, herritarrek horren gogoz gera ez daitezen, berriro ekarriko dute.

Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendu zuen Artemanek egindako ikus-entzunezkoa eta Euskal Herri osoko testigantzekin osatu zuten lana. Bilketa-lana, baina, ez zuen Euskal Herrian bakarrik egin, mundu mailako oihuak ere aztertu gura izan zituen-eta Aretxabaletan bizi den Martinez de Lizarduyk.

Bola-joko txapelketa antolatu du Uratz Alde elkarteak

Uratz Alde elkarteak antolatuta, San Jose eguneko bola-jaurtiketa irekia egingo dute datorren martitzenean, martxoaren 19an, bolatokian, 12:00etan –11:00az geroztik egongo da zabalik–. Izen-ematea 5 euro ordaindu beharko da, eta sariak honako hauek izango dira: 100 euro; 50 euro; eta 25 euro. Baita botila bana cava eta ardo ere.

Mandala ikastaroa egingo dute, Loramendik antolatuta

Harrietan mandalak marrazten ikasteko bi saio eskainiko ditu Idoia Elexpuru margolariak, Loramendi elkarteak gonbidatuta. Martxoaren 28an, egunean, haurrentako saioa egingo du (17:00-19:00); eta hilaren 29an, egubakoitzean, helduendakoa (16:00-19:00). Harriak kolore biziak zelan margotu irakatsiko die gerturatzen direnei.

Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago; hona hemen bideak: euskara@loramendielkartea.eus; 942 77 09 70; 685 75 67 29. Loramendiko bazkideek 3 euro ordainduko dute eta gainerakoek, 5 euro. Materiala Elexpuruk eta Loramendik jarriko dute; hortaz, ez dago ezer eraman beharrik.



Basotxoko bazkideak Gure Ametsa jatetxean bazkaltzen. ISABEL OLIVENZA

Zaindariaren eguna ospatzen

Aingeru Guardakoaren eguna ospatu zuten martxoaren 1ean Basotxoko kideek, eta 155 bazkide elkartu ziren mahaiaren bueltan, Gure Ametsa jatetxean: "Bapo bazkaldu eta kontu kontari jardun genuen ezin gusturago", adierazi dute.



Eskoriatzako Olazar Erretiratu Elkartearen urteko batzar orokorra, kultura etxean. IMANOL BELOKI

Euskara maila indartu gura dute erretiratuek

Eskoriatzako Olazar Erretiratu Elkarteak urteko batzar orokorra izan dute aste honetan. Joan den urteko kontuen balantzea egin, egindako bidaien eta ekintzen gainean jardun, eta aurtengo aurreikuspenen berri eman zuten

Imanol Beloki ESKORIATZA

Olazar Erretiratu Elkarteak ki-deek urteko batzar orokorra izan zuten eguaztenean. Kultura etxean batu ziren, eta honako puntu hauek aztertu zituzten: aurreko akta irakurri eta onartzea, 2018ko kudeaketaren deskargua, 2019rako kudeaketa plana, altak eta bajak, 2019rako kuota, idazkariaren aldaketa onartzea eta, amaitzeko, galdera eta eskaerak.

Iaz egindako hitzaldien eta bidaien gainean egin zuten berba, eta, 2019ra begirako programazioan zentratuta, hilero izango dituzten hitzaldi, bidaiak eta ekintzak zeintzuk izango diren adierazi zuten. Jasone Orbegoza Olazar Erretiratu Elkarteak diruzainak egiten dituztenak azaldu zituen: "Urtean hiru edo lau hitzaldi egiten ditugu. Saiatzen gara pil-pilean dauden gaien gainekoak ekartzeko, eta, ekintzei dagokienez, herrian antolatzen direnetan parte hartzen dugu. Horrez gain, ikastaroak ere ba-

ditugu: memoria tailerra eta taixia, besteak beste".

Guztira, 635 kide dira elkarteak, eta, ekintzetan parte-hartzea handia bada ere, kopuruak gora egitea dela beraien asmoa adierazi zuten. Datu ekonomikoei erreparatu, bestalde, egoera onean daudela adierazi zuten, eta ekintza berrien aldeko apustua egin nahi dutela gaineratu.

Gogokoena, bidaiak

Urtean bi bidaiak luze, beste bat motza, asteburukoa eta eguneko hiru irteera egiten dituztela adierazi zuen Orbegoza; gaineratu zuen hurrengo prest daukatela: "Apirilaren 24an, Murtziara joango gara, Ruta del Quijotera".

OLAZAR ERRETIRATU ELKARTEAREN HURRENGO EKINTZA PENTSIOEN GAIKEKO HITZALDIA IZANGO DA

Pentsioak hizpide

Antolatu duten hurrengo ekintza ere aipatu zuten: Mikel de la Fuentek eskainiko duen pentsioen gaineko hitzaldia. Euskal Herriko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle ohiaren saioa datorren egunean, hilaren 21ean, izango da, kultura etxean, 18:00etan.

Euskara indartzeko gogoz

Programazioko berritasunak ere izan zituzten hizpide. Izan ere, euskara ikasteko kurtsoa prestatuko dutela adierazi zuten.

Bi mailatan banatuta, hastapeneko klaseak eta maila altuagokoak jasoko dituzte nahi dutenek. 180 orduko ikastaroa izango da, euskaltegiarekin elkarlanean aurrera eraman nahi dutena. Urteko helburu nagusi moduan ezarri dute ekintza hau, elkarteak kideen artean euskara hobetzeko beharra ikusten dutelako.



GOIENA

Herri sarrerako zubia, morez

Eskoriatzan ere jende asko batu zen Martxoaren 8ko aldarrikapenekin bat egiteko. Ekintza nagusiak Fernando Eskoriatza plazan izan ziren; hala ere, bereizgarria izan zen herriko sarreran dagoen zubia more kolorez bete zutela. Bertan irudi ikusgarria ikusi izan ahal izan zen pasa den egubakoitzean, zubia alderik alde bete baitzuten.



IMANOL SORIANO

Lidia Garcia omendu dute

Hirugarren urtez egindako Aresko martxan, Lidia Garcia yoga irakaslea omendu zuten pasa den domekan, yoga munduan egindako lan eskergagatik. Aretxabaletatik Eskoriatzarainoko bidea egin ostean, Fernando Eskoriatza plazan egin zioten harrera. Argazkian ageri den moduan, yoga posizio ezberdinez osatutako koreografia batekin.

Mendi Tourreko lau ikus-entzunezko, gaur, Zaldibarren

Eskoriatza Kirol Elkarteak eta Bilbao Mendi Film Festivalek antolatuta, eta Eskoriatzako Udalak babestuta, martitzenean, Wallmapu eta The Weight Water ikus-entzunezkoak proiektatu zituzten Zaldibar antzokian. Gaur, berriz, 22:00etan, *The Search for the Woo*, *RJ Ripper*, *Liv along the Way* eta *Age of Ondra* lanak ikusteko aukera izango da.

OHARRAK

Hauteskunde-zerrenda

Apirilaren 28an egingo diren hauteskundeekin lotuta, hautesle-errolako zerrendak udal bulegoetan izango dira ikusgai hilaren 18ra arte.

Euskaraldia

Hizkuntza ohitura aldaketak nola irauten duen aztertzeko, inkesta txiki bat bideratu du Euskaraldia Eskoriatzak Facebook sare sozialetatik.



Astehenean hasi zituzten Intxaurtxueta auzoaren eta Olazarko tunelaren arteko bidegorriko lanak. IMANOL BELOKI

Intxaurtxeta-Olazar bidegorri zatia, itxita

Hiru hilabetez izango da itxita bidegorri zatia lanek iraun bitartean. Mendiko maldaren ezpona egonkortu eta sare eta buloiz josiko dute. Jardunek 500.000 euroko aurrekontua dute eta maiatzerako amaitzea aurreikusten dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gipuzkoako Foru Aldundiak astehenean jarri zituen martxan Eskoriatzako bidegorriko lanak, eta hiru hilabete iraungo dutela aurreikusten dute. Horrenbestez, Eskoriatzako herriko sarreran, Intxaurtxueta zubitik hasi eta Olazarko tunelera inoko bidegorri zatia itxita egongo da epe horretan, ezpona guztia egonkortzeko. Jardunek 500.000 euroko aurrekontua dute. Hala ere, Intxaurtxueta pasabidetik Torrebaserainoko zatia normaltasunez mantenduko da zabalik.

GI-627 errepideko 28,745 eta 28,885 kilometroen eta bidegorriko 44,720 eta 44,580 kilometroen artean egiten ari dira esku hartzea. Lur-erazketako ezpona egonkortzea dute helburu lanek, azken urteetan izan diren luiziei behin betiko irtenbidea emateko. Zehazki, zati horretan dagoen malda buloi eta sare metalikoz josiko dute, eta, honen bitartez, harri eta luizi txikiak ekidingo

dira. Obra osagarri gisa, egonkortze lanek eragindako zati osoan zorua berrituko dute. Obrek hiru hilabete iraungo dute, eta, aurreikuspenen arabera, maiatz amaierarako edo ekain hasierarako amaituta beharko lukete. Obrek iraun bitartean, bidegorria itxita egongo da eta oinezkoek GI-627 errepidearen gaineko zubia erabili beharko dute.

Aurrez egindakoari segida

Iaz, hainbat lur-jausi izan ziren Intxaurtxueta zubiaren eta Olazarko tunelaren artean, neguko eta udaberriko euriteen ondorioz. Azkenengoa 2018ko martxoaren 27an izan zen. Bertan, emergentziazko lanak egin

BIDEGORRI ZATI HORRETAKO MALDA BULOI ETA SARE METALIKOZ JOSIKO DUTE

zituzten eta ekainean ireki zuten bidegorria. Orduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak horma egonkortzeko lanak egin zituen herri sarrerako zubi alboan, mendiarri eusteko hormigoi euskarri bat jarrita, eta, segurtasun baldintza nahikoak beteta, bidegorria zabalik eta erabilgarri egon da orain arte. Edozelan ere, pasa den urrian, Aintzane Oiarbide Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren diputatuak adierazi zuen lan horiek jarraitzea izango zutela, eta astelehen honetan hasi dituzte egonkortze obrak.

Udalaren jakinarazpena

Eskoriatzako Udalak, berriz, honako eskaera hau egin die herritarrei: "Bidegorriko erabiltzaileei bertan dauden seinaleak eta itxiturak errespetatu ditzatela eskatzen diegu, eta bertatik ez daitezela pasa. Izan ere, arriskutsua izan daiteke eta segurtasuna, gainera, ez dago bermatuta".



Igor Meltxor idazle eta ikerlariaren hitzaldia hastear Zaldibar antzokian. I.B

Igor Meltxor: "Kirol apustuen arazo nagusia normalizazioa da"

Instituzioek ez dutela arazotzat hartzen esan du, datuak emanda eta apustuen eta heroinaren konparaketa eginda

I.B ESKORIATZA

Zer dago apustu etheen atzean? izeneko hitzaldia izan zen eguaztenean, Zaldibar antzokian, Igor Meltxor idazle eta ikerlariaren eskutik. Bertan, apustu etxeek pertsonengan eta gizarte osoarengan sortzen dituzten arazoak izan zituen hizpide.

Apustu etheen eta heroinaren arteko konparaketa eginda hasi zuen hitzaldia Meltxorrek. "Apustu etheen eta heroinaren arteko *modus operandi*-a antzekoa da. Langabezia handia dagoen eremutan gertatzen da arazoa; gainera, gazteenak harrapatzea da

helburua. Drogarekin, lehenengo dosira gonbidatu egiten zintuzten, eta jokoan ere berdin gertatzen da gaur egun. *Bonus liberados* delakoak *oparitzen* dizkizute jokoan hasteko...".

Hartu beharreko neurriak

Gizarte osoari begira, kontzientziazio kanpaina egin behar dela, iragarkiak kentzea ezinbestekoa dela eta instituzioek neurriak hartu behar dituztela adierazi zuen Igor Meltxorrek. "Gizarteak normalizat du apustua, baina normalizazio hori da benetako arazo nagusia".

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Zaborrontzien poltsa apurtu, eta erabili

Liburutegi aurrean estalita daude sailkako zaborrontziak, eta norbaitek poltsak apurtu ditu zaborrontziak erabiltzen jarraitzeko. Hala, berriak jartzeko eskaera egin gura izan du herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Santa Columba hizpide izan dute auzotarrek

2017ko otsailean, Gaztañadui auzoko basilizan egokitzapen lanak egin zituzten, Baselizako ezkilaren oinarrizko zutabea sendotuta, baina basilizaren egoera txarrera doala sumatuz, erabaki bat hartzeko eskaera egin nahi diete auzotarrek instituzioei

Imanol Beloki ESKORIATZA

Pasa den zapatuan, Mazmela auzoko Basauria elkarteko kideek batzarra izan zuten, eta bertan tratatu behar zituzten gaiez gain, Santa Columba basiliza ere izan zuten hizpide, auzotar batek gaia aterata. Baselizak duen egoera kaskarra azpimarratu zuen, eta, horren bueltan, instituzioek, udalak, diputazioak eta apezpikutzak erabaki bat hartu beharko dutela gaineratu zuen. Batetik, mezarik ez delako egiten bertan, erortzeko zorian dagoelako, eta, errepidera begira, arriskua ikusten duelako. Horrekin batera, auzoko parroikia Mazmela dagoela adierazi zuen, eta basilizaren beharrik ez dutela esan. Horrekin bat egin zuten bertan batu zirenek, eta instituzioei erabaki bat hartzeko eskaera egingo dietela adierazi zuten.

Erabaki baten beharrean

Gaztañadui baserri ondoan dago Santa Columba basiliza, Eskoriatzatik Leintz Gatzagara doan errepide alboan. Dokumentuen arabera, 1556an existitzen zen erreferentzia dago, eta, errepidera jausteko arriskua zegoela-eta, segurtasuna bermatzeko konponketa-lan batzuk egin zituzten 2017ko otsail inguruan.



Gaztañadui auzoko Santa Columba basiliza. IMANOL BELOKI

Baselizako ezkilaren oinarrizko zutabea sendotu egin zuten, arriskua gutxitzeko egur batzuk jarrita. Horrekin batera, teiltua barrura sartuta zegoen, eta, orduan ez bazegoen erabilgarri, orain ere ez. Izan ere, behin-behineko egokitzapen lan horiek egin zituztenetik, bere horretan jarraitzen du basilizak, eta teiltua geroz eta gehiago jausten ari dela adierazi du basiliza parean bizi den Luis Mari Iriartek: "Zerbait egin ezear, arriskua ikusten dugu auzotarrok. Egoera oso txarrean baitago basiliza,

eta teilak errepidera ere jausi daitezke istripu bat gertaraziz. Bi urte pasa dira behin betiko egokitzapen lanak egin zituztenetik, baina eraikinaren egoera txarrera doa, eta, behin betiko segurtasuna bermatzeko, Apezpikutzak eta Diputazioak zerbait erabaki beharko dute: basiliza bota, konpondu... Auzotarrok argi daukagu, eta bat egiten dugu egoera honi irtenbidea eman behar zaiola. Izan ere, estetikoki itsusi egiteaz batera, segurtasun aldetik ere zerbait egin beharra dagoela uste dugu".

San Pedro jaiak antolatzeko bilera irekia egingo dute

Eskoriatzako jaiak heltzeko denbora dezente falta da oraindik, baina, programa lehenbailehen prest izateko, herri bilerak egingo dituzte. Hori horrela, lehenengo bilera martxoaren 27an izango da, eguaztena, 18:00etan, kultura etxeko lehen solairuan.

San Pedro jaietako egitaraua prestatzen laguntzeko interesa duen edonork izango du parte

hartzeko aukera. Hala, Eskoriatzako Udalak herritarrek animatu nahi ditu bileretan parte hartzera eta denen artean denen gustuko jaiak prestatzera.

Proposamenak aurreratzen joateko, eta baita ekarpenak egin nahi baina bilerara joan ezin dutenei aukera ematearren ere, galdetegi bat prestatu dute, eskoriatzarren iritzia, iradokizunak eta ekarpenak ezagutzeko aurtengo jaiei buruz. Galdetegia *Eskoriatza.eus* webgunean bete daiteke.

Korrika Batzordearen hurrengo bilera, hilaren 20an

Datorren eguaztenean batuko da Eskoriatzako Korrika Batzordea, 18:00etan, kultura etxean. Eskoriatzara Korrika heltzeko hilabete falta da, eta azken prestatketa lanak egingo dituzte. Interesdunek joateko aukera izango dute, eta, hala, batzen direnen artean egitarau osoa itxiko dute. Dena den, itxi ezear, apirilaren 3an batuko dira berriz.

LEINTZ GATZAGA 23



Gaztainuzketako mendi-etxe nagusia. JON ZUAZABETIA

Gaztainuzketako mendi-etxeak lehiaketara atera dituzte

Interesatuak apirilaren 2ra arte izango dute proposamena Leintz Gatzagako Udalarari aurkezteko

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak Gaztainuzketako apartamentu turistikoaren ustiapenaren esleipenerako lizitazio deialdia egin berri du. Hainbat dira betebeharrak, eta lizitazio deialdiko xehetasunak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta *Leintzgatzaga.eus* webgunean kontsulta daitezke. Informazio gehiago nahi duenak, berriz, udaletxean eskatu dezake.

Hain zuzen ere, euren proiektua aurkezteko azken eguna apirilaren 2a izango dute interesatuak.

Asmoa, partida bat bideratzeko

Egunotan, mendi-etxeak alokairuan hartu nahi dituzten interesdunei erakusten ari direla adierazi du Juanito Bengoa Gatzagako alkateak, eta gaineratu nahi izan du diru-kopuru bat inbertitu nahi dutela bertan: "Lehiaketaren ostean, Gaztainuzketa mendi-etxeak hartzen dituenarekin zehaztuko dugu dirua zertan inbertitu: mendi-etxeak margotzen, instalazio elektrikoan... Hala, 30.000 eta 50.000 euroko inbertsioa egin nahiko genuke, baina hori aurrerago zehaztuko dugu".



GARAION SORGINGUNEA

Jolas-gune berri eta berezia

Leintz Gatzagako haur, gazte eta gurasoen artean, zume-bizia landatuz jolasgune berria sortu dute. Udaletxe alboan egin dute, eta barraskilo forma eman diote; gorputzak hiru sarrera ditu eta buruak, bi ate. Hala, 1.000 bat zume landatu dituzte, eta, udaberria iristean, barraskiloari hostoak aterako zaizkio.



Mairua, kateatuta, Antzuolako konpainiaren menpe. ALARDEAREN KULTURA ELKARTEA

Alardea indartzeko hausnarketa saioa

Garaiko gizarte egoerara egokitze ahalmena izan du Antzuolako Mairuaren Alardeak. 1880an ospatu zen lehenengoz eta sorreratik aldaketak izan ditu: lehena 1980an eta bigarrena, orain dela ia hamar urte; hausnartzeko batuko dira herritarrek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak eta Alardearen Kultura Elkarateak antolatuta, Mairuaren Alarde berri-tuaren gaineko hausnarketa egingo dute martxoaren 23an, zapatua, 09:30ean hasi eta 12:30era bitartean, Olarango aretoan.

Emakumezkoei zein gizonezkoei eta adin guztietako herritarrei parte hartzeko dei egin diete. "Berdin da Alardean parte hartu izan duten edo ez. Antzuolar ororendako deia egiten dugu", argitu dute elkarteak kideek.

Egokitzen joan den Alardea

Alardea 1880tik egiten da Antzuolan. Alardearen elkarteak dio ez dela adierazpen kultural estatikoa izan: "Unean uneko garai eta gizarteko egoera berrietara egokitzen jakin izan du eta sorreratik aldaketak izan ditu; sakonenak, 1980an eta 2009an egindakoak. Bertan, arreta berezia jarri zaio genero tramenduari, kulturartekoaren

adierazpenari, ekintza eta pertsonaien duintasunari eta herritartasunaren senari".

Adostasuna eta transmisioa

Antzuolak ahalegin horrekin Alardea gaurkotzea baino askoz gehiago lortu duela gaineratu dute: "Herri dinamismoaz eta elkarlanaz baliatuz, helburu garrantzitsu batean ados jartzen badakigula erakutsi dugu, partekatzen ditugun balioekin gure herri-izaera sendotzeko gai gara, gure ondarea gorde eta indarberrituta transmititzeko gauza gara. Euskal erakunde desberdinetan txalotu diren aldaketak izan dira eta eremu akademikoan ere 'praktika on' bezala goraiatu dira".

**1880A EZKERO
OSPAZEN DA
ALARDEA ANTZUOLAN
ETA DUELA 10 URTE
BERRITU ZUTEN**

Herritarren Alardea

Herritarren identitatearen ikur garrantzitsua izaten jarraitzeko bere antolaketan eta garapenean segi behar dela lanean diote: "Ezin da herritar batzuen edo udal ordezkarien esku soilik utzi Alardea, antzuolar guztion konpromisoa eskatzen du; guztion da eta".

Hausnarketa saioa

Duela 10 urte berritua izan zela eta, une egokia dela hamarkada honetan egindakoaren hausnarketa-balorazio saioa egitea diote. Helburu bakarra duela azpimarratu dute: Alardearen ospakizuna gehiago indartzea.

Askotariko gaiak landuko dituzte; besteak beste, Alardearen antolaketa eta funtzionamendua, parte hartzaileak, harremanak, koreografia eta Alardeaz dauden iritziak: genero aldekoak, kulturartekotasunekoak, ikuskizunaren aldeko iritziak, herritarrengan sortzen duen atxikimendua edo indiferentzia...

Aho batez onartu dute udal langileen soldata %2,25 igotzea

Martxoko osoko bilkuran, 2019ko Zerga Ordenantzen akats baten zuzenketa eta soldata igoera onartu dituzte

Maidar Arregi ANTZUOLA

2019ko Zerga Ordenantzen baitan, landa eta hiri lurrei dagozkien tasen aplikazioak akatsa zuela ohartu zen Udal Gobernuak: "2018an zehar hainbat likidazio ateratzerakoan, kopuru handiegia irten zirela ohartu ginen. 2.000 eurotik gorako tasak ziren, eta 2019ko ordenantzak lantzerakoan gehienez 600 euroko muga jartzea proposatu zen. Hala ere, likidazioak jaso duten zordunei 600 euroko tasa ere handiegia iruditu zaie bestelako herriekin alderatuta; eta tasaren ordenan-

tza errebisatzeko eskatu diote Udalari. Batzordean gaia aztertu eta urteetan ekarritako akats bat dela ondorioztatu da. Aurretik zehar tasa 0,012 euro/m²-an finkatzea onartu dugu".

Bestetik, udal langileen soldatei %2,25eko igoera aplikatzea aho batez onartu dute. "Eudelek proposatzen duena aplikatuko da: hau da, 2,25eko igoera zuzenena urtarilaren 1etik gaur arte. Eta uztailean KPIaren arabera igoera %0,25ekoa izango luke", argitu du Udal Gobernuak osoko bilkuran.



MAIDAR ARREGI

Desfibriladorea, berriro bueltan

Eztalan lapurtu zuten desfibriladorea Murtzian azaldu da. Fabrikatzaileak Murtziatik dei bat jaso zuen desfibriladorea matxuratua zegoela eta konpontzeko eskatzen. Berehala ohartu ziren Antzuolako erreferentzia zuela, eta Ertzaintzari abisua eman zioten. Hala, berriro Udalaren esku dago eta udaletxeko buzoien bulegoan jarri dute herritarren eskura.

Juan Karlos Izagirrek solasaldia egingo du herritarrekin

Antzuolako EH Bilduk antolatuta, Juan Karlos Izagirrek Gipuzkoan aurreikusten diren zereginen inguruan berba egingo du. Beñardo Kortabarria alkatea izango du alboan eta Antzuolako zereginen jardungo du. Martxoaren 21ean izango da solasaldia, 18:30ean, Olaranen. Galdera eta ekarpenen tarteak izango dute herritarrek.

'Antzuolako baserriak eta errotak' liburua, herritarren eskura

Antzuolako historia jasotzen duten liburu sorten azken bi irabazleak Ibai Zabalo eta Ion Lizarazu dira. *Irinmodo* blogeko lehiaketa amaitu da, baina irakurleendako oparitxo bat dakar blogak: agortuta dagoen eta herritarrek maiz eskatu duten *Antzuolako baserriak eta errotak* liburua herritarren eskura zintzilikatuta dago bertan.

Galeano ahizpak pozik egindako txapelketarekin

Antzuolarrak Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketan aritu dira. Martxoaren 1ean jokatu zituzten final-laurdenetako partidua eta ez ziren finalerdietarako sailkatu. Otsaileko Gipuzkoako eskolarteko txapelketan, aldiz, txapeldunak izan ziren

Maialen Regueiro ANTZUOLA

Leirek 11 urte ditu eta duela hiru urte hasi zen pilotan jokatzen. Nagorek, berriz, 14 urte ditu eta duela bi urte hasi zen pilotan entrenatzen. Izan ere, Galeano ahizpek txikitatik ikusi dute aita pilotan jokatzen, eta kirol honekiko duten zaletasuna hortik dator kirola adierazi dute. Aurtun, bigarren, Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketan aritu dira antzuolarrak. Are gehiago, Joxe Mari Galeano da Leireren eta Nagoren aita, eta txapelketan alaben entrenatzaile gisa aritu da. Aitak, gainera, aitortu du etxean beti animatu izan dituztela alabak horrelako txapelketetan parte hartzera. Alabek egindako bi txapelketen inguruan honako hau adierazi du: "Alabek final-laurdenetako partidua jokatzeko izugarriko pausoa izan da eta oso pozik gaude lortutako emaitzekin. Ezin izan ziren hurrengo faserako sailkatu, baina azken partiduetan emaitza onak lortu zituzten".

Final-laurdenetako partidua

Urtarrilaren 27an hasi zen txapelketa sailkapen faseko partiduekin. Hala, antzuolarrak lehen kanporaketan beste bi bikoteren aurka jokatu zuten eta biak irabazi zituzten: 4-18 eta 18-2. Bi partidua horietan lortutako garaipenei esker, otsailaren 10ean beste kanporaketa bat jokatu zuten, Sodupeko pilotalekuan. Bertan, beste bi partidua jokatu zituzten, eta, lehena irabazita -05-18- eta bigarrena galduta -15-18-, final-laurdenetarako sailkatu ziren. Txapelketa honetako finalerdiko partidua martxoaren 1ean jokatu ziren, Urduñako pilotalekuan. Galeano ahizpek jokatutako bi norgehiagokak galdu zituzten, baina emaitza onak lortu zituzten: lehen partiduan, Uharteko bikote baten aurka jokatu zuten



Nagore eta Leire Galeano ahizpak final-laurdenetako partiduan. EMAKUME MASTER CUP

GALEANO AHIZPEK GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETA IRABAZI ZUTEN OTSAILEAN

eta markagailua 18-14 zegoela amaitu zen partidua. Egun bereko beste kanporaketa Azpeitiko eta Zestoako bikote baten aurka jokatu zuten eta antzuolarrak 16-18 galdu zuten.

Adin aniztasuna

Laboral Kutxa Emakumeen Master Cup txapelketan Euskal Herriko herri desberdinetako emakumeek hartzen dute parte, baina baita adin desberdinetakoek ere. Izan ere, aurtengo edizioan, 11 urterekin, Leire izan da txapelketako partaiderik gazteena. Baina, kasu honetan, Reyes Azkoitia bergararrak ere hartu du parte, 66 urte ditu eta hura izan da partaiderik helduena. Horren harira, eta adin desberdintasuna aipatuta, Galeano ahizpek honako hau adierazi dute: "Parte hartzaileen artean adin desberdintasuna

egon da, baina guk berdin-berdin jokatu ditugu partidua eta konaturatu gara, txapelketako gaitetxoak izanik ere, besteen mailan egon gara".

Pilota Antzuolan

Antzuolan hogeita bost urtetan ez da egon pilotan aritzen zen emakumerik, eta duela hiru urte Leire hasi zen kirol hau praktikatzeko. Era horretan, herriko emakume bakarra izan zen. Antzuolako txapelketa irabazi zuen, baina beti gizonezkoekin jokatu izan du. Gerora, emakume gehiago gehitu dira Antzuolan pilotan jokatzen. Gaur egun, esate baterako, bost emakume ari dira kirol hau praktikatzeko herrian, baina, emakumezkoen txapelketetan izan ezik, gainontzekoetan gizonezkoen aurka jokatzen dute.

Eskolarteko txapelketa

Otsail hasieran Galeano ahizpek Zaldibian jokatu zen Eskolarteko Gipuzkoako pilota txapelketan hartu zuten parte eta euren kategorian -infantil mailan- txapeldunak izan ziren, hain zuzen ere, jokatutako bi partidua irabazita.

Heriotza aurretiko borondateak hizpide Egoitz Zabalorekin

'Heriotza, hitz egin dezagun. Aurre-borondateak' gaia jorratuko dute martxoaren 20an, 18:00etan, Olaranen

M.R. ANTZUOLA

Antzuolako parrokiak antolatuta, Aita Menni ospitaleko pastoral, boluntariotza eta elkartasun proiektuen arduradun Egoitz Zabalorekin eskutik hitzaldia izango da hilaren 20an, 18:00etan hasita, Olaranen. Hitzaldiaren oinarria heriotza aurretiko borondateak izeneko dokumentua izango da, baina eutanasia, dolua eta mota horretako gaiak ere izango dira hizpide solasaldian.



Egoitz Zabala, Aita Mennin. EGOITZ ZABALA

Aurretiazko borondateak

Herriarrei aurretiazko borondateen dokumentua aurkeztea da asmo nagusia, baina, hori ardatza izanik, beste gai batzuk jorratuko dira; besteak beste, heriotza, dolua eta sufrimendua. Izan ere, dokumentu horretan, nork bere azken egunak nola igaro nahi dituen adierazi dezake; hau da, nolako heriotza nahi duen, norekin egon nahi duen heriotzaren momentuan...

Ezkutuko gaiak

Gai sakon horiei buruz egiten den lanketaz galdetuta, Zabalak honako hau adierazi du: "Gaur egungo gizartean arrakasta duen

pertsona da eredu garria eta horri buruzko albisteak entzuten ditugu; aldiz, heriotza, sufrimendua eta halako gaiak ezkutatu egiten dira". Egoera horrekin lotuta, Zabalak azpimarratu du umeei txikitatik gai horiei buruz normaltasunez hitz egin behar ko litzaiekeela.

Eutanasia

Azkenaldian bolo-bolo dabilen gaia da eutanasia, eta hilaren 20ko solasaldian horri buruzko hausnarketarako tarte ere egongo da.



M8 ANTZUOLA

Partaidetza handia M8-an

M8-ko greba adin askotariko emakumeen artean eratu zen eta egubakoitzean partaidetza handia egon zen antolatutako ekintza guztietan. Iaz baino ekintza gehiago egin ziren eta guztien artean giro polita sortu zen; aldi berean, hunkigarria ere izan zen. Hurrengo urteari begira, emakume guztiei batzarretan parte hartzeko gonbidapena egin diete.

264.000 euroko gerakina 2018ko udal likidazioan

2019ko aurrekontuan egokitzapenak egiteko bideratuko da zati bat; tartean, langile publikoen soldatak igotzeko, eskola atarian aterpe bat egiteko, Asentzioko aparkalekua egokitzeko eta herriko aparkalekuak eta zebra-bideak margotzeko

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Iraitx Lazkano alkateak eman-dako datuen arabera, gastuen betetze maila %91,55 izan da eta sarrerena %91,83. 2018ko ekitaldia positiboa izan dela adierazi du: "Gerakin nahiko polita gelditu zaigula uste dut. Iaz ere halako kopuruetan ibili zen. Esango nuke punturik positiboa gastu arauarekin lotutakoa dela. Urte osoa joan gara esaten ez genuela beteko, eta buru gainean izan dugu ezpata hori. Azkenean, ez dugu bete, baina 2017ko gerakina erabili izana izan da arrazoa. Hala, ez dugu plan ekonomiko finantzariorik egin beharrik izango".

2018ko udal kontuen itxierak eragina izango du 2019ko aurrekontuan. Alde batetik, aurtengo aurrekontura txertatuko dira arrazoi ezberdinengatik iaz gauzatu barik gelditu ziren hainbat partida. Hain zuzen ere, base-rritarren batzordeko inbertsioetarako 7.658 euro; brigadako lan tresnetarako 1.585,62 euro; antzokia egokitzeko 1.560,73 euro; eta hilerriko argiterian led sistema ipintzeko 1.483,78 euro. Denera, 12.288,13 euro.

Udalbatzak, bestalde, 2018ko gerakineko zati bat zertara bideratu erabaki zuen eguaztenean egindako osoko bilkuran. 41.800,96 euroko kreditu gehigarriak dira. Bestelako premiei aurre egiteko hustu ziren bi partida berreskuratu egiten dira, hala nola Domingo Iturbeko lur saila erosteko 5.550 euroko partida, eta baserritarren batzordeko inbertsioetarako 14.950 eurokoa. Bestetik, langile publikoen soldatak aurtun %2,25 igotzea aurreikusten du legeak eta Udalak %1 igotzea aurreikusi zuen aurrekontuan. Gerakinetik egingo da %1,25eko igoera eta horretara bideratuko dira 5.300,96 euro. Bestelakoetan, eskolako sarreran aterpe bat egiteko 8.000 euroko partida



Elgetako udalbatza, eguaztenean egindako osoko bilkuran. L.Z.L.

2018KO GERAKINEKO BESTE 222.560,34 EURO DAUDE ZERTARA BIDERATU ERABAKITZEKO

sortu da, aparkalekuak eta zebra-bideak margotzeko 4.000 eurokoa, eta Asentzioko aparkalekuan egokitze lanak egiteko 4.000 eurokoa. Gerakineko beste 222.560,34 euro daude erabiltzeko. "Joango dira proiektu berriak sortzen eta joango gara gerakinetik tiratzen beharra ikusten bada", esan zuen alkateak. "Ez dugu dena kolpera gastatuko".

Oposizioaren abstentzioarekin EH Bilduko bost ordezkarien aldeko botoekin egin zuen aurrera kredituak gehitzeko proposamenak. Gu Geu Elgetako bi ordezkariak abstenitu egin ziren. Mikel Larreak zalantzan ipini zuen erabakia udalbatzaren eskumenekoa denik ere. "Txertaketak egitea gauza tekniko bat da iaztik geratutako kredituak direlako eta logikoa ikusten dut

egitea, baina uste dut alkatearen eskumenekoa dela kreditu gehigarriak egitea", esan zuen. Gaieraren inguruan gehitu zuen: "Pentsatzen dut ez dela prebisiorekin jokatzeko. Gastu hauek ziur-errenik jakinekoak ziren aurrekontua egiterakoan", langile publikoen soldata igoerari erreferentzia eginez, besteak beste. "Jakinean egonda badaudela gastu batzuk egitekoak direnak gerorako gelditzen dira, izkina batean. Arriskua ikusten dut horrela jokatzearekin".

Alkateak ukatu egin zuen soldaten igoeraren inguruko estimaziorik zegoenik, eta esan zuen gastu batzuk egitekoak badira ere aurrekontua prestatzerakoan beharrezkoa dela sarrerak eta gastuak koadratzea. "Eta horrelakoetan lehentasunak finkatu behar izaten dira. Eskolan aterpea egitea aurretik aztertutako gaia da, eta egingo da dirua dagoelako. Ez balego, ba, ezingo litzateke egin".

Eduardo Zubiaurre hautetsiaren uko egitea izan zen osoko bilkurako azken gaia. Oposizioak adierazi zuen agintaldia amaitzeko bi hilabeteren faltan ez dutela ordezkorik izendatuko.

Gaskoiniako herri dantzak ikasteko aukera hilaren 31n

Biarnoko Joan Frances Tisner musikariarekin ikastaroa eta dantzaldia egingo dituzte, Espaloia kafe antzokian

Goiena komunitatea

Herrixa Dantzan / ELGETA

Zer dantzatzen dute Ipar Euskal Herriaz haragoko lurraldeetan eta Pirinioetan, oro har? Hilaren 31n, 17:00etan, Biarnoko eta Gaskoiniako herri dantzen ikastarotxo izango dugu, eta 19:00etan dantzaldia edo *bal gascon*. Joan Frances Tisner musikariarekin eta Domenja Lekuonarekin izango da saio berezia.

Zaletasun handia dago Gaskoinian herri dantzarako. Euskal Herriko *dantza-plaza* edo *mutxikoak* herri dantzen parekoak dira.

Ikastaroan parte hartzeko beharrezkoa da aldeaz aurretik izena ematea eta jauziak dantzatzeko jakitea. Interesatuak hona idatzi behar dute: ikasi@dantzan.com / herrixadantzan@gmail.com / 675 94 46 09.



Joan Frances Tisner. HERRIXA DANTZAN

Saio berezia Iruñeko Ortazar elkartearen eta Dantza Ikasiren laguntzari esker antolatu dugu, Elgetako Udalaren ohiko laguntzarekin. Sarrera libre da. Txapela pasako dugu antolaketa gastuetarako, eta jatekoak eta edatekoak egongo dira.

Ozkarbi elkarteko beheko solairua itxita, lanengatik

Urtarrileko batzarrean onartu zuten Ozkarbi elkarteko bazkideek beheko solairuan lanak egitea. Barra ingurua egokitze-ko lanak dira egiteko daudenak. Hori horrela, egunotan itxita dago espazio hori eta ezin da erabili. Astelehenean hasi zituzten lanak eta zuzendaritzak aurreikusten du hilaren 21era arte egongo dela gunea itxita.

"Sukaldea eta goiko jantokia erabilgarri daude. Lanak bukatu eta garbiketa eginda, espero dugu martxoaren 22rako gunea hori erabilgarri egotea", adierazi du zuzendaritzak.

Jakinarazi dute, baita ere, zabalik dagoela 13-18 urte bitarteko gaztetxoendako eraikineko hirugarren solairuan prestatutako espazio berria, eta izena emateko ez dela beharrezkoa bazkideren baten seme-alaba izatea. Hain zuzen ere, jaso dute giltza lehenengo erabiltzaileek.

OHARRAK

Intxortako Lehoiak, zapatuan, Bilbora

Egun osoko txangoa prestatu dute eta bete egin da autobusa. Museoa eta San Mames bisitatuko dituzte goizean, eta bazkaldu ostean Athletic-Athletico Madril partidua ikusiko dute.

Kantsatzeke, Adarrara eta sagardotegira

Hilaren 24ko irteeran izena emateko azken eguna da bihar. Mendi irteera Adarrara eta bazkaria sagardotegian. Prezioa: 35 euro. Argibideak: kantsatzeke@gmail.com.

Tributu jaialdia, hilaren 22an, Espaloian

Bribribilibli -Extremoduro-, Los Platero -Platero Y Tu- eta Triscando En La Hierba -Marea- taldeak. Sarrera, 12 euro.

Eskolatik kanpo ere asko ikasten da

Bosgarren eta seigarren mailetako ikasleak Legebiltzarrean izan dira, Haur Hezkuntzako neska-mutikoek Kutxa Ekogunera egin dute txangoa eta LHko 1-4 mailetako ikasleak, berriz, Arrikruz koban eta Oñatiko Txokolateixian izan dira

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Adin tarte ezberdinetan antolatuta, egun osoko txangoak egin dituzte Herri Eskolako neska-mutikoek berriki.

Otsailaren 20an izan ziren Gasteizen bosgarren eta seigarren mailetako ikasleak. Eusko Legebiltzarrak Florida parkean duen egoitzan izan ziren, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak ordezkatzen dituen erakundearen funtzionamendua ezagutzeko aukera izan zuten. Legebiltzarkide Rebeka Ubera elgetarrak egin zien harrera zein bisita gidatua, eta prentsaurreko bat bertatik bertara ikusteko aukera ere izan zuten. Santa Marina katedrala bisitatu zuten, eta hain esanguratsua den eraikinaren berri izan zuten zertan diren ikusi zuten.

Txikienak Ekogunera

Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko geletako neska-mutikoak Donostiako Kutxa Ekogunean izan ziren otsailaren 21ean. Guz-tira, 40 umetik gora joan ziren. "Leku oso egokia da psikomotritzitatea zein jolas sinbolikoa lantzeko", adierazi du zuzendaritzako ordezkariak. "Balorazio oso positiboa egin genuen aurreko urteko txangoaren ostean, eta aurreko ere bai".

Arrikruz eta Txokolateixia

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik laugarren mailara arteko neska-mutikoak, berriz, Oñatin izan dira. Arrikruz kobetako aurrikuntzen berri izan dute. Historiaurreko gizakiek sua zelan egiten zuten ere ikasi dute.

Kobazuloa bisitatu ostean, Oñatiko Txokolateixia bisitatu zuten, eta bertan, txokolatearen historiaren, osagaien eta txokolate moten gainekoak ikasi zituzten. Zuzendaritzak modu oso positiboan baloratu ditu hiru irteerak.



Bosgarren eta seigarren mailetako ikasleak, Legebiltzarrean. ELGETAKO HERRI ESKOLA



Haur Hezkuntzako neska-mutikoak, Kutxa Ekogunean. ELGETAKO HERRI ESKOLA



LHko 1., 2., 3. eta 4. mailetako neska-mutiko taldea, Arrikutzen.



PILI ARIN

Parekidetasuna aldarri

Bi elkarretaratze eta bazkaria egin zituzten martxoaren 8an Elgetan. Bandera more bana ere ipini zuten: La Belga posizioan eta Emakume Erresistenteen plazan. Bazkalosteko kafe tertulia nabarmendu dute antolatzaileek. Herrian zirkulazioan ipinitako koaderno moreetan jasotako gogoetetatik abiatuta, solasaldi emankorra izan zen.

Bihar, 'Pinotxo' Espaloian

Maitane Zalduiegik zuzentzen du Carlo Collodiren ipuin klasikoa abiapuntu hartuta Galder Perezek egindako antzerkia. Emanaldia 17:00etan hasiko da eta sarrerak salgai daude zortzi euroko prezioan Elgetako El Rincón de Lola tabernan eta www.kulturhiru.eus atarian. Egunean bertan sarreraren prezioa 10 euro izango da, leihatilan.



GLU GLU PRODUKZIOAK

120 bat mendizale elkartu ziren domekan Elgetan

Euskal Herriko Mendi Federazioak antolatuta, Ibiltarien Jaia egin zuten domekan Elgetan. 120 lagun inguru elkartu ziren, herrigunetik abiatuta 25 bat kilometroko bidea egiteko. Ibilbidean izan zituzten Intxorta, Erdella, Santamarinazar, Egoarbitza eta Azkonabieta. Amaieran, 69 lagunek finalisten diploma jaso zuten. Federazioak 2018ko Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien zirkuituko zortzi ibilbide egin zituztenek, hain zuzen ere –eta horietatik bost lurralde ezberdin batean–.

Bazkaria ere egin zuten mendizaleek. Bolatoki jatetxean elkartu ziren lagunarteko otordua egiteko.

Maitena Mañarikua eta Mireia Rubio, txapeldunorde

Elgetako bikoteak martxoaren 8an jokatu zuen Aretxabaletako UDA kirol elkarterako emakumezkoen VI. frontenis txapelketako azken jardunaldia. Finalerdia gaitututa, finalerako txartela eskuratu zuten, eta egun berean jokatu. Aurreikusitako moduan, Laura Saez eta Inge Sancristobal bikote gasteiztarraren aurka izan zen. Onena ematen saiatu ziren bi elgetarrak, eta amaierako emaitza 22-14 izan zen.

Txapeldunordeekin batera sari bana jaso zuten gainerako parte hartzaileek; tartean, Elgetako beste sei jokalarik: Bea Zabalak, Raquel Zamalloak, Idoia Elkorok, Idoia Sernak, Miren Argi Zeziagak eta Iratxe Bravok.



Angiozarko adin eta auzo askotariko bizilagunak 2019ko ekintza planarekin, martitzen iluntzean. JOKIN BEREZIARTUA

Despopulaziorako joerari buelta eman ondoren, geroa bermatzeko lanean

Angiozar Bailarako Batzarrak 2019rako ekintza plana aurkeztu berri duela baliatu du GOIENAK angiozartarrekin egoteko; etorkizunerako "lan handia" badago ere, "pozgarria" izan da ixteko arriskuan egon zen eskola txiki geratu zaiela gaur egun: 37 ikasle dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

"Orain baino 100 biztanle gehiago bazeuden gutxienez eta giro ederra, gaur egun ez dagoena. Jendea badago, baina ez da nahikoa". Hitz horiekin gogoratzen du Angiozar frankismo garaian bertako alkate izan zen Moises Arriaranek. 80 urtetik gorako angiozartarra, bailarak azken hamarkadetan bizi izan duen despopulazioaren lekuko isila bezain bizia da Arriaran –beste hainbat auzok eta herri txikik pairatu izan duten egoera–.

Hala ere, Arriaranek izan du pozteko motiborik azken urteetan: "Orain, ume asko dabilta Eskola Txikian eta horrek asko pozten nau. Lehen, zazpi bakarrik geratzen ziren eta eskola ixteko zorian ere egon zen... Jendea kanpotik etorritik gero ere gu pozik, umeak etor daitezela". Bailararen kohesiorako eta etorki-

zunerako "ezinbesteko" ikusi izan du Arriaranek Angiozarko auzoen arteko komunikazioa hobetzea, baina oraindik ez da haren "betiko ametsa" bete.

"Pazientzia soberan izan dugu"

Auzoen arteko bideak egitea inbertsio handiko obra bat izan badaiteke ere, "nahitaezko" lana dela diote, eta denbora luzez zain egon direla gogoratu dute: "Angiozartik Elgetarako bidea egiteko 50 urte itxaron genuen eta beheko kaleko lanak bukatzeko 40 urte itxaron dugu. Pazientzia badugula erakutsi

AUZOEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA HOBETZEA ESKAERA HISTORIKOA IZAN DA ANGIOZARREN

dugu, soberan", dio egungo alkate Jose Angel Mikeok. Despopulazioari dagokionez, Mikeo bat dator Arriaranekin: "Angiozar ezagutu dugu biztanle gehiagorekin, komertzioarekin, industria txikiarekin eta, nola ez, eskolarekin. Lan egin ostean lortu genuen biztanle kopurua egonkortzea eta kanpotik jendea erakartzea; berriro umeak ikustek asko pozten gaitu".

AHTak markatutako bailara

Bestalde, ezin da ahaztu azpiegitura handiek Angiozarren eragin duten kaltea, eta hor AHTa nabarmendu beharra dago. Hasi daude Bergarako lotuneko lanak, baina, Mikeoren arabera, oraingoan, "bigarren mailako obrak" egin dira.

AHTaren gaia puri-purian zegoenean izan zen Angiozarko alkate Mila Elorza: "Gogoan dut herri galdeketa egin eta ezezko borobila eman geniola. Nire bizitza zeharo aldatu du proiektu horrek. Ingurumenarekin eta inguruko jendearekin askoz arduratsuagoa naiz orain; gure bailaratik kentzeko borrokarekin hasi ginen, baina ohartu gara AHTa ez dela ona inorendako". Trenaren lanek eragindako kalteen kontraprestazio moduan tramuairen alboan natura-bide edo bidegorri bat egitea eskatu izan dute, besteak beste.

Bailara barruko komunikazioa

Elorzak, baina, argi dauka eskaera nagusia zein izan den historikoki: "Gure arteko distantziak murriztea nahi dugu. Batzuek Arrasatera jotzen dute, beste batzuek Elgetara... Bertakoa izatearen nortasuna galtzen ari gara".


Datu batzuk ematearren: 16 kilometro koadroko hedaduran, Angiozarren 312 lagun bizi dira egun. Angiozarko kaletik Bergarako erdigunera sei kilometro daude; esaterako, Goimendi auzoko Lopealdeoste baserria Angiozarko kale gunetik 1.800 metrora egon arren oinez, 12 kilometro egin behar da autoz heltzeko –Bergarako erdigunera heltzeko behar denaren bikoitza–.

AHT-AREN TRAMUAREN ALBOAN NATURA-BIDE EDO BIDEGORRI BAT EGITEA ESKATZEN DUTE, BESTEAK BESTE




MOISES ARRIARAN
ANGIOZARKO ALKATE OHIA

"Jende gehiago eta giro ederra zegoen, orain ez dagoena. Hala ere, azkenaldian ume asko etorri dira eta horrek asko pozten nau. Lehen, zazpi bakarrik geratzen ziren [egun, 37 dira] eta eskola ixteko zorian ere egon zen... Jendea kanpotik etorritik gero ere gu pozik, umeak etor daitezela".



MILA ELORZA ANGIOZARKO ALKATE OHIA

"Angiozartarrok beti eskatu izan dugu auzoen arteko komunikazioak hobetzea eta gure arteko distantziak murriztea. Kalea horren urrun egonda, Arrasatera edo Elgetara jotzen dute batzuek. Bide horiek ez egiteak Angiozarko izatearen nortasuna galbidean jartzen du".



JOSE ANGEL MIKEO
ANGIOZARKO ALKATEA

"Biztanle gehiagorekin, komertzioarekin, industria txikiarekin eta eskolarekin ezagutu dugu Angiozar. Beherantz zihoan biztanle kopurua egonkortu genuen eta kanpotik jendea erakartzea lortu genuen; ixtear zegoen eskola umez beteta ikustearrekin oso pozik gaude bizilagunok".



Ibilgailuen eta oinezkoen arteko elkarbizitza zailaren isla den argazkia, Bidekurutzeta kalean. R.E.

Espaloiak inbaditzea, "eguneroko arazo larria"

Bidekurutzetako bizilagun batzuek Udalera jo zuten duela urtebete, neurri eske, ibilgailuek espaloiak hartzean sortzen duten "arriskua" dela-eta, baina diote arazoak konpondu barik jarraitzen duela; Gobernuak ez du arazo larritzat ikusten eta dio "harremanetan" dagoela

Jokin Bereziartua BERGARA
Urtebete bada, gutxienez, Bidekurutzeta kaleko bizilagun batzuk, Leturia harategian hasi eta Cafe Bergara tabernara doan bide zatian bizi direnak bereziki, "eguneroko" bizi duten arazo batez kexatu zirela Udalean. "Egunero autoek eta kamioek oinezkoen bidea inbaditzean sortzen duten arriskuagatik neurriak hartzeko eskatu diogu Udalari". Diotenez, oinezkoentzako espaloia kendu eta ibilgailuendako bidearekin berdindu zutenetik –2015eko udan–, "arazo larria" dute: "Gaur egun, kaleko zorua bi kolorez margotuta dago: horia, oinezkoentzat; eta beltza, ibilgailuentzat. Ere muia mistoa izanik, oi-

nezkoak bi esparruetan ibili daitezke. Ibilgailuek, berriz, debekatua dute oinezkoen eremua zapaltzea. Seguruenik, hasierako asmoa oinezkoentzat traba arkitonikoak kentzea zen, baina, praktikan, trabak ibilgailuei kendu zaizkie; gaur egun, nahi duten tokitik ibiltzen dira".

Semaforoa jartzeko eskaera
Bizilagunek diote gunea bide bakarrekoa denez ibilgailuak banan-banan pasatu beharko liratekeela: "Seinalizazioak garbi adierazten du zeinek daukan lehentasuna, baina ibilgailuek ez dute errespetatzen. Udaltzaingoak dio ezin direla egun osoa gure kaleko trafikoa zaintzen.

Horregatik, gure eskaria da semaforo bat jartzea, ibilgailuak banan-banan pasatzeko. Arazorik ez dagoenean, semaforoa anbar laga daiteke", adierazi dute. Bestalde, kritikatu dute ibilgailuak "ordu luzez" gaizki aparkatuta ere egoten direla: "Atari bakoitien kasuan, parean aparkatzen dutenean, ezin izaten dugu kalera irten edo etxera sartu, espaloia alde horretan estuagoa delako. Horrez gain, ataritik irtendakoan oso kontuz ibili behar izaten dugu ibilgailuek ez harrapatzeko".

Udal Gobernuak ez du arazo hori larritzat ikusten eta adierazi du "harremanetan" dagoela bizilagunekin eta negozioekin arazoa konpontzen saiatzeko.

NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

Hauteskundeak... zertarako?

Ez diot ezer berririk, esaten badut gorputzaren energia ziklo ezberdinen menpe dagoela. Pertsona guztiek ezin dute beti gorenean egon. Energia handiko eta energia txikiko uneak daude; batzuetan pertsona dago oso sortzailea, eta beste batzuetan oso motel dago, noraezean moduan. Ziklo horien iraupena aldakorra da, jakin gabe noiz arte iraungo duen. Pentsamendu hau buruan daukadala, eta aurretik hauteskunde municipalak, probintzialak, autonomikoak eta nazionalak dauzkagula jakinda, iritzia berresten dut: zein desegokia den ziklo luzeetan mantentzea politikari bezala. Eta, zoritxarrez, sarri gertatzen den kontua da. Benetako arriskua dagoelako aukeratutako horiek errendimendu edo energia txikiko zikloetan aritu eta hain egokiak ez diren erabakietan eragiteko. Gero, horren emaitza izan daiteke ondorio desegokiak sortu ahal dizkigutela. Eta tristea da ikustea hori sortzen dugula, gizarte moduan, gure konplizitatearekin. Kontuz, bada, egiten dugunarekin... Argi ibili!

OHARRAK

EAJren alkategai Elena Leteren aurkezpena

Ekitaldian Joseba Egibarrek hartuko du parte; gaur izango da, Matxiategiko plaza berrituan (19:00). Bestalde, apirilaren 28ko hauteskundeetarako botoa postaz emateko, batzokiko bulegoa irekita egongo da 11:00etatik 12:30era eta 18:00etatik 20:00etara. Azken eguna apirilaren 28a da. Argibide gehiago: 943 76 47 00.

Podemosen hautagaitzaren aurkezpena

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako hautagaitza aurkeztuko dute martxoaren 19an, San Martin plazan (13:00).

Ipintzako gurasoei zuzendutako inkesta

Ipintzaberri guraso elkarteak gurasoei dei egin die e-postaz edo paperean jasoko dituzten inkestak betetzera. Ikasleek bete dituzte; orain, gurasoen txanda da; betiere, ikastetxea hobetzea helburu.

Erreal Zaleak: Valladolid-Realerako autobusa

Martxoaren 31n jokatu da partidua; Bankoa bankutik pasatu behar da hilaren 25a baino lehen, eta 60 euroko diru sarrera egin.

'Amaren etxea' liburuaren aurkezpena

Jokin Urain egilearekin; martxoaren 21ean, gaztetxean (18:30).

GALDEGAZTE

GOIENA TELEBISTA
MARTXOAREN 21EAN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEEK ELKARRIZKETATUKO DUTE
REYES AZKOITIA, PILOTARIA, JOKIN BEREZIARTUAK GIDATUTA.

BABESLEA:

DEBAGOIENEN
MANKOMUNITATEA

LAGUNTZAILEAK:

DEBAGOIENEN
IKASTETXEA

goiena
Zu hemen zaude.





Bergara Oinez ekimenen parte hartu duten hamar eragiletako ordezkariak, Agorrosin Kirol Guneako atarian. AITOR AGIRIANO

Oinez, osasuntsuago bizi eta harremanak lantzeko

Bergara Oinez ekimenaren barruan, hamar eragilek "errazak, irisgarriak eta edonork egiteko moduko" hamar irteera antolatuko dituzte, gehienez ordu eta erdikoak; izena emateko, Agorrosinera (943 77 70 95) edo San Joxepera (943 76 30 09) jo behar da

A. Agiriano / J. Bereziartua BERGARA Osasun sareak eta herriko hamar eragilek martxan jarri duten proiektua da Bergara Oinez ekimena. Herriar osasuntsuagoak izatea, herriko mugikortasunean hobekuntzak lortzea eta elkarleen ikusgaitasuna areagotzea helburu duena, hain zuzen. Urtean zehar egiteko hamar ibilaldi ezberdin proposatu dituzte.

Ekimenean parte hartu duten hamar eragileetako bakoitzak izango du ibilbide horietako baten ardura. "Errazak, irisgarriak eta edonork egiteko moduko" 60 eta 90 minutu arteko iraupena izango duten ibilbideak dira. Agorrosinen hasi eta amaituko

dira guztiak eta, behin amaituta, "hamarretako osasuntsua" ere egingo dute Agorrosinen bertan.

Ikastetxeekin, irteera bereziak Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastetxeek egingo dituzten irteerak bereziak izango dira. Lehen Hezkuntzako eta Derri gorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleekin egingo dituzte, eta ikastetxe bakoitzean aurre-lanketa bat egingo dute ikasleekin zein motatako ibilbidea izango den jakiteko. Belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sustatzeko eta esperientzia ezberdinak jasotzeko aberasgarriak izango dira bi ibilaldi horiek.

Parte hartu nahi duten herritarrek aurrez izena eman dezaten komeni da. Horretarako, Agorrosin Kirol Gunean (943 77 70 95), San Joxepe elkartean (943 76 30 09) eta www.bergarakirola.eus-era mezu bat idatzita eman ahalko da izena.

Atzo egin zuten lehen irteera eta honako hauek izango dira hurrengoak: martxoaren 28an, Kattalin; apirilaren 11n, osasun zentroa; maiatzaren 2an, Aranzadi; maiatzaren 16an, Duintasuna; ekainaren 6an, osasun publikoa; urriaren 3an, Pol-Pol; urriaren 17an, BPXport; azaroaren 7an, Mariaren Lagundia; eta azaroaren 21ean, Udala.

'Galdegazte': Mariaren Lagundikoak, gustura Reyes Azkoitiarekin

Mariaren Lagundiko Maddi Oregik, Adrian Lopezek eta Beñat Kortabarriak Reyes Azkoitia pilotaria elkarriketatu dute Goiena telebistako *Galdegazte* saioaren bosgarren denboraldiaren barruan. Hiru haiekin batera, Maialen Romanek, Unax Etxanizek eta Miren Ruiz de Eginok ere hartu dute parte proiektuan, Azkoitiaren gertuko

jendea elkarriketatzatzen. Ikasleak "oso gustura" egon dira, eta Azkoitiak aitortu du ez zuela espero "horren saio polita" irten-go zenik. Nola ez, pilota izan da elkarriketako berbagai nagusia, baina bestelako sorpresak ere izan ditu, saioko aurkezle Jokin Bereziartuak aurreratu duenez. Saioa osorik ikusteko aukera egongo da martxoaren 24an, 21:30ean eta 23:30ean. Hurrengo egunetik aurrera, *Goiena-eus*-en eta *Goiena Nahieran* aplikazioan ere ikusi ahalko da.

Emakumeek industria arloan dituzten oztopoak aztergai

Goiena komunitatea

Miguel Altuna Lanbide Heziketa / BERGARA

Europar Batasunak finantzaturako Engendering STEM proiektuan parte hartu du Migel Altuna Lanbide Heziketa zentroak. Berdintasuna helburu duen proiektua da, eta egunerokoan enpresa txiki eta ertainetan eta bestelako erakundeetan dauden oztopoak identifikatzeko sortu

zen. Gure zentroaz gain, Eskoziako bi erakunde eta Herbehereetako bat dabilta proiektuan. Lan esparruan sartzerakoan, arlo teknikoan eta industrialean emakumeek dituzten oztopoak identifikatu ditugu, eta gida liburu bat sortu oztopo horiek nola gainditu azaltzeko.

Ikusi dugu oztopoak berdinak direla Eskozian eta Euskal herrian eta beraz erronkak ere antzerakoak izango dira; enpresetan emakumeak gehituz gero, irabaziak hobetu egiten dira.

Martxan dago suteak ekiditeko programa, adinekoei zuzenduta

Suteak ekidin eta gizarte premiak antzemateko programa 80 urte izan eta bakarrik edo 65 urtetik gorako beste pertsona batekin bizi direnei zuzenduta dago. Udala horiekin jarriko da harremanetan, baina adin hori ez izan arren eskaera egin daiteke Bergararren Arretarako Zerbitzuan. Iaz, 94 pertsonari zuzendu zitzaizkien zerbitzua eta 65ek onartu zuten.

Bergara hobetzeko ideiak aurkezteko azken eguna, domeka

Udal Gobernuak 260.000 euro bideratu ditu aurten bergararren ideiak jaso eta gauzatzeko; interes orokorrekoa izan beharko da, urtebetean egingarria eta teknikoki bideragarria. Proposamenak Bergararren Arreta Zerbitzuan, Agorrosinen edo www.bergara.eus webgunean aurkeztu daitezke, etzira arte. Partaideen artean sariak banatuko dituzte.

Lehen irteera, San Joxepekoen eskutik

San Joxepe erretiratu elkarrekin antolatu zuen lehen irteera, atzo. Lehen ibilaldian 40 bat lagun elkartu ziren, 65 urtetik gorakoak guztiak, eta Labegaraletara joatea erabaki zuten. Labegaraletara aukeratzearen arrazoiak izan zen ibilbidea herri barrutik pasatzen denez beste herritar batzuk erakartzeko aukera izan zitekeela. Txangoaren ostean, salda eta txorizoa dastatu zuten.



San Joxepekoen antolatutako irteeraren aurreko talde argazkia. AITOR AGIRIANO

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraletara)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Iker Salaberria txapelduna pilota astintzeko unean; Zubizarretak ezer gutxi egin ahal izan zuen finalean. XABIER URZELAI

Salaberria eta Gutierrez onenak lau eta erdikoan

Bergarako Soralue lau eta erdiko txapelketako finalek, urtero moduan, jende asko batu zuten harmailetan. Promesen mailan, Errioxara joan zen txapela, Sergio Gutierrez izan zen onena. Nagusien mailan, Iker Salaberriak erakustaldia egin zuen

Xabier Urzelai BERGARA

"Ez nuen uste partidua halako aldearekin irabaziko nuenik, finalerdietan ia-ia kanpoan geratu nintzen eta. Gaur, baina, gustura ibili naiz. Partidua ez dut batere ondo hasi eta lehenengo minutuetan Zubizarreta gehiago izan da, baina gero, buelta eman diot norgehiagokari. Oso pozik nago, ez nago lau eta erdian jokatzera ohituta, eta hau ez da edozein txapelketa", adierazi zion GOIENARI nagusien mailan torneoko irabazle Iker Salaberriak.

Benetako erakustaldia

Nagusien finalean, promeseta-koan moduan, jende ugari batu

zen harmailetan. Norgehiagoka ez zen ordu erdira iritsi, partida bizia eta azkarra izan zen. 0-2 galtzen hasi zen Zubizarreta, 6-2 irabaztera pasa zen ondoren eta hortik aurrera sekulako erakustaldia egin zuen Salaberria goizuetarrak. Sakatu egin zuen ondo [zortzi tanto egin zituen sakearekin], eta hurrengo pilotakadekin ere tanto asko lortu zituen, nagusitasun handia erakutsiz. Zubizarretak ezin izan zituen bere dohainak erakutsi, Salaberriari jokaldi guztiak ondo atera zitzaizkion eta.

Promesena, parekatuagoa

Promesen finala txapelketako partidurik gogorrenetakoa –eta

ederrenetakoa– izan zen. Bi pilotariak maila handian aritu ziren, eta finalera gerturatutako zaleen txaloak merezita jaso zituzten. Ondo jokaturako tantoak egon ziren, eta baita ondo amaitutakoak ere. Errioxarrak, Sergio Gutierrezek, erritmo bizia jarri zuen eta Josu Agirreamalloak 15 tantotan eutsi ahal izan zion erritmo horri (15-15). Iku-sitakoak ikusita, bazirudien emozio handiko partidua amaiera izango zela, baina berdinketa hartatik aurrera Gutierrezek azeleragailua sakatu eta ia dena egin zuen ondo. Eta horren aurrean, bizkaitarrak ez zuen erreakzionatzeko gaitasunik izan (22-15).

Lokatzak taldeak aurkeztu ditu

Joan den egunean aurkeztu zituen Lokatza Ziklismo Eskolak 2019an errepidean izango dituen txirrindulariak. Benjamin mailan bost ziklista ariko dira, kimu mailan bederatz, infantil mailan lau eta kadete mailan beste bost. Babesleei dagokienez, Bolintxo okindegiak gain, aurten, Lana kooperatibak ere lagunduko du Bergarako taldea.

Ligako azken txanpan sartu da Soralue BKE eskubaloit taldea

Bost partidua jarraian irabazi eta gero –nahiz eta joan den astekoa galdu egin zuten–, Soralue BKEk ligako goiko postuei begira amaituko du liga txapelketa. Hala, atzealdeko postuenatik borrokan ibili behar izatearen mamua uxatuta, Haritza, Legazpi, Zarautz eta Urnieta taldeak dituzte begiz jota, liga ahalik eta goren amaitu eta igoera faserako sailkatzeko: "Hauek dira gurekin batera gora begira dauden taldeak", dio Josetxo Muniategik.

Hala, hain zuzen, ligako bigarren sailkatu Haritza izango dute bisitari zapatuan Labegaraletan (18:00): "Aurretik ditugun finaletakoa bat da".

Gorlako Igoera bihar: goizean gazteak eta arratsaldean neskak

Lokatzak antolatuta, Gorlako Txirrindularitza Igoera jokatu-ko dute bihar, zapatua, Bergaran. Goizean, 10:00etan hasita, gazte mailako lasterketa egingo dute, eta garai bateko lasterketaren formatua errekupeperatuko dute. Hala, San Martin plazatik abiatuta, ikusteko dago 8,4 kilometroko lasterketan nor gailentzen den.

Arratsaldean, berriz, 14:30ean hasita, emakumezkoen txanda izango da. Horiek lasterketa luzeagoa izango dute, hasiera Bergarako kaleetan neutralizatuta izango badute ere. Osintxu eta Zubillaga artean pare bat itzuli egin eta gero, 16:15 aldera Gorla igoko dute.

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerrak
Leihoak - Tarimak
Egur lanak

121
KALITATEA

Enpresa lehiatzailea Nº09/025

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Inaugurazio egunean, ikusleak sarreran jarritako argazkiak ikusten. ENEKO AZURMENDI

Emakume dendarien lana, artelanetan jasota

Martxoaren 7an inauguratu zuten erakusketa eta martxoaren 24ra arte egongo da ikusgai; sarreran, dendarien argazkiak jasotzen dituen mural bat sortu dute eta erakusketa bera komertzio motaren arabera dago antolatuta, gaika

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Emakumeek egin duten eta egi- ten duten lana balioan jarriko duen erakusketa ikusgai dago Aroztegin. Herriko artista talde batek antolatu du erakusketa; dagoeneko hirugarren aldia da horrelako erakusketa bat antolatzen dutena, hirurak ere Martxoaren 8aren bueltan.

Emakumeen biharra du izena, eta, hain zuzen, hori da jasotzen dutena: "Erreferentzia moduan hartu ditugu Bergarako emakume dendariak, garai batekoak eta gaur egungoak", azaldu du erakusketan parte hartu duen Amaia Santamaria artistak.

Sarreran, argazkiak

Bergarako Udal Artxibotik garai bateko dendarien irudiak hartu dituzte, eta horiei gehitu dizkie gaur egungo dendarien argazkiak. Argazki horiek batu eta mural antzerako bat egin dute; hain zuzen, Aroztegi sarreran jarri dituzte argazkiak: "Bilduma moduko bat egin dugu

eta erakusketaren sarreran jarri ditugu argazkiak".

Gaika antolatuta

Bergarako 27 artistak parte hartu dute erakusketan. "Beste urte batzuetan baino gehiago elkar- tu gara, baina, hala ere, lan gutxiago jarri ditugu ikusgai", azaldu du Santamariak erakusketaren inguruan.

Erakusketa hainbat gunetan dago banatuta: gunee bakoitzak gai bat du oinarri. "Alde batetik, frutategia dago; beste batetik, burdindegia; bestetik, harategia...", dio Santamariak. Hala, artista bakoitzak gai horietako bat oinarri hartuta egin du artelana. Askotariko diziplinak ikus daitezke erakusketan. "Ba-

BATEZ ERE PINTURA LANAK DAUDEN ARREN, ASKOTARIKO DIZIPLINAK IKUS DAITEZKE AROZTEGIN

tez ere, margolanak daude erakusketan; izan ere, Bergaran pintura da gehien lantzen dena. Baina beste diziplina batzuk ere ikus daitezke: zeramika, eskultura, 3D, argazkilaritza, ilustrazioa...", gaineratu du Santamariak. Erakusketaren muntaia gaiarekin konkordantzia eta instalazio gisa planteatu da, bata bestearekin erlazionatuta.

Erantzun polita izan du

Martxoaren 7an inauguratu zuten erakusketa. Bergarako antzerki taldeko kideak kalean ibili ziren, *performance* bat egin eta jendeari erakusketara joateko animatuz. Ondoren, Aroztegi aretoan, hara joandako ikusleei "eskerrik asko" esaten ibili ziren belarrira. Inaugurazioa DJ Turtukiñak girotu zuen. Erakusketa ikusgai dago: martitzetik eguenera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.

Zabalik dago Apirilean Musika saioetan izena emateko epea

Musika eskolan izango dira ikastaro guztiak; apirilaren 6ko Maite Vicuñaren hitzaldia doan izango da

A.E. BERGARA

Musika Eskolak apirilean zehar eskainiko dituen hainbat ikastaro antolatu ditu. Ikastaro horietan izena emateko epea martxoaren 26ra arte izango da.

Apirilaren 1ean eta 2an, *Musika familian tailerra* egingo dute, 0-3 urte bitarteko haurrendako, 18:15ean. Maite Vicuña izango da irakaslea, eta ikastaroaren prezioa 10 euro izango da –bazkideek 5 euro–. Apirilaren 1ean, 19:00etan, nagusien- dako musikoterapia tailerra egingo dute –60 urtetik aurre-

rakoendako–. Maite Vicuña izango da irakaslea eta prezioa aurrekoan berdina izango da. Horrez gain, Vicuñak hitzaldia eskainiko du apirilaren 6an, 12:30ean, musika eskolan: *Musikoterapiarekiko gertutasuna*.

Apirilaren 5ean, 16:00etan eta 17:30ean, Orodreth-en eskutik Beatbox Tailerra egingo dute –10 urtetik gorakoendako–. Francisco Camachok haize metal instrumentuen ezagutza eta mantentzea erakutsiko du, apirilaren 5ean, 17:00etan. Prezioa: 8 euro –musika ikasleek, doan–.



MUSIKA ESKOLA

Musikari gazteak Valentzian

Bergarako Musika Eskolako 66 lagun Valentziako Godella eta Mislata herrietan izan ziren aste bukaeran kontzertua eskaintzen eta hangoekin harremanak estutzen. Bergararrek Mislatakoekin batera eskaini zuten kontzertua, zapatu arratsaldean. Elkartrukearen bigarren zatia apirilaren 27an egingo dute; valentziarrak Bergara etorriko dira.

Familia guztiarendako 'Enaren kontuak' musika saioa bihar

2Princeses Barbudes Katalunia-ko taldeak familia guztiari zuzendutako *Enaren kontuak* saioa eskainiko du Seminarixoan, bihar, 18:00etan –4 euro–. Jos- tailu tresnekin sortuko dute musika, eta printzesa bizardu- naren ahotsak gidatuko du saioa. Doinu itsasgarriak eskainiko dituzte. Uxue Alberdik egokitu ditu hitzak euskarara.

Eten egin du ibilbidea Bergara topaleku duen Nomadak taldeak

"Geratzeko momentua da. Arra- zoia ez dakigu zein den, agian ez dago arrazoi bakar bat. [...] Ez dakigu hilabete barru edo urtebete barru itzuliko garen. Denborak bakarrik dauka horren erantzuna. Bitartean, bultzatu dezagun euskal musika". Hitz horiekin eta sare sozialen bidez egin du publiko Nomadak taldeak agertokiak utziko dituela.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarra 32, behe / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 76 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibarra 41 / 688 80 16 72

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibarra 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Haurraren autonomia eta herri proiektua, lotuta

Eskolako Bidea egitasmoaren bi ondorio arrazoitu dituzte astean Oñatin egindako jardunaldian: ez dela eskolara oinez joatea bakarrik, herri proiektua dela eta haurrak herriko kide hartuz gero gizartea justuagoa eta berdinzaleagoa izan daitekeela

Oihana Elortza OÑATI

Eskola Bidea jardunaldiak egin dituzte aste honetan Oñatin eta egitasmo hori eskolara oinez joatea baino gehiago dela ondorioztatu eta arrazoitu dute parte hartu duten hizlariek. "Hiri proiektu bat da. Argi daukat", adierazi zuen Isabel Prietok, mugikortasunean aditu eta Eusko Jaurlaritzak argitaratuta duen *Eskola Bidea. Gida Teknikoa* gidaren egileak.

Sail ezberdinetatik

Gipuzkoan landu diren proiektu asko ezagutzen ditu Prietok eta herri bakoitzak bere errealitatea kontuan hartuta landu dutela adierazi zuen. "Oñatin, esaterako, hezkuntza arlotik landu da eta herriko ikastetxeen arteko lana izan da. Beste batzuetan, aldiz, Udaltzaingotik atera da proiektua, edo Hirigintza Sailetik. Sail batetik edo bestetik abiatu, baina denak izan dira herriaren hoberako", gaineratu du Prietok.

Umeak dauden tokiak leku seguruak direla ulertzen du jendeak, Isabel Prieto mugikortasun adituaren esanetan, eta horretan bat dator Lorea Agirre, *Jakin* aldizkariako zuzendari, kazetari eta antropologoa. Francesco Tonucciren *Haurren hiria* liburaren hitzaurrearen egilea ere bada. "Haurraren autonomia garrantzitsua da eta horrelako ekimenak lagundu egiten dute horretan. Haurra ahaldundu egiten da proiektu hauekin, baina horrek ere eragina du herrian, gainerako herritarrek ere adi jartzen dira haurrak datozelako, ibilgailuen lekua aldatu egiten delako...", adierazi zuen.

Justuagoa eta berdina

Baina eskolako ibilbide hau haurren ahalduntzean eta autonomian sar daitekeen beste urrats bat dela uste du Agirrek: "Urrats inportante eta logiko bat". Berak



Ugalde, Prieto eta Agirre, martitzeneko hitzaldia hasi aurretik. O.E.

OÑATIKO BAGABILTZ PROIEKTUAK BOST URTE EGIN DITU ETA EGINDAKO LANA BALIOAN JARRI DUTE

argi ikusten du beste mila gauza egin daitezkeela umeen ahalduntzea eta autonomia kontuan hartuta: "Idealea izango litzateke pentsatzea haurra herriko kide dela, ez dela etorkizuneko norbait, eta herritarra den heinean batez ere berari dagokion gaietan ahotsa izan behar duela, parte hartzeko eta erabakitzeke aukera. Eta horrek aldaketa asko ekar ditzake herrira, Udalen beste eremu batzuetako martxan parte hartzeraino. Zerbait eta plano gehiagotara eraman, orduan eta gizarte justuagoa eta berdinzaleagoa izango da, ziur aski".

Oñatiko eredua

Eskola Bidea izeneko proiektuak umeen autonomia garatzeaz gain, beste hainbat ezaugarri ere badituela azaldu zuten adituek jardunaldietan; esaterako,

parte-hartzea, elkarlana eta mugikortasun jasangarria.

Oñatin duela bost urte jarri zuten martxan Bagabiltz egitasmoa Udalak eta herriko hiru ikastetxeek elkarrekin eta urte hauetan egindako lana balioan jarri eta zein ezaugarri dituen azaltzeko tarte ere hartu dute jardunaldietan. Ainhoa Ugalde teknikaria da proiektu hau hasieratik jarraitu duena, eta, bere esanetan, partaidetza da beste herriek Oñatiko eredutik hartu beharko luketen ezaugarria: "Oñatik duen balio handi bat da umeak duten autonomia. Dauden azpiegiturak eta hezkuntza komunitatearekin egin den lana azpimarratzekoak dira. Partaidetza da aztertu behar den ezaugarria eta beste herri batzuetan aplikatu behar dena".

Bost urte egin ditu Bagabiltz egitasmoak eta aberasten jarraitzeko Gipuzkoako eta Kataluniako esperientzia ezberdinak ezagutu eta egindako lana balioan jartzeko jardunaldiak izan dira. Herriko hiru ikastetxeetako kideak, udal ordezkariak eta herritarrek izan dira udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan egin diren hitzaldietan.

Ume zein hezitzaile izan, zabalik da udalekuetako izen ematea

Arte udalekuak ere egongo dira eta horietan begirale izateko izena hilaren 22a aurretik eman behar da

O.E. OÑATI

Udan egingo diren udaleku irekietarako izen ematea zabalik dago ume zein begiraleendako. Aurten ere 4 eta 12 urte arteko umeendako antolatuko dituzte eta lau aste iraungo dute, goizez egingo dira eta gaztelekua izango da topagunea. Zaintza zerbitzua ere egongo da. Umeek matrikularen dirua ingresatu behar dute izen ematea ziurtatzeko; lehen umeak 71,05 euro ordaindu behar du, bigarrenak 60,90 euro eta hirugarrenak 50,75. Hilaren 22an amaitzen da epea. Baita begirale izateko ere. Hezitzaileek ludotekan, gaztelekuan edo udaletxean eska dezakete informazioa.

Arte udalekuak

Arte udalekuak ere egongo dira aurten ere; zortzigarrenez. Udaleku horiek ere uztaillaren 1etik



Joan den urteko udalekuetan. O.E.

26ra izango dira, LH-3tik DBH-4 arteko ikasleendako. Prezioak udaleku irekietako berdinak izango dira eta plaza mugatuak egongo dira: hamabost gazte, gehienez. Umeen izen ematea maiatzaren 22a baino lehen izan behar da, baina hezitzaileen 22an amaituko da.

Sare Feminista pozik M8-ak izandako erantzunarekin

Balorzio sakona egin barik duen arren, Martxoaren 8a "mobilizazio bezala arrakastatsua" izan zela uste du Oñatiko Sare Feministak. Eskerrak eman gura dizkie "herriko emakume ezberdinei, emakume anitzei, greba feministan parte hartzeagatik". Gaineratu du bizi duten "egoera prekarioagatik edo zaintza lanengatik" mobilizazioetan parte

hartu ezin zuten emakumeak ere gogoan izan zituztela.

Zaintzaren gaia izan zen salatuak gaietako bat eta "Martxoaren 8az geroztik gai horren inguruan egindako hausnarrek" aurrerantzean eragina izatea gurako luke plataformak, "benetako zaintza lanen birbanaketarako aurrerapausoak kontsolidatzea".

Borroka feminista honetan lanean jarraitzeko dei ere egin du Sare Feministak, "zapalkuntza anitzak amaitzeko".

Korrika eguneko bazkarirako txartelak salgai daude

Apirilaren 13an helduko da Korrika Oñatira, eta, antolatu diren ekintzen artean, herri bazkaria egongo da Antixena gaztetxean. Txartelak Arrano eta Ona tabernetan daude salgai dagoeneko eta prezioak dira: zortzi euro ikasle eta langabeendako eta hamabi euro gainerakoendako. Menu vegetarianoa aukeratu ahal izango da.

Bideo jokoan erabilpen desegokiak mintzatuko dira

Sare sozialak, bideo jokoak eta hauen erabilpen desegokiaren ondorioz sortzen direnak izeneko hitzaldia antolatu du Udalak LH 5 eta LH6 eta DBHko ikasleen gurasoendako. Emoki kooperatibako Urko Fernandezek gidatuko du eta hiru saio izango dira. Izena aurrez eman behar da, eta bideak dira: 943 03 77 00 edo ainhoa@onati.eus.



Cegasa enpresak Lizaur kalean duen egoitza eta lantegia. O.E.

Miñaora eramango du produkzioa Cegasak

Datorren urtetik aurrera manganosoa bakarrik ekoiztuko dute Cegasak Oñatin duen lantegian; egungo produkzioaren zati handi bat eta bulegoak Miñaoko industria-nabe batera leku aldatuko dituzte aurtan. Hainbat langilek hara joan beharko dute lanera

Oihana Elortza OÑATI

Cegasa enpresak handitu egingo du bere negozioa. Horrek, baina, aldaketak ekarriko ditu Oñatin duen lantegira eta eragin zuzena izango du hemengo langileengan. Izan ere, Gasteizko Miñao herriko industrialdeko eraikin batera eramango dute Oñatiko produkzioaren zati handi bat. Aurtan egingo dute aldaketa hori eta datorren urtetik aurrera manganosoa bakarrik ekoiztuko dute Oñatin; gainerako produktuak, pilak eta bateriak, esaterako, Gasteizen egingo dituzte.

Urtea bukatu aurretik

Enpresako ordezkariak jakinarazi dutenez, erabakia hartuta dago eta aurtan egingo dute lekualdatzea. Oraindik ez daude data zehatzak emateko moduan, baina urtea amaitu aurretik burutuko dute trasladoa. Bulegoak lekualdatuko dituzte lehenik, eta produkzioa gero. Urtean zehar egingo dute leku aldaketa

eta 2019ko urtarrilerako eginda egongo da.

Lekualdatze honen arrazoia enpresak duen negozioaren handitzea dela esan dute enpresako ordezkariak; Miñaoko eraikinak Oñatikoak baino aukera gehiago ditu handitzen jarraitzeko.

Manganosoa bakarrik

Etorkizunean, datorren urtetik aurrera, manganosoa izango da Oñatin ekoiztuko duten produktu bakarra. Egun, manganosoz gain, bestelako produktuak ere egiten dituzte Oñatin, baina, aurrerantzean, pilak, bateriak eta bestelako produktu asko Gasteizko Miñaoko industria-nabean egingo dituzte.

BULEGOAK LEKU ALDATUKO DITUZTE LEHENENGO ETA PRODUKZIOAREN ZATIA GERO

Langileak

Negozioaren zati handi bat Gasteizera eramateak esan gura du orain Oñatiko lantegian lan egiten duten langile askok Gasteizera joan beharko dutela gero. Hori baieztatu du Cegasak, baina enpresako ordezkariak ez dute oraindik zehaztu zenbat langile izango diren Miñaora joango direnak, ezta langile horiendako autobusik jarriko duten ere eguneroko joan-etorria egin ahal izateko. Manganosoa lantzen jarraitzeko zenbat langile beharko dituzten ere ez dute zehaztu.

Enpresa batzordea

Cegasako enpresa batzordean bi sindikatu daude: hiru ordezkari ditu LABek eta bi ESK-k. Gehiengoa duen sindikatuko ordezkariak adierazi dute orain arte bi bilera izan dituztela enpresako ordezkariarekin gai honi buruz berba egiteko eta, momentuz, nahiago dutela adierazpenik ez egin.



Azkoagain futbol zelaia eta instalazioak. ENEKO AZURMENDI

Azkoagain birgaitzeko dauden aukerak aztertuko dituzte

Futbol zelaiko belar artifiziala aldatu eta harmailak eta aldagelak egokitzeko ideiak jasoko lituzke txostenak

O.E. OÑATI

Azkoagain futbol zelaia bera eta han dauden instalazioak zahar-kituta daude, aldatu beharrean, eta gune hori birgaitzeko azterketa txostena egingo du Udalak.

Aloña Mendirekin

2008an jarri zuten belar artifiziala Azkoagainen eta hamar urterako iraupen bermea zuen; beraz, oraindik hain egoera txarrean ez egon arren, aldaketa eskatzen du. Zelaia baino egoera okerragoan daude, bestalde, behin-behineko aldagelak eta aldagela zaharren eraikina; egoe-

ra benetan txarrean dago eraikin hori. Aloña Mendi elkarteak obrak egin beharra ikusten du eta bere kezka azaldu dio Udalari. Ezertan hasi aurretik, baina, zer egin daitekeen aztertu gura du Udalak, futbol sailak izan ditzakeen beharrak ere zeintzuk diren zehaztuta. Proposamen tekniko hori Girder enpresak egingo du, belar artifiziala jartzeko proiektua egin zuen enpresa berak. Dagoeneko hasita daude lan hori egiten eta epe motzean bukatuko dute txostena. Azterketa honen aurrekontua 9.500 euro da, BEZ gabe.



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

Martxoaren 15a, Kontsumitzaileen Eguna

Badirudi urteko egun guztiek dutela izendapen bereziren bat, eta martxoaren 15a Kontsumitzaileen Eskubideen Munduko Eguna da.

Nonbait, 1962ko martxoaren 15ean John F. Kennedyk kontsumitzaileen eskubideak babestea ardatz nagusi zuen hitzaldia eman zuen aurreneko aldiz. Aurrerago, 1983an, Kontsumitzaileen Nazioarteko Elkarteak bultzatuta, lehendabizikoz ospatu zen.

Aurtengoa 36.a izango da, eta gero eta behar handiagoa dugulakoan nago. Zeinek ez du izan arazorik telefoniarekin, aseguru etxeekin, tresnaren baten bermearekin, bidaiekin –hotela, hegaldia–... puf! Luze joko luke guztiak zerrendatzea. Baina horiez gain, badago gutxiago aipatzen den beste kontu bat ere, Kontsumitzaileen Hizkuntz Eskubideak. EAEn egon badago legea, baina betetzen da?

Beraz, urtean egun jakin bat izendatuta izateak horretaz hitz egiteko eta ditugun eskubideak aldarrikatzeko aukera dugula gogorarazteko balio digu, eta ez dago gaizki.



Aloña Mendiko taldekide batzuk eta Ander Aberasturi entrenatzailea, eguazteneko entrenamendu saioan. E.A.

Denboraldia igoerarekin borobiltzea dute helburu

Emakumezkoen Gorengo Mailako Igoera Fasea jokatzen ari da Aloña Mendi, eta, lau partidu jokatu ostean, bi irabazi dituzte eta beste bi galdu; bihar, partidu garrantzitsua dute goiko postuei ihes egiten ez uzteko, Hernaniren aurka, Azkoagainen

Eneko Azurmendi OÑATI

Lau partidu jokatu dituzte oñatiarrek igoera fase honetan. Lehenengo biak irabazi egin zituzten eta azken biak, aldiz, galdu. Intxaurdiren aurka galdu zuten lehena. Ligako talderik indartsuenetakoa da donostiarra. "Partidu guztiak irabazita etorri ziren Oñatira, eta partidu oso ona egin arren eta irabaztea merezi arren, 1-2 galdu genuen, azken minutuan sartu ziguten gol baten ondorioz", azaldu du Ander Aberasturik, taldeko entrenatzaileak. Bigarren partidu Hondarribiaren aurka galdu zuten, pasa den astean.

Zortzi taldeko ligaxka da jokatzen ari direna, eta lehenengo biek lortuko dute mailaz igotzea. Momentu hauetan, Urnieta eta Intxaurdi daude sailkapenaren gorenean, hamabina punturekin. Aberasturiren neskak laugarren daude, Hondarribiarekin berdinduta, sei punturekin.

Entrenatzailearen esanetan, "goikoek ez dute hutsik egiten".

Hori dela eta, ezinbestekoa da biharko partidua irabaztea -16:30ean, Azkoagainen-. "Lehenengo fasean haiek baino gehiago izan ginen eta, berez, irabazteko moduko partidua da. Ezin dugu hutsik egin".

Zaila, baina ez ezinezkoa

Zaila izan arren, mailaz igotzeko helburua dute oñatiarrek. "Fase hau hasi ginenean, mailaz igotzeko helburua finkatu genuen. Gauzak zaildu egin diren arren, guk gurea egiten badugu eta goikoek huts egiten badute, aukera eduki genezake". Hamar partidu falta dira oraindik, eta taldea goian egoteko gai ikusten du Aberasturik. "Edozer gerta liteke. Guk erregularrak izatea

lortu behar dugu. Partidu handietan motibatu egiten gara eta oso maila onean aritzen gara. Baina gainontzeko partiduetan maila bera ematea izango da erronka, ezin gara erlaxatu".

Jendez larri

Denboraldia 20 bat jokalarirekin hasi zuen taldeak, baina, arrazoi ezberdinak direla eta, jendez nahiko larri dabilta. "13-14 jokalarirekin ari gara. Min hartuta daude batzuk eta lana dute beste batzuek. Gazteak igo behar izaten ditugu, eta hainbat partidu bukatu ditugu bukaeran aldaketarik egin ahal izan gabe".

Lehen fase bikaina

Lehenengo faseari dagokionez, oso maila onean aritu ziren oñatiarrek. 16 partidu jokatu zituzten eta horietatik 12 irabazi, eta bakarra galdu zuten. Modu horretan lortu zuten igoera fase honetan egotea. "Behin hemen egonda, igoera lortzeko borrokatu behar dugu".

LAUGARREN DAUDE OÑATIARRAK UNE HONETAN, LEHENENGO BI POSTUETATIK SEI PUNTURA



Kepa Aldekoa, Zubikoa kiroldegiko igerilekuan. E.A.

200 metro bizkar erako marka lortuta, 100 metrokoaren bila

Espainiako Txapelketan aritzeko marka lortzen saiatuko da bihar Kepa Aldekoa, Iruñean, 100 metro bizkar eran

E.A. OÑATI

200 metro bizkar eran Espainiako Txapelketan aritzeko marka minimoa lortu zuen otsailean Kepa Aldekoa oñatiarrek, eta pasa den asteburuan marka hori hobetzea lortu du -2.12.36-. "Denboraldi bikaina egiten ari da. Irailetik hona, zazpi segundo hobetu ditu", adierazi du Josune Odriozola entrenatzaileak.

Gipuzkoako Txapelketan lortu du marka hori hobetzea. Infan-tila izan arren, maila absolutuko igerilariarekin aritu da, eta bihar ere hala ariko da Euskal Herriko Txapelketan, Iruñean.

200 metroko marka minimoa lortu ostean, 100 metroko marka lortzea du helburu, eta horretan saiatuko da bihar -1:01:05-. Gaur egun, 1.02.16 da haren marka. "Bihar ez dakit, baina uda baino lehenago lortuko dudala uste dut", dio. Izan ere, abuztuko lehen astean jokatuko dute Espainiako Txapelketa.

Hamaika oñatiar Iruñean

Biharko txapelketan, Aldekoaz gain, beste hamar igerilari oñatiar ariko dira lehian: infantil mailako bi, junior mailako zazpi eta absolutu mailako bat.



A.A.

Alpeetara, lasterketa aitzakia

Pierra Menta lasterketa ezaguna jokatzen ari da egunotan Frantziako Alpeetan, martxoaren 13an hasi eta bihar arte. Hiru oñatiar ari dira proban parte hartzen: Axier Alonso, Aitor Otxoa eta Gorka Galdos. Azken hau Suitzan bizi da, eta hango lagun batekin ari da. Hiru parte-hartzaileez gain, beste hainbat oñatiar ere gerturatu dira Alpeetara.

Dena prest herriko bertsolari txapelketarako

Txapelketak hiru saio izango ditu: bi finalurrekoak eta finala. Guztira, herriko hamasei bertsolarik hartuko dute parte eta finalean horietatik sei arituko dira. Apirilaren 13an jakingo da zein den VIII. Txinparta Bertsolari Txapelketako irabazlearen izena

Maialen Regueiro OÑATI

2014an jantzi zuen txapela Andoni Goitiak VII. Txinparta Bertsolari Txapelketan. Ordutik bost urte pasa dira eta aurten zortzigarren edizioa jokatu da. Guztira, herriko hamasei bertsolarik hartuko dute parte txapelketan eta atzo arratsaldean Eltzia topagunean egindako prentsurrekoan xehetasun guztiak eman zituzten.

Hiru saio

Hain zuzen, hiru saio izango ditu aurtengo bertsolari txapelketak. Lehen saioa martxoaren 23an jokatu da, lehen finalurrekoa izango dena. Txapelketa 17:30etan hasiko da, Antixena gaztetxean, eta zortzi bertsolari arituko dira: Ander Lizarralde *Pertzi*, Urko Egaña, Gorka Larrea *Txapel*, Maider Arregi, Joseba Lasagabaster, Beñat Alberdi, Bittor Zubiagirre eta Xabier Pascual *Pasku*. Bigarren finalurrekoa, berriz, astebete geroago jokatu da, hilaren 30ean, hain zuzen ere. Eltzia topagunean jokatu da finalurreko hori eta bertan beste zortzi bertsolari arituko dira: Odei Irigoien, Aitor Tatieggi, Egoitz Aizpuru, Andoni Goitia, Joseba Igartua *Urze*, Urko Arregi, Gonzal Belategi eta Aritz Irigoien. Azkenik, eta azken saio gisa, finala jokatu da, apirilaren 13an, 18:00etan, Oñatiko gaztelekuan. Finalean sei bertsolari arituko dira: lehen eta bigarren finalurreetako irabazleak eta, horiez gain, puntu gehien eskuratutako lau bertsolariak.

Apirilaren 13an jakingo da edizio honetako txapeldunaren izena eta Oñatiko Bertso Eskolaren sortzaileetako bat izan den Xabier San Migel izango da irabazleari txapela jartzeko ardura izango duena. Horrez gain, txapelketan zehar banatuko diren sari guztiak Oñatiko artisau, ekoizle eta Eltzia kideek



2014ko Txinparta Bertsolari Txapelketako finala. GOIENA

BOST URTEREN OSTEAN HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA JOKATUKO DA

sortu eta ekoizitakoak izango dira; izan ere, herriko eragileen arteko elkarlana bultzatu da.

Epaimahaikideak

Epaimahaikideek bertsolarien bertsoak puntuatuko dituzte, eta, horretarako, bertsozaleak diren eta aurreko txapelketetan lan hau egiten aritu diren Lander Diaz de Gereñuk, Nerea Etxezarretak eta Julen Iriondok osatuko dute taldea. Talde hau txapelketa osoan zehar arituko da eta horiekin batera Xabier Igartua izango da puntuazio zenbaketa egiteaz arduratuko dena.

Gai-jartzaileak

Mirari Sagarzazu eta Egoitz Atxaga izango dira txapelketako gai-jartzaileak. Are gehiago, finalurreko bakoitzean bat arituko da lan horretan eta final egunean, aldiz, biak izango dira.

Horiez gain, bertso eskolako hainbat kidek taldetxo bat osatu dute eta gaien lanketa egiten ari da dagoeneko. Gainera, bertsolari txapelketa hasten denetik apirileko lehen asteburura bitartean, herriko hainbat tabernatan gai kutzak egongo dira gai proposamenak aurkezteko. Finalera begira, gai-jartzaile taldeak horiek bildu, landu eta egokitu egingo ditu.

Eskolarteko txapelketa

Txapelketa hau jokatzin ari den bitartean, Xabier Agirrek eta Bittor Zubiagirrek Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan hartuko dute parte. Agirrek gaur Orioko Aldapa Elkartean jokatu den kanporaketan izango du aukera finalerako sailkatzeko. Hurrengo egubakoitzean, berriz, Zubiagirreren txanda izango da, Oñatiko Larran-Gain elkartean, bertan txapelketa honetako azken kanporaketa jokatu da eta Azkenik, Eskolarteko Txapelketa honetako finala apirilaren 5ean jokatu da, Lasturko plazako tabernan, eta dagoeneko Aitor Tatieggi bertsolaria final horretarako sailkatuetako bat da.



Ainara LeGardon musikari bilbotarra. RAFA RODRIGO

Beratu jaialdiari azken ukituak ematen ari dira antolatzaileak

Martxoaren 30ean egingo den tailerrean parte hartzeko izen-ematea zabalik egongo da hilaren 28ra arte

M.R. OÑATI

Beratu jaialdiaren bigarren edizioaren hasiera geroz eta gertuago dago eta antolakuntzako kideak azken ukituakin ari dira. Asteon, besteak beste, *Musik Fem* solasaldiko protagonistak zeintzuk izango diren eman dute aditzera: Leire Palacios kazetariak Olatz Salvador musikaria elkarriketatu da.

Tailerreko izen-ematea, zabalik Martxoaren 30ean egingo den *Musika autoekoizpena* izeneko tailerrean parte hartzeko, esate baterako, aurrez izena ematea

komeni da, eta hori egiteko azken eguna martxoaren 28a izango da. Hain zuzen, antolakuntzak Beratujaialdia@gmail.com helbide elektronikoa jarri du eskuragarri.

Tailerra Ainara LeGardon musika munduan hogeituroko esperientzia duen musikariak gidatuko du. Euren autoekoizpenaren bitartez publikoarengana iritsi nahi duten musikariei zuzenduta dago tailerra eta lanaren distribuzioa, komunikazioa, promozioa, esparru legala eta jabetza intelektuala izango dira hizpide, besteak beste.

'Zorion hautsa' antzezlanak Katiuska Antzerki taldearekin

Oñatiko Antixena gaztetxeak antzeztokian izango dira, domekan, 19:00etatik aurrera, Katiuska Antzerki taldeko kideak *Zorion hautsa* antzezlan eskaintzen. Antixenera bertaratzin diren herritarrek 3,50 euro ordaindu beharko dute sarrera.

Domekan ikusi ahal izango den *Zorion hautsa* lanak antzezele gaurkotasunarekin lotutako gaiak lantzen ditu, batez ere. Gainera, obra honen helburua da publikoa hausnarketara eramatea. Era berean, Katiuska Antzerki taldearen antzezele honek fikzioa eta drama generoak uztartzen ditu, baina modu jostagarrian aurkeztuta, eta hori litzateke berezitasuna.

'Matinee' kontzertua Mr.Sipp musikari amerikarrarekin

Musikari amerikarrak martxoaren 7an ekin zion estatu mailan eskaintzen ari den kontzertu birari. Euskal Herrian ere hainbat emanaldi eskaintzen ari da eta birako azkena domekan eskainiko du, gaztelekuan, 12:30ean hasita. Sarrerak aurrez erosteko aukera dago 5,50 eurotan eta egunean bertan, leihatilan, 5 eurotan.

Castro Coleman dago Mr.Sipp musikariaren atzean eta gospel munduan hasi zen ibilbideari ekin zion. 2012an blues mundua ezagutzen hasi zen eta gaur egun, kontzertuak eskaintzeaz gainera, musika genero hau irakasten ari da.



Gizonezkoen lasterketako irteera, Oñatiko plazan, 2016ko edizioan. EKAITZ ZILARMENDI

Oñatiko proba egiteko baimena badute oraingoan

DUATLOIA lazko hutsunearen ostean, datorren asteburuan, hilak 23, egingo dute Oñatiko duatloiaren 27. edizioa. Antolatzaileek trafikoa mozteko Herrizaingo Sailaren baimena dute; hala, Euskal Herriko atleta onentsuenak herrian batuko dira osterara ere

Xabier Urzelai OÑATI

Iaz baimen kontuekin izandako arazoaren ondorioz proba nagusia bertan behera utzi behar izan ostean, indar betean itzuliko da martxoaren 23an Aloña Mendiko triatloi taldeak antolatzen duen Oñatiko Duatloia.

Egitaraua, gainera, egun osoa izango da: "Goizean duatloi txikia egingo dugu. Benjamen eta alebiren lasterketak ez dira lehiakorrak izango. Korrikako eta bizikletako lehenengo sektoreak batera egingo dituzte, eta korrikako azken sektorea gaztetxo bakoitzak bere erritmoan egingo du. Ondoren, infantilen eta kadeteen lasterketak bai izango dira lehiakorrak, eta horien distantziak apur bat luzeagoak izango dira", adierazi zuen martitzeneko aurkezpenean Andoni Correasek. Hala, lasterketa horiek Eskola Kirolaren programarekin elkarlanean antolatuko dituzte Aloña Mendiko lagunek.

Uztailetik dabilta lanean

Helduen lasterketari dagokionez (16:00), Oñatiko lasterketa distantzia motzekoa izango da, eta Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak egongo dira jokoan. Hala, iazko arazo berberak ez errepikatzeke, antolatzaileak iazko uztailen hasi ziren lanean: "Iaz bertan behera utzi behar izan genuen proba eta aurten

ez genuen halakorik gura. Horrenbestez, uztailen bertan hasi ginen lanean, inoiz baino lehenago jaso genuen Herrizaingo Sailaren onespina, eta inoiz baino mimo handiagorekin presatu ahal izan dugu proba". Eta baimena lortzeko bete beharreko baldintza izan da probak iraun bitartean, hau da, 16:00etatik 18:15era, Elorregitik Oñatirako

errepidea itxi egingo dutela aulotendako: "Duela urte batzuk, bizikletako tartea Deskargatik egiten genuenean, errepidea zirkulaziora zabalik egoten zen, baina azken urteotan halako probak autoen zirkulazio barik egin behar izaten dira. Horregatik, eskerrak eman gura dizkiegu herritarrei, gure probarekin duten pazientziagatik", adierazi zuen antolaketako kide eta Federazioko presidente Iban Perezek. Hala, denbora tarte horretan, Udanako mendatea izango da Oñatitik irteteko bide bakarra.

Distantzia motzeko proba

Lasterketako datuei dagokionez, korrikalariak, lehenengo, 10 kilometro egin dituzte korrika, ondoren bizikletan gainean beste 37 kilometro egingo dituzte, eta azken bostak osterara ere korrika izango dira. Hala, asteburu horretan Euskal Herrian beste lasterketarik izango ez denez, aurreikusten dute maila oneko atletak batuko direla Oñatiko irteera puntuan. Hasteko, iazko irabazle Beñat Arnaiz arrasatearrak baieztatu du lasterketan izango dela, txapela defendatzeko asmoarekin.

Arnaiz ez da lasterketan egongo den puntako atleta bakarra izango; izan ere, lasterketan izango direla esan dute, besteak beste, Elene Alberdik, Irene Loizatek, Ruben Ruzafak eta Beñat Ormaetxeak.

Gehienez, 400 atleta

Parte-hartzaileen muga 400 atletatan jarri duten arren, antolatzaileek 200-300 kirolari espero dituzte. Horrekin batera, lasterketa antolatu ahal izateko boluntarioen lana azpimarratu zuten aurkezpenean.



Atletiko SSren kontrako lehia. GOIENA

ERRUGBIA Bi final geratzen zaizkio ARTri mailari eusteko

Arrasate Rugby Taldeari bi final geratzen zaizkio kategoriari eutsi ahal izateko –oraingo asteburuan atsedena izango dute–; izan ere, joan den astean Bilbotik esku hutsik etorri eta gero, martxoko azken bi asteburuetako partidua erabakigarriak izango dira. BRT Menditarrak eta Bera Bera B izango dira bi talde horiek; azken norgehiagoka jokatu dute etxean.



Gernikako kontra, Mondrate. GOIENA

Harrobiaren garrantzia nabarmenduta

Martitzenean aurkeztu zuten Oñatiko duatloiaren 27. edizioa, eta, Aloña Mendiko duatloi taldeko lagunek, udal ordezkariak eta babesleak, guztiek nabarmendu zuten gaztetxoendako lasterketak antolatzeak duen garrantzia, kirol jarduerari hori ezagutarazteko eta etorkizunera begira zaletasuna pizteko duten balioagatik.



Antolatzaileak, babesleak eta udal ordezkariak, aurkezpenean. T.MADINA

ARETO FUTBOLA Bihar jokatu du Mondratek, etxean

Euskadiko Txapelketan Mondrate da asteburuan etxean jokatu duen Debagoieneko talde bakarra. Sailkapenean atzerago dagoen Zirauntzaren kontra jokatu dute zapatuan (17:30, Musakola). Ligan bigarren dagoen Eskoriatzak, berriz, Basaurin jokatu du bihar (18:15) eta Bastidan jokatu dute Aretxabaleta UDA taldekoek (zapatua, 17:00).

"Finalean gure aukerak izango ditugu, seguru"

UXUE OSES ETA MADALEN ETXEGARAI PILOTARIAK

PILOTA Emakume Master Cup Txapelketan debuta egin eta, konturatu orduko, bikote oñatiarra promozio mailako finaleraino iritsi da; domekan dute hitzordua, Zumarragan

Xabier Urzelai OÑATI

Emakume Master Cup Txapelketako hirugarren edizioako finalak jokatuko dituzte domekan Zumarragan (11:45, ETB). Eta promozio kategorian Debagoienak ordezkaritza izango du, 13 urteko bi gaztek bikote helduak kanporatu dituzte-eta txapelketako azken txanpara iritsi arte. Domekan bertan, 20 eta 22 urte dituzten Maria Granado eta Ainhoa Lakuntza izango dituzte aurrean, baina oñatiarrak ez dira kikilduko.

Txapelketan lehen aldiz izena eman eta finalera iritsi zarete. Espero zenuten halakorik?

Uxue Oses: Egia esan, ez. Lehenago, Emakume Master Cupeko lau eta erdiko txapelketan hartu genuen esku, bakarka, eta hor, final-laurdenetan joan ginen kanpora. Oraingoan, baina, zor-ter apur batekin, finalera iritsi gara.

Oihartzuna izaten dabil txapelketa, kazetarien elkarrizketak, finala zuzenean emango dute...

Madalen Etxegarai: Gu ere apur bat harrituta gaude, aurrekoan Zumarragan finaleko aurkezpen ekitaldian izan ginen... Baina emakumeon pilota sustatzeko positiboa da.

Pilota ez da, baina, praktikatzen duzuen kirol jarduera bakarra. Uxue, zu eskubaloian Gipuzkoako selektziora iritsi zara –atezaina da–; Madalen, Aloña Mendiko futbol jokalaria zara...

Oses: Oraingoan, dena iristen gara, eta posible den neurrian halaxe jarraitzea gustatuko litzaidake. Pena hartuko nuke bataren edo bestearen artean aukeratu egin behar izango banu. **Etxegarai:** Egia da partiduekin, entrenamenduekin... gauza asko direla. Ikasketak tarteko, aurre-rago, akaso, kirol jarduera bataren edo bestearen artean aukeratu beharko dugu. Pena handiz, baina uste dut pilota aukeratuko nukeela.



Madalen Etxegarai eta Uxue Oses, eguaztenean, Oñatiko pilotalekuan. X.U.

"PARTE HARTU ETA KANPOAN GERATU DIREN TALDEKIDEEI ESKAINI GURAKO GENIEKE TXAPELA"

Pilotari oso gazteak zarete [13 urte], helduen kontra jokatu behar izan duzue finaleraino iristeko.

Oses: Kontrario askok gaztetan pilotan jokatu izan dute, baina ondoren hainbat urtez ez dute pilotan egin, eta orain bueltatu dira kirol jarduera horretara. Ez da gure kasua; 8 urterekin hasi ginen, eta jokatzen jarraitzen dugu.

Egun, emakumezko pilotari gazte batek gizonezko batek baino zailtasun handiagoak ditu pilotan egiteko?

Etxegarai: Gure kasuan, ez; kontrara, askotan, mutilek baino partidu gehiago jokatzen ditugu, mutilen torneoetan jokatzearekin batera emakumezkoenak ere jokatzen ditugulako. Gertatzen dena da gure adinetik aurrera mutilek indarra garatzen dutela eta ezin izaten dugula euren kontra jokatu. Hor, ema-

kume askok pilota uzten dute, eta jarraitzen dutenek ez dute izaten noren kontra jokatu. Horregatik dira garrantzitsuak Emakume Master Cup moduko txapelketak, neskek pilota utz ez dezaten, eta utzita zeukatenak buelta daitezen.

Esaerak dio finalak irabazteko dau dela. Diotenez, bikote gogorrakoak kanpoan utzi dituzue jada, nahiz eta partidu bakarrean edozer gerta daitekeen.

Oses: Final-laurdenak eta finalerdiak tarte oso txikiarekin irabazi genituen, edozer gerta zitekeen. Domekara begira, kontrarioek guk baino indar handiagoa dute, baina pilota goxoe-kin hori ez da horren garrantzitsua. Gure jokatze modua inposatzen ahaleginduko gara, eta gure aukerak izango ditugu, seguru.

Domekan etxekoak babesa izango duzue ondoan.

Etxegarai: Familiartekoak finalera etorriko dira, bai, eta, seguruenik, lagunak ere bai. Gauza handia da finalera iristea, baina behin hemen egonda... Txapelketan parte hartu eta kanpoan geratu diren taldekideei eskaini gurako genieke txapela...

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Mondra-Elgoibar

Zapatua. 17:30. Mojategi.

Deusto D.-Aretxabaleta

Zapatua. 16:30. Zubieta.

Bergara-Eibar

Zapatua. 16:30. Agorrosi.

ERREGIONAL PREFERE.

Mondra-Soraluze

Domeka. 12:00. Mojategi.

Aloña Mendi-Idiazabal

Domeka. 16:30. Azkoaga.

Ikasberri-Antzuola

Zapatua. 15:30. Garne.

Lazkao-Aretxabaleta

Zapatua. 16:00. Lazkao.

ERREGIONALA, IGOERA

Arizmendi-Aloña Men.

Zapatua. 18:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Amaikak

Domeka. 18:30. Azkoaga.

Aretxabaleta-Euskald.

Zapatua. 16:00. Ibarra.

Mondra-Bergara

Zapatua. 19:30. Mojategi.

EMAKU. OHOREZKO E.

Leintz Arizm.-Ostadar

Zapatua. 15:30. Mojategi.

Touring-Bergara

Zapatua. 18:00. Errenteri.

EMAKUM. GORENGO M.

Aloña Mendi-Hernani

Zapatua. 16:30. Azkoaga.

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Allerru-Bergara

Zapatua. 17:30. Lezo.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Soloarte-Eskoriatza

Zapatua. 18:15. Basauri.

Mondrate-Zirauntza

Zapatua. 17:30. Musakol.

Labastida-Aretxabaleta.

Zapatua. 17:00. Labastid.

OHOREZKO GAZTEAK

San Juan-Eskoriatza

Zapatua. 17:00. Iruña.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Idiazabal

Gaur. 22:00. Manuel M.

SASKIBALOA

EBA MAILA

MU-Pas Pielagos

Zapatua. 18:30. Iturripe.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

MU-Bilbao Unamuno

Domeka. 12:00. Musako.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Cafes A.-Mekalki Alo.

Zapatua. 20:00. Donostia

SENIOR BIG. MAILA

Bergara Sora.-Interna.

Zapatua. 16:00. Labegar.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza-Cafes Ait.

Gaur. 20:15. M-Muñoz.

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ford Mugarri-Gure Au.

Zapatua. 20:00. Iturripe.

Corazonistas-Fagor In.

Zapatua. 17:30. Gasteiz.

EMAKU. EUSKADIKO TX.

Aloña Mendi-Errotab.

Zehaztu barik. Zubikoa.

GIPUZKOAKO SENIORRA

Soraluze BKE-Haritzta

Zapatua. 18:00. Bergara.

ZIKLISMOA

GAZTEEN GORLAKO I.

Zapatua. 10:00.

Bergarako San Martin

plazan hasita.

EMAKUM. GORLAKO IG.

Zapatua. 14:30.

Bergarako San Martin

plazan hasita.

FUTBOLA Mondrak eta Bergarak jokatuko dute etxean

Ohorezko Erregional Mailako partidu guztiak zapatu arratsaldean jokatuko dituzte. Mondrak Elgoibar hartuko du Mojategin (17:30) eta Bergarak kategoriako oilarretako bat hartuko du, Anaitasunarekin batera mailaz igotzeko borrokan dabilen Eibar (16:30). Aretxabaletak, berriz, Zubietan jokatuko du (16:30), Deusto Donostiaren kontra.



Bergarako jokalaria baloiarekin. GOIENA

BORROKA ARTEAK Senior mailako karatea eta para-karatea Oñatin

Bihar, zapatua, Euskadiko senior mailako karate txapelketa jokatuko dute Oñatiko Zubikoa kiroldegian (16:00), eta, horrekin batera para-karate kopa –karate egokitua da– eta beterrano mailako Euskadiko kopa ere jokatuko dute. Beteranoek kata modalitatean jardungo dute eta senior mailan kumite –borroka– modalitatea ere izango da.



Gaztea para-karatea egiten. YOUTUBE

Lagunarteko omenaldi goxoa Aitor Sarasuari

Kantuak, bertsoak, errezitaldiak eta antzerkia batuko dituen 'Hegotik Iparrerantz' ikuskizuna egingo dute bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian, 18:00etan. Sarrerak bost eurotan eros daitezke, aurrez Arkupe kultura etxean eta bihar, zapatua, leihatilan

A. Aranburuzabala ARETXABALETA
Mixel Ducau, Caroline Phillips Anje Duhalde, Mixel Beheran eta Xebastian Sedez musikariek, Miren Artetxe, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariek eta Il-doka antzerki taldeak egingo dute lagun eta lankide izan zuten Aitor Sarasua bertsolariaren omenezko ikuskizuna, bihar, zapatua. "Sortzaileen jarrera bikaina azpimarratu behar da, maila altukoak dira, eta Euskal Herriko txoko askotatik datoz, musu-truk, omenaldira. Modu batera edo bestera guztiek hurreman izan zuten Aitorrekin", diote antolatzaileek.



Hegotik Iparrerantz jaialdiko antolatzaile batzordeko kideak. LORAMENDI ELKARTEA

Herritarren proposamena

Askotariko herritarrek osutako batzorde batek izan du jaialdia antolatzeko ardura, Udalaren eta herriko elkarten laguntza izan badute ere. "Aitorren omenez zerbait egin gura zuten hainbat herritar etorri ziren Lekaixoka bertso eskolara eta baita Loramendi elkartera ere. Ondoren, familiakoekin elkartu ziren asmoa azaltzeko, eta, hortik aurrera, herritar batzorde bat eratu zuten jaialdia antolatzeko", azaldu du Loramendiko eta Lekaixokako kide Martin Berrizbeitiak.

Askotariko diziplinak batuta

Aitor Sarasuak jorratu zituen diziplina eta arlo ezberdinak errepasatuko dituzte *Hegotik Iparrerantz* ikuskizunean: "Haren sorkuntza oinarri hartuta, ibilaldia egingo dugu. Errezitaldiak, musika, antzerkia, dantza eta bertsoak egongo dira. Sortzaile bakoitzak bere tartea izango du, eta euren arteko lotura egiteko Sarasuaren testu batzuk errezitatuko dituzte. Bi ordu inguru iraungo du saioak, eta, haren gertuko edo lagunentzako ez ezik, hark utzi zuen

ondarea ezagutu gura dutenentzako ere aproposa izango da".

Sendabideri laguntzeko

Iaz sortu zuten VHL sindromea ezagutzera emateko eta ikertzeko lan egiten duen elkarte da Sendabide, eta harentzako izango da bihar sarrerekin bildutako dirua. "Ekitaldiko protagonista nagusia ez da izango, baina presente izango dugu VHL sindromea eta elkarte bera", azaldu du Berrizbeitiak, eta zera gaineratu du Aitorren anaia eta Sendabide elkarte presidentea

"Hunkigarria izango da"



JOSU SARASUA
SENDABIDE
ELKARTEA

Helburua Hegoaldea eta Iparraldea gerturatuko dituen jaialdia egitea da, Aitor inspirazio moduan hartuz, eta, bide batez, VHL gaitza ezagutarazteko balioko du. Maitasun itzela dago ekitaldiaren atzean, eta planteamendua ederra da: kantagintza, antzerkia, bertsogintza eta dantza elkartzea; Hegoaldeko eta Iparraldeko izaerak eta kantaerak Aretxabaletan elkartzea; euskaraz... Aitorrek maite zituen doinu eta giroan murgilduta egingo dugu eguna.

Goxoa eta hunkigarria izango da; seguru, askok imajinatuko dugula Aitor entzuleen artean irribarrez une bakoitza gozatzen.

Atxagaren eta Gurrutxagaren errezitaldi dramatizatua

Seminarixoan egingo dute 'Martuteneko kartzelan' saioa gaur, 20:00etan; sarrerak, zortzi eurotan

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

